

Joanes Haranburu

DEBOZINO ESKUARRA

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Devocio escuarra, miraila eta oracinotegua*,
Jean Haramburu (Kristobal Harizmendiren edizioa), P.
de la Covre, 1690

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00703.htm>

DEBOZINO ESKUARRA,

miraila eta orazinotegia.

Birjinaren debozinoa, marinelena eta
san Franzesen heren ordena,
berze anhitz debozinozko othoitzekin
girstinoen probetxutan guzia travaillatua.

Obra debozinozkoetarik trazatua,
egileak berak ere bere baitharik
debotki aberatstua eta pontualki egina.

Bordelen, P. de la Covre erregeren
ardurako inprimatzaille baithan.

1635

PROBINZIALAREN BOTHEREA

Nous, Frere François Bonal, Prouincial de l'estroicte obseruance de Saint François, en la Prouince ancienne d'Aquitaine, permettons au Venerable Pere lean Haramboure, Predicateur & Confesseur de nostre Ordre, de faire imprimer vn liure intitulé *petit miroir de deuotion*, contenant aussi la Regle du tiers Ordre de nostre Pere S. François, avec Approbation des Docteurs, & licence des ordinaires. Faict à nostre grand Conuent Reformé de Tolose, le 28 de Iuin 1634.

Fr. Fr. Bonal
ministre proui

GURE PROBINZIAN TARBEKO IAUN IPIZPIKU ORDINARIOAREN APROBAZINOA

Guk Saubat Iharzek, lainkoaren miserikordiaz Tarbeko ipizpikuak, ikhusirik san Franzesen obserbanziako Aita probinzialak Aita Ioani Haranburu fraideari eta ordenu bereko predikariari eman derokan botherea inprimiarazteko euskaraz egin duen Orazino manuala gure konsentimenduaren azpian, emaiten diogu Aita Haranburu erran den huni geure konsentimendu errana Orazino manual erran den hunen inprimitzekotan. Tarben egina Marxo lehenbiziko egunean 1634.

S. D'Iharce. T. Ip.

TARBeko IAUN IPIZPIKUAREN ANAIA BIKARIO JENERALAREN APROBAZINOA

Ikhusi dut eta irakurri, Tarbeko laun ipizpi-kuak manaturik, debozino eskuarra, mirailla eta orazinotegia, Aita Haranburu San Franzesen Ordenakoak egina, eta edireiten dut, eztuela batere giristinotasuneko lege sainduaren kontra-ko gauzarik: baina dela guztia, izena duen beza-la debozinozkoa, probetxu handitakoa eta mere-zi duena inprima dadin, jendetara ilkhi dadin eta bat bederak bere eskuetan maiteki erabil dezan. Tarben egina, aboztuaren hogoi eta seigarren egunean. 1634.

A. D'Iharze. B. G.

BIGARREN EXAMINATZAILLEAREN APROBAZINOA

Ikhusi dut Aita Haranburu S. Fr. Ordenako predikariak debozinozko egin duien mirailla, eztut edireiten hartan gure fede sainduaren kontrako gauzarik: aitzitik da guziz ere debozino handitakoa, eta hala iuiatzen dut digne dela giristinoen probetxutan argira ilkhitzeko. Egina Atardaxen burullaren hemeratzigarrenean. 1634.

Konget
Olorongo kalonge eta Atardaxeko erroтора

**ENE IAUN
TARBEKO IPIZPIKU
ILLUSTRISIMOARI,
ERREGEREN ESTATU
PRIBATUKO
KONSEILLUAN KONSEILLARARI
ETA ARTHUSKO ABADeari**

launa, nahi duenak nahi duen opione suertea edukiko du, baina nik segur zure debozino sainduak debozinozko obra hunetan ni enplegatzeaz ohore handi bat errezibitu dut, eta ni baino dig-neragok ere manamendu hunen azpian gerthatzeari ohore handi leritzaio, nola hala baita, egiazki neure flakotasunak alde batetik hunelako tre-banztarik ez harzea, aitzitik errespetu mutu batez zure manamendua ahanztea konseillutan emaiten zerautan, berze aldetik arrazoinak nik nerorrek neure baithan baino bothere gehiago izatu du, lan hau dakhusazun bezalako maneran jendarteratzeagatik, ni obedient humilki atrebi-

tzera, baldin atrebimendua bada neure dudari neure kontra garaiturik zure itzalaren eta faborearen azpian hunela zu obeditzea: ezen errespetu hunek berorrek gainerako berze konsiderazino guztik osoki deskansatzen nau, eta hala zure gauza bezala zure baithan hatsapena eta akhabanza emaitteagatik zure izenaz patroiniatzen dut ahal bezanbateko humiltasunaren errespeturekin iakinik ansiatuki arimen salbamendutan, eztut erranen gehienori, baina bai guziori enplegatzen zarela, eta nola baitzara elizako pilarea, lainkoaren mahastizaina, giristinoen kapitaina, konzienzien iugea, arimen midikua, inoranten begia, itsuen gida eta zeruko arzain arthatsua, hala plazer baduzu, ene borondate ona oneko partera hartuko duzu, zeure bihoitzean bezala agerian ere euskaldunen ganako zeure orhoitzapena eta amorioa faboratuki testifikatzea gatik: ezen bethi hek gatik afizionatuki aditzen zaitut minzo zarela, eta hau da naturalezak ez ukhatzea, hertarrak obligatzea, debotak kuraiatzea, nagiak ernatzea, berthuteak irakhastea, eta zeure burua laudatzearekin berzeak ere laudatzea, zeren-eta esperanza baitut obra

hunetarik jende xehea gozatuki probetxatuko dela: baina nik gehiago aitzinatu gabe, zer eta nola bide hunez aiphatuko aren esperientzia derautzut iuje, zeinek orainokoan bezala aitzinara ere nik neure hegatsaren anzeaz baino hobeki laudoriatuko baititu zure merituak eta berthuteak egiteko biderik eman gabe.

Gainerakoan baldin trabailluak eskerrik merezi badu, zuri dagotzu ezagutza guzia, halakotz ni ere handiro obligatua naiz zure alderat eta zure zordun bezala lainkoari othoitz egiten diot, arren eman diazazun arimen gobernu sainduan hainitz urthez irauteko garazia eta azkeneko finean fin ona, hunen batenarekin orai eta bethi nago.

launa,
Zure zerbitzari humilla eta manukoa
F. I. Haranburu, obserbanziakoa

IRAKURTZAILLEARI OBRAREN IABEAK

Gizonak ahal dukeien ontasun handienetarik bata (Adiskide debota) da Orazinoa, zein baita, bere adimendua lainkoagana alxatzea, hargatik nik ere dotrina hau zure begien aitzinera athera dut nihoren erranetara eta erran ahal ditzaketenetara batre behatu gabe. Egiazki enzun dut eta badakit batzuek minzatze mueta hau arbuiatzen dutela, berriz berzek bere herrietako hitzkuntzaz nahi luketela: baina berzela eginik laudorioak baino neure herriko minzaiaz eginik baiak gogotikago pairatuko ditut, halakotz eztezala nihork mirets baldin nahastekatuki minzo ezpanaiz, baina bat bederak debotki erabil beza bere probetxutan, eta horra ene intenzioea.

Finean H bestetan edireiten duzun lekhuan geren ordenako besta date: F den lekhuan san Franzesen Ordenakoa, berze besta eskasak nork bere herrietan elizatik ikhasten ditu, lainkoak ungi gozatzeko garazia dizula eta ungi zadutzala. Amen.

C. HARIZMENDI APEZAK EGILEARI

Badakhusat klarki, zuk egin liburuan,
Merezi hainitzak, ditutzula zeruan:
Nahiz inbidiak, erran dezan zer nahi,
Merezi hek berdin, eztakizketzu bahi.
Hirur partetara lana duzu partitu,
Hirurkatze hunez, misterioz handitu.
Numero hiruraz laudatzen da lainkoa,
Hirurtasuna da, guzien gainekoa.
Anaiarik hirur, apez sakrifikari,
Fraide deskalsua, zenduten herenkari.
Lan hau noiz baituzu, hunla sakrifikatzen,
Pontu hauk guziok, ditutzu publikatzen.
Guzia den geroz, launaren ohoreko,
Golardo sailduz, segur zaitu betheko.

URTHEAZ ETA URTHEAREN PARTEZ

Urtheak hamabi ilhabete ditu; berrogoi eta hamabi aste eta egun bat; Hirurehun, hirurhogoi eta borz egun, sei orenekin: ezen denbora hunen barrenean Iguzkiak zodiaka inguratzen du. Sei oren hek laur urthetarik laur urthetara konplitzen dute egun oso bat eta da bisexte.

GARTHA DENBORAZ

Gartha denboretan aste-azkena orzilarea eta larunbata barurtu behar dira. Abendoaren heren igandearen ondoan; Garizumaren hurren astean, Mendekoste bestaren ondoko astean eta burulleko gurutze sainduaren ondoan.

NOIZ NOR EZIN ESPOSA DAITEN

Abendoaren lehen igandetik trofaniaraino eta hauste egunetik bazko zaharreraino konzilioz debeku dira ezteiketak.

IRAKURZAILLEARI ABERTIMENDUA

Irakurzaille debota obra hunen inprimatzean eginik zenbait falta liburu hunetan azkendu ahal lizate; ordea badaritzat hitz gaizki eskiribaturik edo berze gisazko faltarik edireiten duzunean, falta haren aitzineko eta ondoko hitzetarik liburuaren egileak persu hartan zer erran nahi duen errazki zure iuiamendu onak ezagutuko duela.

EGIAZKO GIRISTINOEN EGUNOROZKO EXERZIZIOA

Zeinatzearen signifikanza

Kopetan eskua emaitiak diosku Aita eternala, hirur presunen ithurria. Kopetati eskua beheiti aldatzeaz adi daiteke Semea, bigarren presuna, bere Aita eternala ganik prozeditzen dena. Soinburutik soin burura eskua erabilteak adiarazten deraku Espiritu saindua, bi presunen amoriotikakoa prinzipio batetatik bezala. Edo

Kopetatik sabelera eskua emaitiak dio, Birjinaren sabel sakratuan lainkoa haragiz beztitu zela, eta berze esku aldatzeak, gurutezan hil zela.

Iainkoak berak bere apostoluei irakatsi zerauen othoitzza

Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena. Ehor bedi zure erresuma. Egin bedi zure borondatea, zeruan bezala lurrean ere. Iguzu egun geure egunorozko egia. Eta barkha diatzagutzu geure faltak guk gure gana falta dutenei barkhatzen derauztegun bezala. Eta ezkaitzatzula utz tentamendutan erortera, aitzitik begira gaitzatzu gaitzetik. Biz hala.

Aingeruaren salutzantzia

Agur Maria garaziaz bethea, launa da zurekin, benedikatua zara emazten artean, eta benedikatua da zure sabeleko fruitua, Iesus. Maria saindua Iainkoaren Ama egizu othoitz gu bekhatoreok gatik orain eta gure heriotzeko orenean. Biz hala.

Artikulu fedezkoak

Sinhesten dut Iainko Aita bothere guztia duena baithan, zeruaren eta lurraren egilean, eta Iesu Kristo haren seme bakoitz gure launa baithan: zein konzebitu baitzen Espiritu Sainduaren berthutez, sorthu zen Maria Birjina ganik: pairatu zuen Ponzio Pilatusen manuaren azpian gurutzean itzatu zuten; hil zen, eta ehorzi zuten: iautsi zen ifernuetara iaiki zen hirugarren egunean bizirik hilen artetik: igan zen zeruetara. Iarririk dago Iainko Aita bothere guztia duenaren eskuineko aldean: handik ethorriko da hilen eta biziaren iuiatzera. Sinhesten dut Espiritu Saindua baithan. Eliza Katholika Saindua, sainduen partaletasuna, bekhatuen barkhamendua, haragiaren pitztea, sekulako bizitzea. Biz hala.

Andre Birjinari othoitzza

Agur erregina, miserikordearen Ama, bizi-tzea, eztitasuna, eta gure esperanza, Agur zure gana gaude oihuz Ebaren seme desterratuok:

zure gana gaude hatsbeherapenez aiez eta nigarrez nigarrezko haran hunetan: ea bada gure arartekoa, zeure begi miserikordiazko horiek itzul itzatzu gure gana, eta Iesus benedikatua zure sabeleko fruitua erakuts diazaguzu desterru hunen ondoan. O bihotz bera! o urrikalmendutsua! o Maria Birjina ezia. Biz hala.

Hamar manamenduak

1. Iainkorik bat baizen, ez sekulan adora.
2. Behar gabe zinik, eztakizun ahora.
3. Igande eta bestak, beira zatzu debotki.
4. Burasoak ondra, bizi zaiten zuzeki.
5. Obraz ezpa gogoz, eztuzu nihor hilen.
6. Putaneriarik, ez sekulan eginen.
7. Ebats edo gora, nihork eztezan deusik.
8. Falseriaz nihon, eztagizula hutsik.
9. Eztezazun lohi lagunaren ohea.
10. Berzen gauzetarat ez utz aiherkundera.

Elizaren manamenduak

Igande-bestetan, enzunen duzu meza,
Zeure bekhatuak, urthe oroz kofesa,
Errezibi zazu, bazkoz gorputz saildua.
Bethi segituaz, elezaren manua.
Garizumak barur, Gartha eta Bijiliak,
Paga beitez xuxen hamarren primiziak.
Ez ian haragirik, sori ezten guziaz.
Ez ezteik egin, sasoin gabe lehiaz.

Kofesio jenerala

Ni bekhatoreor kofesatzen natzaika Iainko
bothere guzia duenari bethi Birjina Maria doha-
tsuari, iondone Mikele arkangeluari, iondone Ioa-
nis Baptistari, iondone Petri eta Paulo apostoluei,
iondone N. gure patroinari, parabisuko berze
saindu guziei, eta zure Aita espiritualorri, eginez,
erranez, pensatuz, huts egin dudan guziez dut
damu eta urriki. launa, enea da falta, launa enea
da falta, launa enea da falta eta hoben handia.

Bada, launa, zuk othoi eduki ezazu enefata eta hoben handien ganean miserikordia eta pietate.

Errezibitzean

launa, ni ez naiz digne zu ene baithan sar zaitazin, ordea errazu hitz bat solamente ene faboretan, eta ene arima salbatua izanen da.

Meza hastean othoitzza

O Iainko guziz ona, zinez erakusten deraukuzu gure ganako amorioz su eta khar ditxetzula, halaz eta gurutzean zeure bizi garastia eta maittea gure salbamendutan emanaz ez kontentez, oraino gure probetxua gatik gorputz eta arima meza sainduan mirakuiluro emaiten zaizkigunaz geroztik: baina zeren amorioaz pagatu behar baitu, kontu hunetarakotz zure gana dudan debozinoak erakharri nau hemen ahalaz neure pobrezia guztia zuri gomendatzera, zuk gero pietatez enzunik eman diazadazun zure begi

sainduen aitzinekoz gai eta propi errendatzeko dohaina eta garazia. O lainko amariotsua! lainko urrikalmendutsua eta lainko handia! barkha dia-tzadatzu neure bekhatuak, eta meza saindu hunetako fruituetan othoi partale egin nazazu. Biz hala.

Sakramendu saindua alxatzean

Adoratzen zaitut Iesu Kristo launa, mundua-ren salbatzillea.

Adoratzen zaitut lainko eta gizon sakramen-du sindu hunetan errealki eta dudarik gabe zarena.

Adoratzen zitut neure ahal guztiaz. O Iesus bihotz bera! O Birjina sainduaren semea! O lainko egiazkoa! Hel zakizkit othoi heriotzeko orenean. Biz hala.

Kalitza alxatzean

Agur pasione sinduaren memorio misterio-tsua, agur gure salbamenduaren prezioa, ene arima gomendiotan har ezazu eta salbatuko naiz.

Goizeko othoitza

Esker eternalak har diatzadatzu, o Iainko pietatezua, zeren zeure liberaltasunari behaturik ni eskarniatzera utzi gabe egun hunen ikhusteko garazia eman derautazun. Badakit zor deratuzdan bezanbeteko ezagutzarik ezin errenda neza-kezula, baina aithorra hain eder zaitzunaz geroztik, aithortzen dut, o Iainko infinituki laudatze-koa, zu zarela handia, botheretsua, miserikor-diazkoa, eternala, bozkarioz bethea eta alde guziz bertutez konplitua. Ontasun infinitu hauga-tik othoizten zaitut, arren erakuts diazadazun gauik gabeko eguna, erran nahi da, zeruko loria, hunetarakotz zeure miserikordia sailduaz eduki

nazazu zeure esku saindutik orai eta bethiere.
Biz hala.

Arratseko otoitza

Mundura heldu den guziaren argitzaille mirakulluzkoa, baldin nik nerorrek neure faltez zure garaziatik neure burua aparta ezpaneza, ez lizateke ilhuntasunik ene baithan argitasunik bai-zen: baina zeren dohakabeok flako eta erorkor baitkara, hargatik bekhatutan erorzen gara eta higuingarriki nothatzen gara. Ordean o ene arimaren lainko salbatzaillea, urrikal bekizu zuk zerorrek formatu duzun arima: zeren eta zuk miserikordia eta pietate ene gatik izaitea gatik barkhamendu eske bait nagotzu ahalik humilkie-na. Badakit, launa, eguraldi guzion hainitz gisaz, ofensatu zaitudala: ordea bekhatore penitentari prometatu diozu bere barkhamendua, eta hala nik ere esperanza hunekin othoitz egiten dera-tzut, arren barkha diazadazun, Ea bada ontasun guziaren ithurburua, eman diazadazu zure gara-zian loak harzeko garazia, eta egun batez

mundu hunetarik zure loriora helzeko kontentamendua. Biz hala.

Etzitean eta iaikitzean kontrizinoa

lesu Kristo ene launa, lainko eta gizon egiazkoa, ene arimaren egilea eta salbatzaillea, zeren gauza guzien gaineratik paregabeki maitatzekoa baitzara, damu dut zu horren ona ofensatuaz eta oridanik deliberatzen dut bekhatutik apartatzerara, zure zerbitzuan leialki bizitzera, orainoko bekhatuak laburzki kofesatzera, emanen zaitan penitentzia konplitzera, neure zorrak pagatzera, eta ontasunetan enplegatzera. Hunetarakotz zure gatik neure kontra guztiei barkhatzen derautet gogotik eta borondate onez, eta zuk ere othoi zeure odol preziatuaren merezimenduak gatik barkha diazadazu, barkha diazadazu, o launa, bihotzaren ondotik eskatzen natzaitzu; urrikal bekizu bada ene estatu probea; urrikal bekizu zu zeror laudatzea gatik, eta urrikal bekizu ni salbatzea gatik. Biz hala.

Lanari lotzean othoitza

O fidelen lainko mansoa! Nola guzia guziz iakinsuna eta guzia guziz probeditua baitzara, hala gizonaren umeari bere bizitzeren atheratzedo añhitz bide utzi diozu, bain bide hei xixen iarraitzekotz, zu zerroren lagunzaren beharra du, halakotz othoi neure lan guzietan sokorri nazazu hastea eta akhabatzea zure ohoretan izaitea gatik.

Lana uztean othoitza

Arren lainko laudatzekoa eta laun espantuzkoa, ene trailla hau zure manuaren konplimentutan gertha bedi, bat bederak ezaguturik zure maiestate saindua laudatzea gatik erraiten dela: benedika bedi lainko handia, lauda bedi eta handizta: ezen hare egiten edo eragiten ditu ontasun guztiaz, eta hala eskerrak derauskitzut orai eta bethiera, Biz hala.

Orenak deraunsanean

Laudatu eta benedikatu dela Iesu Kristo gure launaren pasione sindua; gu iuiatzeko orena hunela hurbilzen da: baina iuge iustua, eznazala ustekabeen edo prest ez naizen pontuan hemendik deit, aitzitik salbatzeko estatuan nizenean. Biz hala. Gloria Patri, etc.

Hirur bertute theologalak

Fedea, esperanza, karitatea.

Laur bertute kardinalak

Prudenzia, iustizia, tenperanzia eta bortistasuna.

Gorputzeko borz sentimenduak

Bista, aditzea, usna, gustua, eta ukitzea.

Elizako zazpi sakramenduak

1. Bathaioa, 2. Konfirmazioa, 3. Gorputz saildua, 4. Penitentzia, 5. Oliadura edo anuntzioa, 6. Ordena edo apeztasuna, 7. Ezkonza.

Espiritu sailduaren zazpi dohainak

1. Zuhurzia, 2. Adimendua, 3. Konseillua, 4. Bortiztasuna, 5. Iakintasuna, 6. Pietatea, 7. Iainkoaren beldurtasuna.

Espiritu sailduaren hamabi fruituak

1. Karitatea, 2. Allegertasuna, 3. Bakea, 4. Paziencia, 5. Kuraiatasuna, 6. Ontasuna, 7. Emetasuna, 8. Mansotasuna, 9. Fedea, 10. Modestia, 11. Kontinentzia, 12. Kastitatea.

Zazpi bekhatu mortal buruzagiak

1. Urgultutasuna, 2. Abarizia, 3. Emakoitasuna, 4. Inbidia, 5. Gormandiza, 6. Kolera, 7. Nagitasuna.

Hauken kontrako zazpi berthuteak

1. Humiltasuna, 2. Liberaltasuna, 3. Kastitatea, 4. Onheriztea, 5. Sobretasuna, 6. Pazienzia, 7. Delienzia espirituala edo debozinoa.

Bekhatuez

Generalki bi bekhatu dira, bata da originala edo ethorkizkoa, zeren Adamen ume baitzara eta hau bathaioaz xahutzen da.

Berzea da aktuala edo obratuzkoa; eta zeren arima lainkoaren garaziarik khenzen duen deitzen da mortala. Khenzen eztuena bada, zein, zuhurziak dionez, egunean iustuak ere zazpitan

egiten baitu eta berriz hainberzetan desegiten, beniala daritza.

Gorputzeko zazpi obra miserikordiazkoak

1. Gose dena bazkatzea, 2. Egarrri denari eda-tera emaita, 3. Erromerian dabilzanak eta berze beharrak ostatatzea, 4. Billuzak beztitzea, 5. Eriak, karzelekoak eta berze beharrak haute-manik konsolatzea, 6. Gathibuak atheratzea, 7. Hilak ehortztea.

Arimaren zazpi obra miserikordiazkoak

1. Eztakienari irakhastea, 2. Hutsegileak korregitzea, 3. Beharrei konseillu ona emaita, 4. Tristeak konsolatzea, 5. Bidegabeak pazienki pairatzea, 6. Ofensak barkhatzea, 7. Biziak gatik hilak gatik eta gaizki egiten deraukutenak gatik othoitz egitea.

Zorzi dohatsutasunak

1. Dohatsu dira gogoz eta borondatez pobre direnak: ezen hekenzat da zeruetako erresuma.
2. Dohatsu dira emeak eta mansoak ezen lurra beretuko dute.
3. Dohatsu dira nigarrez daudenak: ezen konsolatuak izanen dira.
4. Dohatsu dira gose eta egarri direnak: ezen asesiatuak izanen dira:.
5. Dohatsu dira miserikordiazkoak: ezen ardietsiko dute miserikordia.
6. Dohatsu dira bihotz garbiak dituztenak: ezen ikusiko dute lainkoa.
7. Dohatsu dira bakezkoak: ezen lainkoaren ume dituko dira.
8. Dohatsu dira ungi egitea gatik nekeak daramatzitenak: ezen hedenzat da zeruetako erresuma.

Espiritu sainduaren kontrako sei bekhatuak

1. Obra onik egin gabe salbatuko dela ustea, edo penitenziarik egin gabe barkhamendu izaitera presumitzea.
2. Iainkoaren miseriakordiaz etsitzea eta desesperatzea.
3. Hobeki bekhatu egitea gatik egia ezagutuaren kontra ioaitea.
4. Berzeren ontasun espiritualaz damu hartzea.
5. Bekhatutan itsutukurik eta gogorturik egoitea.
6. Bere bekhatuan eta penitentzia gabe hilzea.

Penitenziaren kofesioko hirur puntuak

1. Apez aprobatuari edo kapableari kofesio osoa egitea.
2. Bihotzezko urrikia.
3. Obrezko satisfatzea.

Perfekt izaiteko hirur konseilluak

1. Borondatezko pobrezia. 2. Bethiereko kas-titatea. 3. Gauza bidezko guzietan obedient izai-tea.

Iainkoaren aitzinean mendeku eske dauden laur bekhatuak

1. Borondatez egiten den heriotzea. 2. Natu-ra kontrako bekhatua. 3. Alhargunen eta xurxen azpiratzea. 4. Sehiei eta langilei bere mendekatu-goratzea.

Berzeren bekhatuan partale egiten garen bederatzi manerak

1. Konseilluz, 2. manamenduz, 3. konsenti-menduz, 4. zagitamenduz, 5. lausenguz, 6. axola behar gendukeien falta erran gabez, 7. falta disi-

mulatuz eta debekatzera obligatu bagara ez debekatuz, 8. gaizkigilei lagunduz, 9. maleziaz eta arrazoinaren kontra berzeren faltari iabetuz.

Arimaren hirur etsaiak

1. Mundua, 2. deabrua, 3. haragia eta gaitzena haragia.

Gizonaren laur azken finak

1. Heriotzea, 2. iudizioa, 3. ifernua, 4. parabisua.

Hirur gauza generalki iakiteko ditu goristinoak

1. Zer sintsi behar duen. 2. Zer egin behar duen. 3. Zer lainkoari galdegin behar deraukan.

1. Sinhetsi behar dena kredoan datza hamebi apostoluek zeinek bere artikulua ezarririk.

2. Egin behar dena da lainkoaren manamenduetan ta eliza ama sainduarenetan, eta obra onak egitean.

3 lainkoari galdetu behar zaikana da paterrean eta abean, lainkoa ganik geure beharra hobekiago ardieste gatik Birjina andrea eta berze sainduak aratzeko amaiten direla.

Arrosarioa erraitean konsideratu behar diren hamaborz misterioak eta lehenik borz bozak

1. lainkoaren semea Espiritu sainduaren obraz konzebitu zela adiaraztea. Pater eta hamar, Abe.

2. Santa Elizabet, Birjinak bera bereriaz ioanik ikhustea. Pater, hamar Abe.

3. Birjina andrea ganik Kristo launa sorzea. Pater, hamar Abe.

4. Legearen konplimendutan Birjina elizan sarzea. Pater, hamar Abe.

5. Tenpluan launa edireitea. Pater eta hamar Abe.

Borz dolorezkoak

1. Olibeteko baratzean launak othoitz egitea. Pater eta hamar Abe.

2. Harroinarekin lothurik azotatzea. Pater, hamar Abe.

3. Aranzezko khoroa ekharteia. Pater, hamar Abe.

4. Kalbariako mendira gurutzea eramaitea. Pater, hamar Abe.

5. Bi ohoinen erdian gurutzearekin itzatzea. Pater eta hamar Abe.

Borz loriazkoak

1. Gure salbatzaillea hilez geroz pitzte Pater eta hamar Abe.

2. Gure salbatzaillea zerura igaitea. Pater eta hamar Abe.

3. Espiritu saindua ethorzea Pater eta hamar Abe.
4. Birjina Maria zeruan sarzea. Pater eta hamar Abe.
5. Birjina Maria aingeruak baino gorago abantailatuki iartea.

Gaztei abisua

Beherago ikhusiko duzue nola hasi behar duzuen khoroko arrosarioa: baina khoroka errepertitu dudan arrosario hau erraitean on da goragoko misterio hauk konsideratzea, ordea abisa zaitea gurutzearn aldeko bihi larrian Pater erraitean lainkozko izaite bat ezpa naturaleza bat memorioan harzera. Ondoko hirur bihi xehe-tan erren itzatzu hirur Abe Maria, Trinitate sainduaren ohoretan. Aita, Semea eta Espiritua Saindua dira hirur presuna, hirur presuna hauk deitzen dira Trinitatea, eta Trinitatea hirur presuntan da lainko bat. Arrosarioan eman ezazu edo zeurekin erabil zenbait bihi benedikatu. Debotki eta ahalik maizena arrosarioa erraitera kontu

eduk ezazu baldin zeure bureuaz kontu onik eman nahi baduzu: hau da konseillu ona.

Franzes de Sales sainduak khoroa debotki erraiteko irakhasten duen maneratik tiratu dudan manera

Hartuko duzu arrosarioa gurutzetik, zeinatu-ko zara, eta musu eginen diozu gurutzeari erranen duzu Kredo lainkoa begietan ikhusten bazendu bezala gogoratzen zaitzula, lehenbiziko bihi larrian lainkoa othoiztuko duzu zure zerbitzua errezibi dezala, eta ungi erraitera bere garaziaz fabora zaitzala.

Hirur ondoko bihi xehetan ararteko emanen duzu Birjina sakratua. salutitzen duzula lehenbiziko bihian. Aita lainkoaren alabarik maitenena bezala; bigarren gihian seme lainkoaren ama bezala; hirugarren bihian Espiritu sainduaren espos maitea bezala.

Arrosarioko hamarrak erraitean eginen duzu gogoeta onik eta meditazino debotik zeure bek-

hatuak gatik, elizako aizinamendua gatik, baina guziz Iesus eta Maria erraitean eginen duzu hauken bion gainean gogoeta onik.

Azkeneko hamarraren azkeneko bihi larrian lainkoari eskerrak emanen diotzatzu erraiteko eman zaitzun garazia gatik. Ondoko hirur bihi xehean salutatuko duzu birgina sakratua eta lehenbizikoan othoiztuko duzu. Arren Aita eternalari zure adimendua ofrezti diazon zuk bethiere haren miseriakondiak konsideratzea gatik.

Bigarren bihi xehean othoiztuko duzu zure memoria ofrezti diezon semeari zuk bethi haren heriotzea eta haren Pasionea zeure gogoan eta bihotzean izaitea gatik.

Hirugarren bihi xehean othoiztuko duzu ofrezti diazon zure borondatea Espiritu sainduari zu haren su sakratuaz sekulakotz erretzea gatik.

Azkenean den bihi larrian othoiztuko duzu lainkoren maiestatea, arren agrada dakion zure eginza hau guzia bere loriatan eta elizaren probetxutan. Othoiztuko duzu konserba zaitzan elizako ontasunean, eta elizatik kanpoan diren guziak elizako federa ea partaletasunera erakhar ditzan, eta othoitz eginen duzu zeure adiski-

de guziak, eta obligazioak duzunak gatik. Akhabatuko duzu hasi bezala Kredoaz fede sailduaren aithormendutan lehen eta gero. Azkenean zientatuko zara hastean bezala.

IESU KRISTO IAAUNAREN ETA HUNEN DIGNEAREN BIZITZEAREN ETA HERIOTZEAREN MISTERIOEN SUMARIOA

*misterio hauk seira emanak dira aste guzian
meditatzekotan egun guziaz hirurogoi eta hirur
Abe Mariatako arrosario bat erraiten duela eta
lehenik*

Aste lehenean

1. Lehenbiziko hamarra erraitean mediatu behar da Birjinaren konzebitze saindua. 2. Birjina sorthu zeneko bozkarioa. 3. Hirur urthe zitue-nean tenpluan presentatzea. 4. Hameka urthez edo inguruan eduki zuen bizitzearen saindutasuna. 5. Iosephekin ezkonzea, biok birginitatea botuturik. 6. Inkarnazioneko misterio handia, aingeru Gabrielelek adiarazia.

Aste artean

1. Lehenbiziko hamarra erraitean medita ezazu Santa Elizabet ikhustea. 2. Sei ilhabetez hark erabili zuen bizia 3. Birjinaren eta San Iosephen tristezia Iosephek Birjinaz zuen duda gatik, eta hauken bion geroko bozkarioa, aingerua ganik Iosephek misterioa ikhasi zuen orduan. Hauken Betleengo piaia, 4. hauken travailluak eta nekeak, nola nora erretira lekurik ezin izanez arratsaldean ibili ziren. 5. Iesus sorzea, orduko aingeruen musika soinua, eta arzainen bisita. 6. Zirkunzisione doloretzkoaren misterioa.

Aste azkenean

1. Magoek ezpa hirur erregek bere presentekin adoratzea. 2. Birjinaren purifikatzea, eta tenpluan salbatzaillea presentatzea. 3. Hunen Egiptorako ihesa Herodezen beldurrez. 4. Tenpluan Iesus hamabi urthetan galzea. 5. Iesus bere amaren etxean egoitea, eta hunen obediencia hemozorzi urthez. 6. Iesus bathaiatzea, barurzea, tentatzea eta desertuan biktoria izaitea.

Orzegunean

1. Hirur urthez Predikatzen hartu zituen nekeak. 2. Hunen mirakulluen botherea, guzior salbamendutan. 3. Hunen transfiguratzeke loria. 4. Hunen Ierusalameen arramu egunean sarzea. 5. Pasionera ioaiteko ama ganik hartu zuen kongia eta azken adia. 6. Apostoluei oinak garbitzea eta sakramendu saindua ezartea.

Orzillarean

1. Iesusen othoitzaren baratzean, nekea eta atzemaitea. 2. Gau hartan Ierusalamera eramanez pairatu zituen penak eta ondikoak. 3. Pasione harzako zegoen goizean iugen eta gortheen aitzitean pairatu zuena. Iesus azotatzea. 4. Iesus azotatzea. 5. Iesus elhorritz khorroatzea. 6. Iainkoaren semea baino Barrabas ohoina gehiago jendeak eduitea, noiz-eta Pilatusek jendearek erakutsi baitzaien, erraiten zerauela: *Ecce homo*.

Larunbatean

1. Gure salbatzailearen kontra hilzeko eman zen sententzia. 2. Kalbariara gurutzatzea soinean

ioaitea. 3. Nola urkhabe batekin itzatu eta gurutzefikatu zuten. 4. Gurutzean hirur oren bizirik egin baitzuen, zer orduan pairatu zuen. 5. Heriotzea eta saihetseko dardo kolpea. 6. Gurutzetik eraustea eta ehorztea.

Igandean

1. Birjina hirur egunez baxharrik eta tristerik egoitea. 2. Erresusztatutako zenenko misterioa agermenduekin. 3. Igan zedeko mirakulluak. 4. Espiritu Saindua Mendekoste egunean iautstea. 5. Birjinak gerostik hil artean eduki zuen bizitza. 6. Birjina hilzea, zeruratzea, eta zeruan khoroa bat aingeruez goragokoa izaitea.

Andre Birjinaren arrosarioa

Pater de caelis Deus. Miserere nobis.

Aita lainkoaren ohoretan Pater

O Birjina loriazkoa! Santa Ana zeure amaren sabelean bekhatu originalik gabe lainkoaren garaziaz konzebitua zarena: emanaraz diazagu-zu arimen saindutaduna, zure othoitzen indarrez

parabisuko bidea izaitea gatik, knon saindurik baizen deus ezpaita sartzen. Abe Maria.

O Birjina handia! konsenti diazadazu eta balia aingeru Gabrielelek salutatu zinituen salutanziatziaz nik ere indigneorrek zu bihotzez salutatzeara eta zure debotki erraitea. Abe Maria.

O Birjina dohatsua. Ardiets diazaguzu Espiritu Saindua ganik indar eta aiuta: zuk lainkoaren semea konzebitu zenduenena, Espiritu sainduak faboratu zinituen, eta othoi zuk gu fabora gaitzatzu geure obrak prestuki konzebitzea gatik ezpa aditzea gatik eta egitea gatik. Abe Maria

O Birjina, lainkoaren ama dohatsua! zure seme launa gana fede bizi bat, esperanza zinezko bat eta amorio garbi bat guk eduitea gatik othoitz egizu. Abe Maria.

Fili Redemptor mundi Deus. Miserere nobis.

Semearen laudoriotan Pater.

O Birjina garbia eta nihoiz makulatu gabea! zuk zeure birginitatea zeure seme launari konsekratu diozu eta nik neure borondatea zurekin batean konsekratzen diot; baina hobeki zerbitzatzeara gatik emanaraz diazadazu kastitatearen

donua eta dohaina, bihotzeko garbitasuna eta ungi-egitei iarraikitzea. Abe Maria.

O Birjina izorra zinena eta erdi zarena, Ama Birjina gorputzean narrio gabea: desir onak harzera eta perfektasun guzizi lotzera molda gaitzatzu: zuk hunetarakotz othoitz egite gatik othoitzez nagotzu humilki. Abe Maria.

O Birjina deus izan ezpazendu baino gehiago zeure izorran kargarik sentitu eztuzuna! zeure seme launaren manamenduak allegeraki konplitzeko abiltadea izanaraz diazaguzu. Abe Maria.

O Birjina sakratua, dolorerik gabe erdia, andre abantailtua, erdi baino lehen, erditzean eta erdiz gero ere Birjina zarena iguzu geure obra onak eta desira onak lehen, orduan eta gero zure bitartekotasunaz lainkoari geure bekatuen baramendutan agradarazteko garazia, Abe Maria.

Spiritus Sancte Deus. Miserere.

Espiritu sainduaren ohoretan Pater.

O Birjina dohatsua! zuk Elizabethek erran zerotzun orduan sinhetsi zenduen inkarnazio-nea, eta berze misterioak. Iguzu eliza amak

dadukan guzia guk ere hitzez eta obraz sinheste-ko garazia. Abe Maria.

O Birjina obeditzera humilla! O unzi espiritua-
la! O zeure humiltasuna gatik lainko launak begi
argiz behatu deratzuna iguzu zure seme launa-
ren manamenduetara obedient izaiteko grazia,
gerok baino gehiagoen ezagutzeko anzea, eta
geure ezteustasunaren aithorzeko agudezia neu-
rrikoa. Abe Maria.

O Birjina minzari zuhurra, hitzetan ase,
obretan konplia eta alde guziz perfekta! Khen
ezazu gure ganik hitz ergel guzira, giristino lagu-
naren kontrako aiphamen guzia eta berze gaine-
rako banaloria guzia. Abe Maria.

O Birjina handiro pribilegiatua, obra onetan
segitzen duzuna, berthutetara emana, meritue-
tan perfekta eta alde guziz sainduki dohatsutua.
Zeure merezimendu handiez konpli gaitzatzu
geure eskasetan, zeure othoitzez irabaz diazagu-
zu ungi pensatzeko manera, bidezki minzatzeko
anzea, azken fineraino behar bezala obratzeko
kuraia eta hil ondoan bizitze eternala, biz hala.
Abe Maria.

Birjina ganako gomendioak

O Birjina ezta, abandonatuen geriza, baderauzkitzut othoitz hauk, lainkoaren semea herze birginaletan konzebitu zendueneko plazer hartuaren orhoitzapenetan, eskerrak aita eternalari emaiten diotzadala eman zerotzun fabore huragatik, diot, zu bere seme bakhoitzaren ama egitea gatik, eta haren gizonzeak gizon arrazari eman zioen ontasuna gatik: errekeritzen zaitut, arren erakhuts zaitean gure ama, gu zure seme preziatuari, gure arimen begiraleari eta humiltasun perfetari hurbilzea gatik aita eternalaren loriatan eta ohoretan, Espiritu sainduaren batasunean. Biz hala.

2. gomendioa

O Maria Birjina saindua, garaziaz bethea, eta emaztetako benedikatuena, baderauzkitzut othoitz hauk, Elizabeth sainduaren ikhustean, eta gure salbatzaillearen inkarnazionea Espiritu sainduak deklaratu zerotzun orduan izan zenden plazeraren ohoretan: othoi bisita gaitzatzu

eta ikhus gaitzatzu zeure aiuraz, pausu onetan Aitaren bothereak eta Espiritu saindu konsolarioen karitateak gu erabil-araztea gatik Iesu Kristo gure launaren merituz. Biz hala.

3. gomendioa

O Birjina Maria guziz urrikari gaitutzuna, zeruetako erregina baderauzkitzut othoiz hauk, bethi Birjina zarela munduaren salbatzailleaz dolorerik gabe sainduki erditzearen alegrianzatan: othoitzez nagotzu, arren amorio handi hunen berbhutez zeure semea ganik ardiets diazaguzun Espirituko pobretasunaren dohaina, Aita eternala gana egiazko errespetua eta bizio guzietarik bizi hunen finerainokoan garbi izaitea. Biz hala.

4. goimendioa

O Maria Birjina garbia, baderauskitzut othoitz hauk zure seme maitenenari erregek adoraturik presentak eman ziotzatenean errezibitu zenduen plazeraren konsiderazinotan: othoitz nagotzu, arren bizio guzitik penitenziaren botherez eta lainkozko amorioaren suaz garbi naza-

zun, Aita eternalari agradatzen natzaikan beza-lako ofrenda ni preparatzea gatik. Biz hala.

5. gomendioa

O Birjina Maria miseriakordiazkoa, aingeruen enperadorea, baderauzkitztu gomendio hauk, hirur egunez semearen bilha ibilirik, gero ondolan dotorekin disputan zegoela tenpluan ediren zenduenean hartu zenduen kontentamenduaren orhoitzapenetan: Arren egiguzu lainkoa bethi bilhatzeko garazia, galzen dugun orduan iguzu urriki eta sentimendu handia, eta behin aurkitzen badugu othoi bere miseriakordiaz bego gurekin bethi. Biz hala.

6. gomendioa

O Maria Birjina benedikatua, bekhatoren ama, baderauzkitzut gomendio hauk, gure lesu Kristo launak pitzturik eta bisitaturik salutatu zintuenean errezibitu zenduen bozkarioa gatik: arren irabaz diazaguzu halako obrak egiteko garazia, non zure seme launaren garaziaz pitzturik iraun eta persebera dezagun garazia hartan

guk lainkoaren borondatea konplitzea gatik. Biz hala.

7. gomendioa

O Maria Birjina loriaz bethea, aitaren alaba, semearen ama, espiritu sinduaren esposa, Trinitate sainduaren egoitza sakratua, gomendatzen natzaitzu zerura igan zineneko loriaren orhoitzapena bitharteko emanik, eta othoitzez nagotzu, harren egun artako sendagailla handi haren berthutez izan diazaguzun geure etsaien kontra biktoria: eman diazaguzun Trinitate saindua ohoartzeko moldea; eman diazaguzun Trinitate guziarenlorian pazuner izaiteko meritua lesu Kristo gure launaren biziaren, pasionearen eta heriotzearen berthutez. Biz hala.

Gomendio hauk arrosarioan sarthuz erraiteko propiak dira, hamar guziaz gomendio hautarik bat.

Andre Birjinaren zazpi bozkarioak

1. Allegera zaitea, o espiritu sainduaren esposa, parabisuan orai errezibitzen duzun kontentamendua gatik: ezen zu zeure garbitasunak eta birginatasunak aingeruak baino gorago alxatu zaitu.

2. Allegera zaitea, o lainkoaren ama birgina parabisuan sentitzen duzun plazera gatik: zeren eta iguzkiak hemen behere lurrean mundu guzia argitzen duen bezala zuk ere zeure distiamenduz ederzen eta klaratzen baituzu parabisu guzia. Abe Maria.

3. Allegera zaitea, o lainkoaren alaba, parabisuan oren hunetan gozatzen duzun ontasuna gatik: zeren-eta aingeru guziek eta arkangeluek, tronuek eta iauntasunek eta espiritu dohatsu guziek bere kreatorien amatzat ohoratzen, ezagutzen, erreberentziatzen eta errespetatzen baitzaituzte eta zuk egiten derauezun kheinurik tipienara obedient baitaude. Abe Maria.

4. Allegera zaitea, o Trinitate sinduaren neskatoa, parabisuan sentitzen duzu eta gozatzen zaizkan bozkarioa gatik: zeren eta zu zeure

seme launari eskatzen zaizkan garazia guziak bertan emaiten beitzaitkitzu eta san Bernatek dioen bezala bat ezta zure esku sainduetarik lehenik iragaiten ezten garaziarik hemen behere lurrean emaiten. Abe Maria.

5. Allegera zaitea, o prinzesa noblerena, zeren-eta baldin lainkoaren semea bere Aita eternalaren eskuineko aldean iarririk badago, zu ere zeure seme sainduaren eskuinean bakharririk iarra baitzaude. Abe Maria.

6. Allegera zaitea, o bekhatoren esperanza, malenkoniatuan geriza parabisuan duzun alegrianza handi hura gatik: zeren-eta zu laudatzen eta errespetatzen zaituztenak, Aita eternalak mundu hunetan bere garazia sainduaz eta berzean iainkoso loriaz errekonpensatuko baititu. Abe Maria.

7. Allegera zaitea o ama alaba eta lainkoaren esposa: zeren ori parabisuan gozaten zaizten garazia guziak, kontentamenduak eta faboreak ezpaitira sekulan gutituko, aitzitik lehen iudizio-ko finereino berretuko baitira, eta mendetarik mandetaraino iraunen baitute. Biz hala. Abe Maria. Gloria Patri etc.

Othoitzza

O Maria Birjina emea. Iainkoaren ama, garazien erregina, bekhatoren abokata, malenkonia-tuen konfortua, tristen faborea, lurreko konso-lamendua, zeruko bozkarioa, etsaien izialdura, adiskideen bizitzea, eta andre perfekta, pietatez othoi ni zure zerbitzarti indigneaz enzun nazazu, eta zeure maiteen eta zeure bulhar birginazkoan eskiribaturik daduzkatzunen kontuan eduki nazazu. Garbi diazadazu, o Birjina garbia, neure bihotza bekhatu guzietarik: khen eta kasa ezazu ene baitharik zure begiei desplazer, zaien guzia: purga ezazu ene arima lurreko desiretarik eta alxa diazadazu neure espiritua zeruko onen eta bethi eternalen amorigora egizu ene delienzia guzia hunetan izaitea. O Birjina saindua, orai eta neure heriotzeko pontuan eta udizioko egun izigarrian, neure eginak gatik kontu eman beharko dudan hartan, othoitz egiozu ene gatik zeure semeari o Birjina sindua, zeure lagunzaren bot-herrez othoi sekulako suaren penetarik aparta

nazazu, beraz ni bekhatore ondikozkoa ez nazazula nihoiz kita. O Birjina egun hartan zure pietateari gomendatzen diot neure arima eta gorputza: erregina zazu arren goberna eta defenda nazazu gaitz guzitik, periletarik eta mundu hune-tako etsaietarik. Othoitz ezazu zeure seme launa arren eman diazadan neure bekhatuen barkhamendua, egiazko fedea, esperanza fermua, karitate handia, eta Espiritu sainduaren garazia, garazia hunen aiutaz bethi bere borondate saindua niri eragitea gatik. Halaber, o andre Birjina othoi herri hau begira ezazu grlatik, izurritik eta gosetetik: ene ahaideak adiskideak eta giristino guziak gaitz guzietarik salba itzatzu: egizu, Ama Birjina, zeure pietatea gatik, egizu zeure amata-suna gatik egizu zeruko loria gatik. Biz hala.

Bozkario hauk othoitz hunekin batean erraiten dituenak fabore handiak izanen ditu Birjina ganik, hala da Birjinaz beraz saindu bati prometatua.

lainkoaren amaren salutzantzia

Agur, aita lainkoaren alaba. Agur, seme lainkoaren ama. Agur, Espiritu sainduaren esposa. Agur, Trinitate sainduaren tenplua eta lekhu sakratua.

Andre Birjina Mariari othoitzza

Iainko aitaren ontasunetik sorthu zaren seme Iesu Kristo errege launa, fabora nazazu: Birjina benedikatua, enzun nazazu: mundu guztia salbatu duenaren ama, hel zakizkit: parabisuko andrea, begitartez beha diazadazu: zeruko eta lurreko erregina emea eta laudatua, bitarteko onbetho gertha zakizkit: gizon arraza guziaren abokata, egizu othoitz gure gatik: ezen zu zara aingeruen andrea; patriarken lilia, profeten desira; apostoluen tresora; kofesoren ama; kofesoren ama; birginen ohorea; Birjina ama eztia, egizu othoitz ene gatik o andre ederra eta dilzea! Aingeru guziek elkarrekin duten baino zuk zerorrek fabore gehiago duzu, eta hala aiuta nazazu gaitz

guzietan: eta arima gorputzetik partituko den egun eta oren izigarrizko hartan ez nazazula arren utz: andre emea, oren hartan eta iudizioko orenean fabora nazazu, eta parabisuko athean zeure seme maitearen aitzinera hel nazazu, hor finik gabe haren loriaz azurekin batean gozatzea gatik eta bethiereko garazia ikhustea gatik. O parabisuko athea Iesu Kristoren palazioa, itsasoko izarra, mundu guziaren konsolamendua, finik gabeko hastea, Maria Birjina ezia, Iesu kristoren esposa, elementuen athea, giristinoen esperanza, pietatearen ithurria, bakearen osasuna. Birjinasunaren buruzagia, aingeru guziak baino goragokoa miseriardiaren ama, Birjina guzien gaineko birgina, lainkoatasunaren tenplua, kreature guziak baino ederragoa, ez-titasunaren andrea. O salbamenduaren probedimendua Iesus. O Maria, duzun nitzaz pietate: zeren-eta zu beitzara dolorearen erremedioa eta konsolazioa, zure baithan allegeratzen dira aingeruak, ea bada miseriardiaren andre ezia, itzul itzatzu ene gana zeure begi miseriardiazkoak eta garaziaz argi nazazu, eta othoi enzun ezazu ene othoitz. O andre pare gabea! zeure esku sain-

duetan gomendatzen deratzut neure arima eta gorputza. Pater. Abe.

Iosaphateko haranean Birjina Mariaren sepul-turan edirena da orazino erran den hau, eta berekin duenaren edo egunean behin debotki erraiten ezpa errenarazten duenaren hainiz bert-hute du: nola baitira sutik, uretik, konbatetik eta etsaien azpitiz libratzea eta begiratzea, buruko minetik sendatzea, espiritu gaixtoa khenzea, ezin erdiz dagoena erdiaraztea, baldin kofesatu-rik eta errezibiturik orazino hau debotki eskura harzen badu; Birjina gana debot denak hirur egu-nez hilen den baino lehen Birjina bere faboretan ikhusiko du.

Sankta Methilderi Andre Birjinak hilziko orenekotz irakhatsi hirur othoitzak

Birjina saindua, lainkoaren ama, dohatsu guziez gorago lainko eternalak alxatua eta bere buruaz lekhora zruen eta lurrean bothererik gehiena eman deratzuna: othoitzez nagotzu,

neure andrea, arren zeure ahalaren ereduaz ene heriotzeko orenean lekhan ediren zaitean eta neure flakotasuna bortitz diazadazu zeure faboreaz eta khen diatzadatzu neure etsaiak deuse-tan ere damurik egin ezteazadaten bezala, ene arimak atsekaberik ez izaitea gatik. Biz hala.

Bigarren othoitzza

Birjina saildua lainkoaren ama, lainko aita-ren seme eternalak edertua eta ezin erranezko subeertean zeruko iakintasunaz eta zuhurzia beztitua eta bethea, loriako argi franko batez ere inguratua, parabisuko saildu guziek bino klar-kiago Trinitate saildua kontenplatez gatik eta argitasun hunen berthutez Trinitate sailduaren izaitea ikhustea gatik. O andrea, zeru guzia argi-tzen duzu eguzki distiatzen duen batek bezala, zeure iainkozko zuhurzia eta argi dohatsua bitar-teko emanik errekeritzen zaitut andre noblea, arren neure hariotzeko orenean zeure othoitzez fabora nazazun, gaitzetarik begira nazazu eta fede bizi bat ene baithan eman dezazun ignoran-ziaren azpitik ni bide bunez atheratzea gatik era

hobenen oinhazeak ene baitharik khenzea gatik.
Biz hala.

Azken othoitzza

Birjina sindua, lainkoaren ama, zure baithan Espiritu saindu konsolariak lainko bat aitarekin eta seme bat perfetuki eta abundantki ostatatu ditu: zure baithan bere iainkozko amorioaren eta karitatearen eztimasuna eta zaporea eman ditu: zu hanbat faboratu zaitu, non lainkoaz lekhora ezpaita zu bezain miserikordiazkorik eta emerik, arren, ene andre eztia, berthute hunen eta hain kualitate eztiaren arauera neure heriotzean faboratzera ethor zakizkit, eta lainkoaren amorioa halako gisaz ene eztiaraztera balaka diazadazu, non heriotzearen garratztasunik, borthiztasunik ezpa berze niholazko behazunik eztakidan kontra, aitzitik ungi eta faboratuki kontua lainkoari errenda diazodan. Biz hala.

Fabore galdetzeko othoitza

Nola baituzu gradurik handina bezala ontasunik handiena ere lainkoaren ama bethi Birjina izaitea, hala zeure amatasunaren propitatez obteni diazakedazu munduko banitateak nik utzirik zeruko bideak edukitzeko indarra eta faborea. O aingeruen erregina sabanta! eman diazadazu zer eta nola eskatzeko zuhurzia: ezen añañhitz gauza eskatzen naiz, baina maiz behar ez bezala, hargatik maiz enzun gabea gerthatzen naiz, ordea orai zure faborearekin batean behar bezala fabore galdetzeko debozinoa dut, eta hala, andre humilla, zeure exzellenziak gatik eta salbatzaillea baithan duzun garazia gatik eztiadzaduzula arren falta sokorritzera neure premietan: ezen zure baithan esperanza handi bat dadukat neure indignetasunak gatik enauzula laboratu gabe utziko. Ea bada, andre pietatezkoa, zeure gomendioan har nazazu, baina har nazazu ez utztekotan, hala suplikatzen natzaitzu, eta enzun nazazu. Biz hala.

Andre Birjinari othoitzza

Agur Maria Birjina ezitia, lainkoaren alaba, semearen Ama Espiritu sainduaren sakratutegia, andre garaziaz bethea, emaztetako benedikatuena, zeruetako erregina, aingeruen enperadorea, beharren konsolaria, bekhatoren ama miserikordiazkoa, abandonatuen geriza, lainkoaz lek-hora goragokorik eta bardinik gabea: lainko guziz botheretsuak eman derauzkitzun abantail hautzaz guziaz suplikatzen zaitut, arren ene premia guzia halako moldez urrikal dakizun, non othoitz dezazun zeure seme launa ni gomendiotan harzera; baldin zu, andre saindua, enplegatzan bazara, segur naiz egundainoko umerik dohatsuena izanen naizela: ezen badakit zure eskea borordate onez akhordatuko eta emanen duela. Ea bada, ama saindua, zeure faborez izan diazadazu zure begi garbien aitzineann giristino leial bizitzeko garazia eta lurreko gauzez gorputza mantenatzea gatik b??????kasurik egin gabe bizitzeko erregelamendua, gero mende hunen ondoan zure seme Iesu Kristo gure launa eta zu

hunen ama dignea eternalki ikhustea gatik. Biz hala.

Andre Birjinari othoitzza

Andre Maria Birjina tatxa gabea! Zutzaz deliberratuki orhoitzen nizen guziaz bihotz guzia kontent hutsez allegeratzen zait zeren zure meritu handietan dignetasunik eta bozkariozko suietik baizen ezpaitut edireiten. Halakotz neure behar orduetan zure gomendiora ihe s egiten dut, eta zuk bere hala enzuten nauzu. Ea bada, donzeilla saindua, zeure saihets sakratuan gerizatua bethi eduki nazazu eta esperanza dudan bezala behar ordu guziaz konforta nazazu: ezen badakit, andre goikoa, zure ganik aÑhitz garazia behere hunetarat iausten dela, eta nik ere gero zure eskolatuak bezala, orai iakin gabez ezin trenka ditzakedan eskerrak, ohore handi batekin erranen ditut zure endrezu loriosez dohatsutasuneko lekhura hel nadinean, eta bitartean hemen bizi naizeino neure molde apurrean laudatuko dut zure izen ederra deabruei eta berze etzai guziei

despit egitea gatik, ainigeruei eta berze zure adiskidei plazer eta atsegin harraraztea gatik; manera hunetan zure othoitzez lainkoaren garazian hilzeko dohaina ezan diazadazu, eta guzia zure laudoriotan konbertituko da; salbatu da bekhatorebat, biz laudatu Maria bere lagunza onak gatik; Parabisura da Birjinaren debot bat, biz laudatu Maria bere debota hunela sokorritzea gatik: finean Maria laudatuko zara zeruan zeure merezi handiak gatik eta ni bezalako presuna pobrea faboratzea gatik. Biz hala.

Predikua hastean othoitzza

Prepare ezazu, andre Birjina, lainkoaren hitzez handiro prezatzen zarena, prepara ezazu zeure delienziez ene adimendua zure seme launaren dotrina enzutera, eta eman diazozu predikariari Espiritu sainduaren hitzkunza elizako ebangelio saindua sustanzioski eta probetxurekin deklaratzera gatik. Eman diazozu minzatzeko botherea eta eman diazaguzu enzuteko faborea,

batzuek eta berzek zerua laudatzea gatik eta ari-
mak salbatzea gatik. Biz hala.

Andre birginari marinela egiteko othoitza

Andre Maeia Birjina, gure salbaitzaillearen
ama, bekhatoren esperanza, Adamen ethorkia-
ren ohorea, lurreko kreaturen andrea, munduko
mirakullua, Birjina guziz garbia, aingeruen erre-
gina eta lainkoaren etxea! ni bekhatore handia
izana gatik, arren ez nazazula arbuia, aitzitik
bethi fabora nazazu eta zure semearen aitzinean
ararteko on gertha zakizkit: ezen zure behar
bezala eskatu zaitzunik gabe bihurtu dela ez
tut egundaino enzun, eta zuri debotki gomendatu
zaitzunik kaltetan egundaino erori dela ez
tut ikhasi baina bai peril handien erditik ere salborik
ilkhi dela eta hala girstino leial guziak garazia-
ren eta miserikordiaren ama zarela arrazoinekin
famatzen zaitu. O saindutasunaren mirakullua!
enzun ezazu othoi ene othoitza: zeren-eta nik
kreatura pobreorrek zuk orai eta bethi gaitzeta-

rik ni libretzea gatik, neure burua zure gomen-
dian ibainzen baitut. Ardiets diazadazu arimako
eta gorputzeko garbitasuna, bihotzeko humilta-
suna, lainkoa ganako debozinoa eta haren
borondate sainduaren egiteko anzea eta indarra.
Giristino lagunaren alderako karitatea, bakea
eta arrunkidetasuna. Fabora nazazu piaia peliros
hunetan, fabora ezazu beharrean dagoen presu-
na guzia, baina guzia ere gure konpainia bere
nezehitatezko puntu eta puntada guztietan.
Egizu gure etsaiak gure gainean eskurik eztezan
har, alde zakizkigu bethiere; zure itzalak berak
izituko ditu: Andrea zu hargatik etzara nekhatu-
ko baina bai gu konsolatuko; zu etzara periletan
sarthuko, baina bai gu periletarik kanporako; zu
etzara gutiagotuko, baina bai gu gehiagotuko,
eta gu hunelatzearekin batean zu ere laudatuko
zara eta sekulakotz prezatuko bekhatoreoi egin
derakuzun aiuta gatik. Biz hala.

Andre Birjinari othoitzza

Agur Maria, alaba saildua, alabetako abantailatuena, abantailatuetao dohatsuena, dohatsuetao ederrena, ederretako maiterena, maitetako konpliena, konplietako sailduena, eta lainkoaz landan lehena.

Agur miserikordiaren ama, munduko andrea, zeruko erregina, birginen birgina, sailduen saildua, itsuen argia, iustuen loria, bekhatoren barkhamendua, garbitasun guziaren miraila eta ontasun infinituaren ganbara.

Agur ama lainkoarra, eta zeure ontasuna gatik lainkoa baithan ediren zenduen garazia eman diazazu munduari ezagutzera zeure orazi-no sailduetz ardiesten derauezula bekhatorei barkhamndua, eriei osasuna, iziperi kuraia, tristatuei konsolatzea, perilekoei sokorrimendua, gathibuei libertatea, exituei esporzua, hobenduriei salbamendua eta giristino debotei parabisua.

Agur garaziaren edireillea, biziaren ama, eta salbamenduaren lekhua. Zure seme launari hesteko garazia zeure othoitzez irabaz diazaguzu.

Agur iujearen ama abantailatua, garaziaren kobrua, parabisuaren ohore, loriaren distia, salbatzaillearen Arka hersia. Eta zeruko gakhoa! zeure pribilegi handiak gatik egidazu garazia kautuki dakidan bezala frogatzen dudala senda-gaillas erraiteko zu zarela tristen alegrianza, hiratuen boztea, nagien iratzarzea, enkoniatuen pazegua, malenkoniatuen konsolatzea, khexatuen sosegua, unheen pausua, penatuen libranza, gathibuen itzurzea, erien osasuna, bidega-been pazienza, kontrarioen iustizia, merituen ezagutza eta deboten parabisua: merezi duzun bezanbat laudorio nik eman nezakezu: baina zure baithan esperanza emana dutenak zuk zeure pietatea gatik handiro faboratzen ditutzu, eta hala ni ere urrikalzen natzaizula fabora nazazu: ezen zuri gomendatzera huna ethorria naiz, eta adi nazazu ama ona garenak bezala: amak umea gatik aÑhitz daidi: zu zara bada ama eta gu gara amaren umeak.

Agur gizonen bizitzea, arimen salbatzea, lekhu guziko mirakullua, gure estatu urrikalkizuna eta bizi nigartia muda itzatzu lurretik egunba-

tez zeruko loriara igan gaitzkeien bezala. Biz
hala.

HUNERAINOKOAN DA OBRA HUNEN LEHENBIZIKO PARTEA

BIGARREN PARTEA

Igandeko othoitzza

O Iainko guziz botheretsua, zuri zor derauzkitzuggun eskerrak berzataratzen ditugun orduan (nola maizegi egiten baitugu) adimendu nahasia dugu, memoria guti dugu edo batere ezugu, iondone Paulok irakhasten deraukunaz berze alde iakiteko gendukeienaz geroz deus ezugula berzatarik izan ez tugunik. O Aita eternala! ait-horzen dut zer ere baita onik haren guziaren egilea edo eragilea zu zarela, eta hala ontasun guzietarik zure zor derauzkitzugu eskerrak. O Iainko launa, deus faltarik ene baithan edireiten duzunean, ni naiz egilea eta hobenduria; deus onik edireiten duzunean, zu zara emaille liberala eta laudorio behar duzuna. Hunen batenarekin beraz, o neure bihotzeko Iainkoa, niri egin derauztatzun kortesia handiak gatik laudatzen eta benedikatzen zaitut zeruan izar, lurrean behar eta itsasoan ur xorta den bezanbatetan eta

gehiagotan: ezen kontu gabeko faboreak zure esku urrikalmendutsutik errezibitu ditu eta errezibitzen ere hanbat gorputzean nola ariman. Ea bada, lainko launak ene gana zaituzten ontasunak, lainkoari eskerrak errenda diatzotzue; ene bihotza. lainkoari eskerrak eta laudorioak eman diatzotzu, ezen zordun zara zure hobeagoa gatik lainkoak onak errepertitu derauzkitzunaz geroztik. O igande saindua, lainkoak arimen mahainzat ordenatua o parabisuko laudorioak tratatzeko eguna! O zeruko othurunzaren besta saindua! zutzaz orhoitzearekin batean orhoitzen naiz ene arima ere horko ethorkitik dela: baina, o ene arima maitea, zergatik etzara zeruko zeure herri noble hartarat hobeki lehiatzen? Zergatik etzara iratzaren? Zergatik etzara zeure etsaien artean hobeki konbatitzen? Bethi lurrera beha zaude. Bethi gogoia lurrean duzu. Bethi zeure plazerera bizi nahi zinateke. Helas! eztakizu munduaren deabruaren eta haragiaren lausenguak traidore lausenguak direla eta bizkitartean gehienik zu halakoetan prezatzen? O ene arima lainkoak berak bere odol sainduaz xahutua! o ene arima lainkoak berak bere bizia emanik garastia errosia.

Delibera ezazu ifernuko bidetarik apartatzea gatik lankoaren zerbitzatzera: zeure salbamen-
dua gatik mundua kitatzera: parabisua irabaztea
gatik munduarekin ez aditzera: ezen zer probe-
txu duzu munduan denbora apur bat gehinez ere
ungi izaitea, baldin gero mundutik ilkitzearekin
batean sekulakotz ifernuan zeure erhakeria
gatik egoiteko ungi izaite hura balitzen bazaitzu,
bizkitartean gerthu da eta zerorrek ere badakizu
lainkoa eta deabrua biak ezin zerbitza ditzake-
tzula, eta badakizu hainitz orduz hitzez lainkoa
eta obraz deabrua zerbitzatzan duzula. O doha-
kabetasuna! O miseria.

Ene arimaren iabea eta habe a lainko launa,
barkha diazadazu neure hobenak, barkha diatza-
datzu neure bekhatuak eta penitentzia egiteko
garazia eman diazadazu zu gehiago ez ofensa-
tzeko dohainarekin. Eman diazadazu konzien-
zian bakea, ariman amorioa, bihotzean debozi-
noa, herrian adiskidetasuna erresuman giristino-
tasuna, konseillu ona, fidelitatea eta sosegua.
Eman diazaguzu lurreko fruituetarik gozo ona
geure traillauetarik salarioa, geure aziendetarik
probetxua eta brze gainerako ontasunetarik

behar bezalako aiuta, guk ere zu ordainzat laudatzea gatik, benedikatzea gatik eta gauza guzien gaintetik eternalki adoratzea gatik.

Asteleheneko othoitzza

Iainko launa, baldin zure iustizia zure zeroreen miserikordiak balako ezpaleza, segur da gaztigu garatza ene gainean egin zenezakela, ezen zure pietateaz berzek ezin paira ditzaken bezalako faltak egin ditut, eta guztiarekin ere nik nerorrek neure baithan kalteak eta faltak egina gatik nahi nude kalte eta falta hek oinhazerik ezpalidate, horra ene erhakeria. Ordea, o zuzenaren iabea, atrazoin da nik neure gaixtakeriak gatik zenbeit pena pairatzea, arrazoin da zuk ni iustiziatzea, eta arrazoin da zuk zeure borondatea konplitzea. Beraz nola ordenatu baituzu, hala konpli ezazu, eta ene atsekabeaz zure plazera egiten bada atsekabe hura ere plazerzat errezi-bituko dut. Iaina, esperienziak irakhasten diraku eta ukhatzeko trebanziarik ezin har dezazuegu,

badakigu hil behar garela hil behar ezpagine bezala bizia gatik zure abisuaren kontra: ezen abisatzen gaitutzu gutien uste dugunean heriotzea ethorriko zaikula halakotz prestik eta iratzarririk egon gaiteala. Beraz ene arima, erna zaitea, alxa zaitea eta prepara hainitzi ongaitz egin dioen bezala zuri ere uste gabeko heriotzeak gaitz eztakizun! gero eztate ordua, orai da ordua, gero eztate penitenziarik, orai da penitentzia. Beraz ene arima lainkoarekin adiskidetzea gatik penitentzia egin behar dugunaz geroz dagigun penitentzia geroko begira egon gabe, ezen hainitz bere kaltetan geroko begira egoiteak traditu du. Dagigun guk geure aldetik egiteko dena eta segur dugu salbamendua, zeren-eta lainkoak bere aldetik promes baiteraku guzion salbamendua desideratzen duela; lainko egiatia da gure lainkoa lainko iustua da eta leiala. Othoi bada, laun handia, bethiere fabora nazazu, othoi konsola nazazu, eta aste lehenak haste lehena bezala erran nahi duenaz geroz biz egungo eguna haste ona eta zure ohoratzeko eguna. Biz hala.

Aste arteko othoitzza

Gizonak duen kondizinerik ederrena du lainkoa laudatzea gatik aste artea asti arte agitea, erran nahi dut bere denbora parte bat ungi lainkoaren laudorioetan emaita: zeren-eta lainkoaren benediziñoa ezten lekhuari nihoren egin ahalak ezpaititezke suma, batzutan, lainkoak gaixtoei onak emana gatik, zeren eta on hek emaiten baiterauzte bere obra onen pagamendu bezala berze munduan ez gozatzea gatik. Segur, launa, badakit behar bezalako debozinorekin etzaitudala zerbitzatzen eta zurei zeure eskerrak emaita gatik asti harze guti egiten dudala: ordea, O launa, etzaitela ene kontra hauzitan sar, dagigun biok abenitkoa hura izanen da ene faboretan. launa lehenik aithorzen dut hobenduri handia naizela eta zuk ene kontra koleratzeko suiet baduzula, beraz zeure iustiziaren ereduz neure gaizkiak gatik kondena nazakezu? Aithorzen dut launa, baietz. Ordea bekhatorei bere bekhatuak barkhatzeagatik miserikordis famatuko zara eta zuk ene baithan miserikordia hau egin dezakezu,

halakotz othoitzez nagotzu, arren nik neure kontuak zure errendatu baino lehen zeure garazia sailduaz zuri agradatzen zaitzun bezalako presutasun bat eta iustutasun bat eman diazadatzun. launa, damu dut zure legen kontra ibilia, urriki dut zu ofensatua. O ene bihotza! zer erremedio? O ene lainko iugea! zer erremedio? Nahi nauzu berehala punitu? Merezi dut. Nahi derautazu barkhatu, eztut merezi. Beraz nola izanen da gure bion artean? Dakidala eta eztakiala maiz ofensatu zaitut; ingratasun handia da zuk niri ungi egitea gatik nik zuri gaizki egitea; erhakeria zinezkoa da bere nabusiari eta lainkoari kontratzea; harrimendu handia da kontinuatzea. launa barkha diazadazu; badakit ene faltak nik orai erran ahal nitzakeien baino gehiagoak direla, ordea zure miseriak konparazino gabe handiagoa da eta behar da, ezperez guk bekhatoreek ondoren gaixtoa maiz izanen genduke. O pietatearen aita naturala, edo pietatea bera! Barkha diazadazu eta eman diazadazu zeure garazia. Biz hala.

Aste azkeneko othoitzza

Arima batek egin ahal dezakeien traidorekeriarik handiena da bere etsai mortala eta deabrua zerbitzatzea gatik bere adiskide eternala eta lainkoa kitzatzea. Arima bati ethor ahal daki-dikeon kalterik bortitzena eta sentikorrena da lainkoaren desgazian bere bekhatuak gatik hilzea, eta bizkitartean ene arima nola gobernatzen gara? badakizu herioa fedakabea dela: badakizu zeure burua enganatzera uzten baduzu, enganatuko zaituela; badakizu gaixtaginei hala gertatzen zaiela eta maldizinoekin ifernuak behera iausten direla. A! zer laidoa? zer ondikoa? zer dolorea ta zer marraska? Hauk guzior buruan ene arima, guk guzior buruan nola gobernatzen gara? Berzeak baithan zenzatzen gara? Hobetzen gara? A! enganioa, aitzitik nork munduko maleziarik gehieni iakinen hari gara. Non da lainkoaren errespetua? Non da lainkoa ganako amorioa, giristino laguna ganako karitatea? Non da iudizioaren beldurkundera, orduko maldizinoaren ikhara eta sekulako apartatze hilgarri haren ohoitzapena? Ahanzten zaitugu,

launa, ordea zure gure ahanzte ahanziko othe zaitzu? Nor nongo baita hango hitzkunza du, eta guk nongo hitzkunza dugu nongoa garen iakiteko? Lurreko hitzkunza pobrea. Ea bada, gure arimen salbatzaillea, zeruko hitzkunza bat eman ezazu gure ahoan eta bihotzean hitzkunza hunez zeruko ume seiñalatzea gatik eta zure maiestate saindua laudorio eternalez ohoratzea gatik. Ezen zer probetxu dugu ezin nonta bezanbat on eta ontasun suk guri geure bizia emanaz, baldin indizioko puntu hartan kontu onik emaiten ezpadugu? launa naizen pobre, kaltiar, estorbutsu, penatua, gitzetsia, eta tribulatua, baldin gero zure gogaragoko zerbitzurik neke hautan egiten baderautzut. Finean ene bizi guztia den zure ohoretan neure arimaren salbamendutan. Biz hala.

Orzeguneko othoitza

O Iainko urrikalmendutsua eta amoriotsur, zordun handi gara zuregana eta nork pagatuko zaitu? Obligazino handia da gu Sathanaren bot-

heretik libratzeagatik bere bizia emaita. Fabore handi bat, espantagarriki handia da gure natura-leza nothatua garbitzeagatik lainkoak bere odol saindua emaita. O gure Aita Adamen bekhatua, nonbait heriotzeari guregana bothere handia eman ioen gu handik edoiteagatik lainkoak bere bizia eman behar ukhetu duenaz geroz! Beraz arrazionekin orzeguna deithuko dugu sorzeguna. Beraz arrazoinekin orzeguna bezalako egunean hunelako kortesien orhoitzapenetan geure gisako esker ta obligazino hauken emailleari emaiten diotzagu. Beraz arrazoinekin zeruak eta lurrak hunelako ontasunak gatik lainkoa guziz ona laudatzen dute. Ea bada Maiestateak benedikata eta landa dezagun. Tronuak, launtasunak eta Berthuteak benedikata eta lauda dezagun. Serafinoak, Aingeruak eta Patriarkak benedikata eta lauda dezagun, Profetak, Doktorak eta parabisuko berze saindu guziak benedikata dezagun, lauda dezagun eta adora dezagun lainko eterna-la bere ontasun infinitua gatik eta guri guk merezi gabrik egin derazkun Parabisuko bideak gatik.

O Mariaren semea, eta o lainkoaren semea, zuk zeure Aita eternalarekin ongundeak egin derazkuzu: zuk hunelako sendagaillak obratu dituzu: ordea guziak gatik orainko hutskor gara eta zu zeure handitasunean ofensatzen zaitugu begin baino maizago, nahiz behingoa ere sobera maiz lizaten. Halakotz bada launa garazia eskatze natzaitzu, eta othoi barkha diazadazu, launa, barkha diazadazu zeure Pasione Sainduagatik, zeure karitate handiagatik, eta zeure balio lainkozkoagatik; badaidizu, launa, zeure miserikordiaren faboretan, badaidizu bekhatore hunen salbamendutan. Biz othoi egina.

Orzillareko othoitza

Mundu hunetan garen guziok ungi pontu guziak konsidera baditzagu edirenen dugu linkoaren semeak gu salbatzea gatik pairatu zituen penen parerik nihork nihon entuela pairatzen. Pasione terriblea pairatu du gure launak, ala baina gure bihotzak ez mederatzen, gure arimak

ez transitzen, gure konzienziak ez onzen. O harrimendua! O eskantatzea! Nolatan gure bit-haretzen aiz? O Satanaren ofizioa! Zergatik gure baithan manatzen duk? O lainko guziz ona, zuk zeure zainetarik xirripa batzuetarik bezala zeure odola gure salbamendutan isuri duzu, zeure larrua pikatu deratzute eta martiriatu zaituzte. Zuk eskarnioak eta maldezinoak pairatu ditutzu. Zuk azote kolpeak eta ukhabilakoak sentitu ditutzu. Zuk aranze puntak eta arno gogorraren khe-rua pairatu ditutzu. Zuk gurutzean bizia bi gaiz-taginen erdian eman duzu. Hauk guziok eta gehiago zuk gure gatik pairatua gatik guk zure zer ezagutza deratzugu? Erran behar da ingrat handiak garela zu gure kontra arrankuratzen zarenaz geroz. Iauna, badakit zuk gure beharrik eztuzula, berriz ordea badakit gu geurok gabe zu gabe baino hobeki garatekela. Halakotz neure bihotz guztiaz othoitzez nagotzu arren arbola gurutzeko fruituen berthutez zeurekin bat egin nazazun, zeurekin eduki nazazun eta zeurekin bethiere konserba nazazun. Biz hala.

Larunbateko othoitzza

launa, zure maiestatearen aitzinean nik bekhatore handiorrek kofesatzen dut hainitz maneraz ofensatu zaitudala, baina bekhatore handia naizela segurki iakinagatik segurkiago iakiteko dut zure miserikordia infinituki handiagoa dela, eta penitentei barkhatzen ardura usatua zarela eta niri ere ungi preparatuarik agerzen banatzai zu, barkhatuko derautazula: ezen zu guzia ona zara eta ni guzia gaixtoa; zu guzia finik gabea eta ni guzia finduna; zu guzia bothereduna eta ni guzia flakoa; zu guzia miserikordiazkoa eta halatan bekhatorei barkatzaillea, ordea, gure lainko salbatzaillea, hau guzia ezta zu zarena zaren bezala ezagutzea, baina zuk gu ezagutzen gaitutzu garenok garen bezala; hau ezta zuk zeure burua ezagutzen duzun bezala ezagutzea, baina zuk gu ezagutzen gaitutzu ezagutzeko garen guzia; hau gatik midiku iakinsunak bezala erre-medioak ordena diatzadatzu; Aita onak bezala gaztiga nazazu; laun axolduriak bezala aiuta nazazu eta kapitain sendoenak , bezala defenda

nazazu. Zu zaitut partida eta zu othoizten zaitut; zu zaitut kontra eta zu alde harzen zaitut; zu zara kolera eta zu zutzaz zerorrez balakatu nahi zaitut; badakit, launa, munduan gizonak hunela partidatuak diren orduan pazegatu behar bidean errabiatzenago direla; baina, launa, zuk bere falta ezaguturik falta eginaz urrikitan heldu zaitzunari bere hala barkhatzen diozu. Kondizinoaren ona! Bada, launa, niri neurerik ezpa neuretzatik borondatea eman deratazu eta borondatea dela moian zure ganik apartatzen naiz eta borondatea dela moian zure gana ere ethorri behar naiz. Orai ezagutzen dut neure baithan bizitzea baino zure baithan bizitzea hobeago dudala, neure baithan bizitzen naizenean xoil gaizki naiz eta ezin areago, zure baithan bizitzean ungi naiz eta ez naiz deusen ere beldur: beraz ene borondatea har diazadazu eta ni ere zurea izanen naiz, eta ala zu enekin edo ni zurekin guzia orobat zait, baldin ene arimaren maittea, biok nolazpait elkharrekin bagara. Zato bada zeure garaziaz ene gana nik zure gan ethorzen eztakidana geroztik, zato eta dadukagun bethi elkhar hemen eta hor. Biz hala.

Besta den guziaz egiteko othoitzza

Gure lainko botherezkoak bere bizi guzian irakhatsi deraku bizitzeko manera eta bidea halaber fin onik eginen dutenek haren trazak begiratzen dituzte, testigu da egungo bestan, zeinek zeren lainkoa obeditu duen, izatu baitu lainkoa baithan fabore eta garazia. O N. eliza ama sinduak manatzen gaituen bezala ohoratzten zaitut, lehenbizirik zure horko loriaz dudan kontentamendua deklaratzeko gatik eta hurrenekorik aiuta nazazula othoiztea gatik. lainkoaren dotrina begiratzea gatik, fede saindua etsaien artean laudatzea gatik eta zeruko loria irabaztea gatik pairatu duzu hainitz eskarnio, dolore eta kontrariozko gauza: baina orai ezta hunela penen orhoitzapenik hauk guziak ahanzi dira horko bozkarioa dela kausa. Ordea gu beharrak gkara, eta bidean gaude horra heldu nahiak, halakotz egungo besta hunen orhoitzapen sainduaz errekeritzen dugu zeruko gorthea arren

besta hunen begiratzea balia dakigun geure arimen konsolamendutan. Ea bada zeruko habitantak eta burgesak, prinzek gorthean bezala esku duzenak enplega zaitezte hor gure salbamendutan. Biz hala.

Bere patroin dutenek Iondone Martiari othoitzza

Iainkoaren ardien arzain handia, iondone Martia, parabisuko ume maitea, gure patroin leiala eta arthatsua! Bethi kreaturak, nahiz diren gezietako sailduenak, lurrean bizi direino fabore behar dira, keta guziz ni bekharotrtako handiena, flakoa eta on beharra neure othoitzekin zure othoitzetara presentatzen naiz, agian pietatez errezibituko nauzula: ezen, o saildu debota, zu handitu zara zeure berthuteak gatik, eta ni tipitua nago neure hobenak gatik, zu laudatua zeure bizitze prestua gatik, ni arbuiatua neure banitateak gatik, zu ohoratu zeure exenplu onak gatik, ni menespreziatua neure egitate desonestak gatik, zu parabisuratua zeure saildutasuna

gatik eta ni ondikozkotua, neure gaixtatasuna
gatik, eta hala badakit niri nerure gaixtakeriak
menesprezio baderaut zure zeure ontasunak
lainkoaren eta gizonen aitzinean prezio deratzu-
la. Hargatik othoitzez nagotzu, arren zuk lainkoa
baithan ditutzun kreditei urrikal nakien, orai
arbuiatzeko ditudan suietak laudatzeko suiet
errendatzea gatik. Hunetarakotz zeruko adimen-
du bat, memoria bat eta borondate bat erregela-
tuki ene gana ditzatzu: izan diatzadatzu zeruko
egintari sailduak nola baitira fedea, esperanza
eta karitatea; zeruaz ni ere hauken berthutez
prezatzea gatik. Karitateak irakhatsiko deraut
pazienzia saildu bat, behar orduan neure salba-
mendutan zerbitzatzea gatik: ezen badakusat
lainkoaren zerbitzaririk handienak hemen paira-
turik zerua irabazi dutela, eta nik zergatik eztut
pairatuko neure gisa okhasinoak agerzen zaiztan
orduan? Baina zuk, o ene lainko launja kuraia-
tzen duzu ene bihotza pairatzeko bideak emai-
tean; zeren eta baitakusat iondone Estebe lapi-
tua, iondone Laurendi kaskaldua, loaniz olio ira-
kituan egosia, san Hipolito laur zaldiz katratua
sankta Agnes hamairur urthetan sura kondena-

tua; santa Katalina nabal zorrotzez arroda bat betherik sakallaitzera prestatua, iondone Petri urkhabean ezarria, lob zornez eta sarnez bethea, finean parabisuko burges eginik dauden guziek irakhasen derautate pairatzetik dela salbatzeko bidea, konbatitu behar dela eta gero pagamendu gozoa izaitea gatik behin biktoria irabazi behar dela. O launa, eman diazadazu fedea, baina ezti-dazula obrarik gabe, ezen hola lizateke. Eman diazadazu karitate bat, bina zeure kontentamendukoa, ezpere ni naiz kreatura dohakabe bat.

O Iondone Martia handia, zuk hirur berthute prinzipal hauk pratikatu ditutzu nobleki eta hala pagamendutan ezagutzen zaitzu guzia: baina ni nola hutskor eta bekhatore handia baitnaiz, izitua nago neure aldetik, eta boztua zu zeure aldetik helduko zaiztala.

Gomendatzen deratzut bada neure burua ahalik debotkiena, gomendatzen deratzut eta arren pietatezki enzun nazazu. Gomendatzen deratzut zeure patroiniako herria, neure adiskideak ungi egileak biziak eta hilak. Hauk guziok eta noren gana gehiago zordun baitnaiz hek guziak gomendatzen derauzkitzut gomendatze-

ko diren forman hek eta nik zure faboreaz arima-ko salbamendua erraixtea gatik, diot, lainkoaren plazereko berthutetan segitzea gatik. Biz hala.

Kofesioko miraila

1. Errezibitu aitzinean hurur puntu egiteko dira; lehenbizirik zeure konzienzia examina ezazu eta kokfesio oso batez zeure arima guzia xahu ezazu.

2. Kofesiotik lekhora lekhu sekeretu batean iar zaitea eta han zeure espiritua alxaturik mira eta pensa ezazu bekhatu mortalik kofesatu gabe ahanzi zaitzun: gero errezibitu behar duzun lau-naren kontentamenduko amorio bat garbia eta perfeta Espiritu sainduari eska zakitza.

3. Zeure konzienzia barurez, othoitzez eta hunelako debozino onez aberats eta eder ezazu: hauk hunela eginik presenta zaitea lainkoaren mahainera humiltasun guziarekin.

1. Halaber errezibitu dukezun ondoan hirur puntu dira: lehenbizirik komoditateak hala emai-

ten baderatzu bazter batetara berezirik lainkoari eskerrak eman diatzotzu debotki.

2. Errezibitu dukezun egun hartan guzian bere gainki eta berzetarik seiñalatukiago lainkoa zarbitza ezazu; hunetarakoktz jendetarik aparta zaitea, eta lainkoari hurbil zakitza; alferreriak eta banaloriak utz itzatzu eta lainkoaren zerbitzuan enplega zaitea.

3. Gero gehiago bekhatu egitetik begira zaitza; zeren eta berriz bekhatutara bihurzekotz hobeago baita millatan ere errezibitu gabe egoitea; arrazina zergatik hoberago den da, zeren eta nola digneki errezibitzen baitu, hala indigne ki errezibitzen duenak bere damnazinotan errezibitzen baitu.

Pensamenduen gainean akusatzea

1. Pensamenduzko bekhatuak dira kofesatzeko gaitzenak, baina erraixtea gatik nota beitea laur gauza. Edo berehala pensamendu gaixto hek khenzen ditugu geure gogoetarik, eta hune-

la khenzea da meritua. 2. Edo denbora apur bat gogoan darabilzagu, etga hunela erabilzea bekhatu benial da, baldin behinzat konsentimendu osoa pensamendu hartan eman ezpadezagu, eta konsentimendu hau berehala eman daiteke. 3. Edo obratu behar ditugula deliberatzen dugu eta hunelako deliberatzea da bekhatu mortala, eta obratzen balu bezalako suertetakoa. 4. Edo pensamendu hetan plazer solamente harzea gatik gogoan darabilzagu, eta plazer harzea mortal da bekhatu egiteko gogorik ez izanagatik ere: zeren-eta bekhatu egiteko peril handian bere burua emaita.

Egitea bekhatu lizatekeien gauza baten gainean pensamendu gaixtoak, berak berariaz egitea da bekhatu mortal, baldin behinzat bere oldez egin gabe utzi ezpaitu, erran nahi da, eta gerokotz ere nota bedi, baldin trabarik izan ezpalu gogora zaizkan pensamendu gaixto hek obratu nahi bazituen, erran behar da zer pensu eta zenbat diren: atseginik hartu ezpaduzu gogoeta hetan, ethorria gatik eta egina gatik, bekhatu benial dira.

Premiarik gabe nihori baiak eta iuiamendu arimak erauztea da bekhatu mortal gauza baliosaren gainean baldin bada unelako erauzketa, ezpere benial da, diot gauza baliosaren gainean eztenean.

Gogan-behar gaixtoak sinhesten direnean mortal dira, sinhesten eztirenean benial. Fedezko gauzez dudatzea nahi gaberik, benial, deliberaturu mortal.

Ametsei, eskuniuratzei, eta berze sorginkeriei sinheste emaite da bekhatu mortal, baina kofesa ezazu gauza hastetik eta den den bezala.

Iainkoak zerbaitetan eztuela ungi egin deliberaturu ezpa berak bere nahiz pensatzea da mortal, gogora ethorria gatik gogoaren borxa bezala halko gogoetak egitea eta gogorik ez emaitea da benial.

Berzeren onaz damu harzea eta gaitzaz plazer harzea berak bere nahiz eta gauza baliosean mortal, gauza deus gutian eta bere nahi gabe benial.

Herioa edo berze gaitzak nihork nihori edo bere buruari zinetan desiratzea da mortal, ixendoz desiratzea benial.

Nihork nihor bekhatu mortal bat egin baleza nahiz berariaz akullatzea da mortal, ekta nahiz eztezan berzeak egin zuk eragin nahi zinioen bekhatu mortala, guziak gatik eragin nahi zioen hark zeren bere borondatzen zetuen faltatu, bekhatu egiten du.

Botu prometatua egin ahal dezakeiela ez konplitzea bekhatu mortal da, baldin botua gauza merezizkoa gatik egina bada: gauza tipiz gatik egina bada benial da ez konplitzea. Hala Abe Maria bat erraitera botutuz geroz ez erraitea benial da.

Hitzen eta minzoen gainean akusatzea

Hitz ergelak eta ezgauzaz baigauzazkoak benial dira.

Gezurak zinik ezpa arnegurik gabe erranak edo nihori daiñurik ekharten eztiotenak, benial dira: baina iuraturik gezurak erraitea trufaz edo dostetan minzo baliz ere bethi mortal da.

Gauza dudazkoaren gainean iakin gabe, egia dela burfidiatzea, edo egin gogo eztuen gauza bat eginen duela arnegatzea da mortal, eta bekhatu mortal arnegatua konplizea dira bi bekhatu mortal.

Obra on bat egiteko arnegua konpli ahal badeza ez konplitzea da mortal, ezin konpli ahal badeza, da benial.

Nihori gezurraren gainean, edo gezurra dela uste duen gauzaren gainan arnegaraztea da bekhatu mortal.

Eginen duela, segur eztn gauza, eza ezin egin dezakeiela uste duena duda hunekin eginen duela arnegatzea da bekhatu mortal.

Mengoa gabe gezurraren gainean zin egitea da mortal: egiaren gainean, benial.

Ene fedea, ene fedez, ene egia eta hunelakoak errana gatik eztira iuramentu, baldin lainkoaren fedea edo lainkoaren egia hala errailleak aditzen ezpadu edo iuramentutzat ezpadadutza.

Gezurraren gainean erraitea lainkoa lagun eztagidala, edo horra zerua, eguna, ene arima, gurutzea, ogia eta hunelakoak bekhatu mortal dira.

Konplitzeko gogarekin halako edo halako akustze eginen duela arnegatzea, eta gero hobeago eritzirik egin gabe utztea, ez akusatze hura ezta bekhatu, halaber amak bere haurra zehatuko duela zin eginez geroz zehatu gabe utzte hura ezta bekhatu: baina haurrak zenzatu bahar direnean zenzatzera burasoak tenitu dira, klar da.

Berenez bekhatu ezten gauza edo bekhatura ere okasino ezten gauza aitzitik solamente indiferenta, nola baitira pilotan eztela iokatuko iuratztea, halako galza suerte ez ituela ekharriko, halako konpainiarekin eztuela segituko, halako, etxetara, karrikatara edo lekhotara eztela ioanen iuratztea ezta bekhatu: ordea lekhu hetan, konpainia hetan eta berze tratuetan bekhatu mortal egiteko okasinorik baldin bada, bere iuramentua hautsirik ioitea bekhatu mortal da, baina bekhatu egiteko sуетik eztenean badohake libreki.

Presuna hilak edo biziak gaitzetstea, madarikatzea, maldizinatzea, edo bere buruari gaitz desiratzea kolera dela kausa, gaitzik ethor ezle-

din nahi badu da benial, gogoz bezala bihotzez desiratzen badu da mortal.

Deabrua bere lagunzat, bere eramailletzat edo berze finetakotz ixendoz deitzea da benial; zinez deitzea da mortal. Halaber demonioari ohore ekharzea edo arima emaita da mortal.

Iainkoa, Birjina eta sainduak arnegua edo niholazko hitz gaixtoz aiphatzea da mortal, eta errazu zina eta iuramentua. Hitzez edo berzela nihork nihori narritan bekhatu eragitea da bekhatu egitea, baldin berariaz narritan badagoka berzeari bekhatu eragitea gatik ezpa berzenez segur bada bekhatu eraginen dioela hala egoiteaz.

Exenplu gaiztoa emaita, fama gaiztoa piztea, skandala ereitea eta bekhaturako bidea duten gauzak iakiara irakastea da mortal, baina berenez bekhaturik ezpadute dira benial.

Nihor niholako bekhatu mortalez laudatzea edo nihor bekhatu mortal egitera zagitzea da mortal.

Eguna, ura, haizea, eta hunelako kreaturak madarikatzea, Iainkoa huken egilea gaitz erraite- neztela sinhesten baduzu, halaber besta eguna

bestakomisterioa aditzen ezteela madarikatzea ezta bekhatu benial baizen.

Nihor iniuriatzea, eskarniatzea, ihakinzatzea edo gauza ansiatzkoz berzela desohoratzea da mortal, eta hala erran behar da nolako desohorea den, gero kasuzko gauzaren gainean barkhazino eskaratzea gatik ezen tenitu da, baina suiet tipia gatik ez ezen benial da. Nabusiak bere muthila publikoki erreprenda dezake desohoratu gabe gaztigatzea gatik. Halaber burladerian batak berzea zenbait aldiz eskarnia dezake: ordea trufarik harzen estakienarekin ez iharduki, zeren-eta halakoari bekhatu eragiteaz atsegin harzen baduzu, hark bekhatu egiten duen bezanbatetan zuk ere egiten baituzu.

Falta gabeak desfamatzea, hobenduriak ere ohorean barrena ukitzea, opione gaixtoan ezartea eta desondratzea da mortal. Boz exenplu. Nihor ohoin dela, putaner dela edo berze gisako bekhattu mortal egile dela publikatzea da mortal; gauza gutia gatik benial.

Egiazko gauzak izanagatik eztakitzenetenei gauza hek egilea desohoratzea gatik edo desfamatzea gatik erraitea da mortal.

Dakitenetan nihork nihori nihoren baia eta tatxa erranagatik egia segur hala dakienean ezta bekhatu. Erranagatik hara hura puta da eta hala izan kauturo, eta erraiten derauezunek ere iakin, ezta bekhatu: baina gezurraren gainean hala nihor desfamatzea mortal da.

Nik herra gatik, inbidia gatik, gaizki nihor famatzen dela enzutean plazer hartzea da bekhatu mortal egitea.

Kaltea jendetan ager baledi nahiz bruita eta gaitzerizko ereitea da mortal.

Bere bekhatu eginez bantatzea da mortal eta lainkoari desplazer zaika.

Egin gabeko bekhatu mortalez, ala hark egin plazer harzea gatik edo nihor desohoratzea gatik bantatzea da benial.

Besta egunean mezara faltatzea edo trabu handirik gabe mezik parte bat ez enzutea da bekhatu mortal.

Meza ez enzutera deliberatzea eta nihor enzutetik gelditzea, alabaina faltatzeko eta faltarazteko okasino handirik ere ez izan, da mortal.

Meza erraiten den denboran gogoa maiz barzetan edukitzea edo denbora luzean zarzo handian egoitea da mortal.

Obren gainean akusatzea

Barur egunean mengoa gabeko gauza debekatu iatea da mortal.

Hogoi eta bat urthetarik harat barur ahal dai-tekeiela ez barurzea da mortal. Ordea ungi egitea gatik gazteago dela ere nihork egin ahal dadinean barurzeko du; bataz barurzea berenez guza ona baita eta berzeaz gerokotz ere goizdarnik plegu ona harzeak hainitz balio baitu.

Besta egunean premia hondi gabe denbora hainitzez travaillatzea da mortal.

Etxekoen erranak ez sinhestea, oihuz hekibenzea eta bera ere gauza xarra gatik oihuz egoitea da benial. Mengoazkoa denean konfesa beza.

Eskatima izaitea, zehatzea, ukhabilakoak emeitea, kolpeka haritzea, garrote kolpez nihor bethetzea, harriak nihori min egiteko gogoz aur-

tikitzea da mortal; gogo hau gabe eta gauza xarrean da benial.

Nihor nihori nardatzea edo gaitzetstea kalteak desiraturik da mortal, gaitzik desiratu gabe eta gauza xarra gatik benial.

Nihoren sekeretuak damu egitea gatik edo kaltea handik kausatzen zaikala salhatzea da mortal, guziz ere nihori ez erraiteko zin egin bazuen.

Hazkak, musuak, promesak, fin gaixtotako hitzak edo gogo gaixtozko obrak mortal dira borondate gaixtoa dela kausa; beraz o zenbat bekhatu mortal gazte erhoek egiten duten! Hitz guziak, promes guziak eta hazka guziak bat banaka mortal dira desirapen gaixtoarekin egiten direnean.

Borondate gaixtorik gabe, perilik gabe edo skandalo gabe hitz desonestak erraitea da benial. Ordea maleziarekin, perilekin edo skandalorekin erraite da mortal.

Bekhatu mortal egitera desiratze guziak desiratzea baizen obratzea ez eginagatik nihor borondatez emana denean mortal dira.

Bekhatu mortalean hirur gauza dira, lehenik plazer harzea, hurrenekorik egitera deliberatzea, azkenean obratzea, eta obratzea da guzietako handiena; halakotz obratzea erraitea asko da plazer harzea eta deliberatzea aditzea gatik.

Haragizko mugidak izaitea eta gogotik hetan plazer harzea da mortal, ez ordea gogoaren borxa mugida hek heldu zaizkunean, ez ordea desplazer deraukutenean, ez ordea khenzera enseiatzen garenean; baina kofesatzea hobe da, zeren-eta delientki khendu behar baitira.

Mugida hauk dituela gizonak emaztetan eta emazteak gizonetan pensatzea da bekhatu eta nolakoa baita intenzionea halakoa da bekhatua ere. Kofesatzean ezta erran behar presuna ez etxea, baizek edo ezkondua da edo birjina da edo taillu hartakoa da.

Gizon batek gaizki egitez gatik nihork maita balitza desiratzea da mortal: erran nahi da gizonak emaztetarik halako amorio desonesta desirazea, eta emazteak gizonetarik.

Borondate gaixtoarekin amoranzian ibilzea, nihori behatzea, gortheatzea, trabuak gatik bai-

zen, bere oldez ez hutsik egitea da mortal. Ordea intenzino gaiztorik gabe behatzea ezta bekhatu.

Parte iasaiteko borondate gaixtoa gatik berreginzea, ederzea, beztitzea, irakurzea, eta bere gogoz hunelako enseiu debekuzkoak egitea da mortal.

Amets desonesta gerthatzera desiratzea da mortal, eta erran behar da zer amets den.

Bere haragiari plazer emaita gatik bestiak nihork erabilzea, edo hekin bekhatu egiteko irritsean, edo berak bere buruarekin haragia kontentatzea gatik eder eztiren akzitoneak egitea da mortal.

Berzeren onak ebatstea eta gauza bliosean hainitz enganatzea da mortal, eta enganioz sobera eramana eta balioaz gehiagokoa errendatu behar zaika: ezen errendatzera obligatu da.

Bere etxean etxekoek nahi eztuten gauza, nabarbena eta baliosa eta nabarbena ezpada benial. Hainitz ebatstekoa gogoa duela guti ebats-tea mortal, baita gogo hura bera ere.

Berzeren ona bidegabeki desiratzea eta nihork nihori kaltea zinez egitea, da mortal. Ez

ordea nihori kalterik egin gabe berzeak bezala berak ere onak nahia.

Ebatsia dela dakizun gauza erostea da mortal, eta bere iabeari, baldin badakizu nor den edo egerzen bazaitzu errendatzera tenitu zara: mezetan edo berze obra onetan ere ezta enplegatu behar, lekhat iaberik nor duen iakin gabean baizen. Umek bere legitimoa ezpa bere etxetarikako parteia izan ezpadute adinetara heldu faltaz edo botheririk izan gabez, ezin ioka dezakete, eta hala hei irabazi diruaz gauza bera diotsut, eta zure gogoz kaltek hartu duen kontrarioaz ere halaber da, diot zuk nihoren kontra nihori gaitz nahiz allegatu duzun falso testimonioaz.

Gauza sakraturik edo lekhu sakratutik ebats-tea da bekhatu handia.

Urgullutzea, bantatzea, bere burua berzeak baino gehiago estimatzea, gorrotuz edo gogo gaiztoz nihor arbuiatzea da mortal.

Bere buruaz prezatzea, laudatzea, alxatzea, lorifikatzea, lainkori dagokan ohorea ukitzen ezpada edo hargatik nihori gaitzik heldu ezpazai-ka, da benial; orobat da litstirtasuneko gauzez. Koleraz, sabeldarraioaz, abariziaz, nagitasuanaz

eta hunelakoez gauza bera diotsut. Hau da kofesioko miraila eta nihork gutik bere konzienzia deskargatzen duen puntuak. Baina kofesioaz osoki tratatzeko ezta hemen orai lekhua eta ez ene borondatea biz beraz hau asko.

Kofesa aitzineko othoitza

Munduaren salbatzaillea, Iesu Kristo launa, zeruko eta lurreko erregea! neure bihotzean dolore batek oinhazerik eta narriorik baizen ez tarot emaiten, ene gogoak pena handia du; zuk niri kortesia handiak egin derauztatzu, eta nik zurei ezagutzarik ezterautzut eman. Egia da, o launa ene ingratasuna zure maiestatea gana handia dela eta damu dut, baina guziarekin ere zeure pietatea gatik arzain onak bezala ni ardi errebelatua zeure arthegian sar nazazu, midiku onak bezala zeure ordenanza sainduz senda nazazu: hunetarakotz banoha zuk ordenatu derautazun iugearen aitzinera eta deus berretu edo gutitu gabe dena den bezala, haren belhau-netan kofesatuko natzaitzu; eztut erranen zuk

eztakizunik, egia da, baina eginen dut zure borondatea, da iakiteko, neure hobena ezagutzeari, ethorkizunera emendatzea gatik eta zure garazian parte izaiteagatik: ordea, o lainko lorifikatzailea, bidezki eta zure maiestate handiari eder zaikan bezala lan guzia akhabatzea gatik eman diazadazu adimenduan argitasuna, memorian orhoitzetasuna, borondatean arteztasuna, eta ahoan egiazko kofesioa. Plazer baduzu, badaiduzu, plazer duzu bada eta eginen duzu zeure miseriakordia gatik eta absolbazinoaren berthutez emanen derautazu penitentei emaitera ohitu zaren garazia. Biz hala.

Kofesa aitzineko othoitza

O kreatzailea, beha diazadazu o salbatzailea, barkha diazadazu! o santifikatzailea, iustifika nazazu! o neure lainkoa, har nazazu! nigarretan urtzeko suieta da ene bekhatoregoa: izitzeko fortuna da ene bekhatutan erortea; ondiko handia da presuna bere faltaz hunelakatzea; beraz, o pietatearen Aita paregabea! ez natzaitzu urrikalzen? badakit eta aithorzen dut handiro ofen-

satu zaitudala; baina erremediatzea gatik nik ikhasi dudan erremedioa da zure gana ihes egitea eta zuri urrikimendurekin barkhazino eskatzea, infinituak finitua, kreatzailleak kreatura, guziz botheretsuak herbala, guziaz zuhurrak erhoa, guziz onak gaixtoa, eta guziz zu zarenak ni naizena beretzea gatik. Zure ontasuna infinitua da, ene falta finitua; zure ontasuna naturaz da, ene falta kostuma gaixtoen lehiaz; eta hala badut zeri esporza zure baithan: zeren-eta zu aldetzen zaiztan pontuan ene bihotzak izanen baitu bere deskansua. Egia da munduan ordinariori nik orai dudan arrankurak baino gutiagok deihadarka eta nigarretan gendeak ezarten dituela. Bai, o lainko guziz ona! lurreko onhasunak galzeak, haurrak hilzeak, aziendak heldekatzeak, eta berze fortunak nola baitira adiskideak etsaitzea, desafioak, eta berzeak, nihor sentimendutan emaiten dute; baina nik neure bekhatuak gatik galdu zaitut adiskide pare gabea, eta neure etsaik gaitzena gana erori naiz, kalte handia! zeruak hondatzea, aingeruak ezdeustea, lurra ilhaunzea, eta naturazko gauza guziak mudatzea ezta gaitz hauk bezanbat, eta bizkitar-

tean nola bizi gara? Nolako errespetua dugu? Nolako sentimendua dugu zu horrelako lainko baliosa galzeaz? Inkuntru dohakabea! Bentura madarikatua! Oren gaixtoa da launa ofensatzea. Beraz neke hautarik ilkitzea gatik neure borondatea emaiten deratzut. Ezen zu zara ene Aita, ene egilea, ene salbatzaillea, ene erregea, ene arzaina, eta ene ontasun guzia. Aita ezitia, barkha diazadazu. Egile miserikordiazkoa, errezibi nazazu. Salbatzaille amoriotsua, ezagut nazazu. Errege defensora, defenda nazazu. Arzain arthatsua, erregi nazazu eta ontasun guzia zeure ontasunaz gozatzeko garazia eman diazadazu. Sainduak allegeratuko dira, aingeruak bozkariatuko eta dohatsu guziak prezatuko; hunetarakotz kofesioa ordenatua da; zuk ordenatu duzu; beraz guk geure aldetik faltatzen ezpadugu, zurekin adiskidetzeko erremedio gerthua da kofesioa? horre ene esporzua, Aita lainkoa. Horra ene sinhestea seme lainkoa. Horra ene premiaren ase-lekhua, Espiritu saindua. Aita lainkoa eman diazadazu orhoitzapena, Aitaren semea, eman diazadazu ezagutza; Espiritu Saindua eman diazadazu urrikimendu degnea, eta

Trinitate Saindua eman diazadazu neure falta guziez barkhamendua, o ene arima, kuarria har ezazu! O ene bihotza, esporza zaitea! o ene borondatea, goberna zaitea! akusa zaitea konzienzia zeure falta guziez, kofesa zaitea eta emenda, zeure lainko iugearekin adiskidetzea gatik eta zeure salbamendua gatik. Biz hala.

Kofesa ondoan othoitza

lainko guziz ona eta guziz emea, presenteko kofesioan deusik ahanztera gerthatu bazait, ez naiz orhoit, ezta ene oldea, eta orhoitzen baninz harzaz ere penitentzia egitea gatik kofesatzeko borondatea badut; guztiarekin ere huts egite horretara nola bethi ohituak baitzara, eta ardura usanzak berak kurritzen baiteraku, hargatik errekeritzen zaitut, lainko launa, arren zeure garaziaz zeure gogara molda nazazun eta agradatzen zaitzun bezalako penitentzia oso bat eragin diazadazun, baina bitartean, maiestate handitako lainkoa eskerrak eta laudorioak derauzkitzut; zeren-eta eri ninzenik sendatu nauzun; lohi

ninzenik xahutu; galdu ninzenik ediren; hil ninzenik pitztu, eta ezninzenik naizendu. Orain dezagut arimak ahal dukeen faborerik handiena eta konsolamendurik aberatsena dela deabrauaren paperetarik libratzea, bekhatutik ilkitzea eta lainkoarekin adiskidetzea. O dohatsutasun hunen sorzaillea! ditutzun beraz laudorio eternalak, zeren hain gogotik lagundu zaiztan neure probetxu on hunen bilhatzen: ezen nerorrek huts badaidit, baina neror ez naiteke neure indar xoi-llez erremedia, zu zara, launa, zu zara ene bait-han on hauk guziak egiten ditutzun laboraria, eta zuri derauzkitzut eskerrak, zu zara nitzaz arthaduzun lainkoa, zu zara ene bilha zabilzan nabusi handia, eta ni naiz zuk plazer duzunaz geroz zuk ediren nazazun nahi dudana, hemen naizen artean bethi garaziaz eta hor sekulako egoitza benedikatuaz. Biz hala.

Errezibi aitzineko othoitza

O amorio edireilla! o karitati arteriotsua! o afizino espirituala! Ahamen batek gal nintzan

ahamen batek errepara nazan! Bianda batek eraman ziazadan, bianda batek bizia errenda diazadan. Haragi batek pozoa ninzan, haragi batek garbi nazan! Goazin bada biok, ene Iesus ezia, zure mahainera, non zu izanen baitzara bianda eta ni ialea, zu ene gorputzean sarhuko zara zeure gizatasunarekin eta nik zure iainkotasuna arimaren barrenean errezibituko dut, zuk neure bihotzaren hondarrean emanen derautazu musu, eta nik othoiztuko zaitut, arren har dezazun ene bihotza, eta eman diazadazun zeurea, biok bat egitea gatik: ezen hunelako batasunaren egitera zure garazia aitzindariak ernatu nau, eta zure garazia elkharrrekikoak besarka ditxetala konfortatzen nau eta zure garazia iustifikariak emaiten deraut inozenziaren lehenbiziko arropa eta bihurzen deraut karitatearen erraztuna. O prezio ezin estimatuzkoa! molde hunetan zu zeure garaziaz eta miserikordiaz enetzen zara; eta ni zurea naiz guzia; zeren zuk kreatu, zuk erosi, zuk konserbatu zuk izaitea eman, zuk garazia errepertitu baiterautazu eta egun batez parabisua errepertituko baiterautazu promes derautazun bezala. Biz hala.

lainkoaren amari errezibi aitzineko othoitzza

Deskortesia handia lizateke semea errazibitzean ama ez salutatzea edo bedere nolazpait iakinduri ez egitea. Falta handia lizateke gizonen ararteko leiala, nolakoa baita Ama Birjina andrea, ez salutatzea. Beraz hunelako hobenetarik apartatzea gatik eta nerue eginbideari ekhitea gatik salutatzen zaitut neure bihotzik hoberenaz semearen Ama, Aitaren alaba, Espiritu sainduaren esposa, eta zure seme launa Ostia saindu hunetan apezaren hitzen berthutez edireiten dena ohoratzeko abiltasuna eman diazadazu. Andrea zu bere ama naturala zaitu, eta gu gaitu bere anaiak, baldin haren borondatea konplitzen badugu. Andrea, laun hau zure sabelean egotu da, eta gure bulharretan pausatzen da. Andrea, zure haragi garbia haren haragi formatu da, ogiaren sustanzia haren gorputzten da, eta arnoa odol preziatu bilhakazen. Andrea, zu zara dohatsuena, lainkoaren hurrena eta berthuten

ama bethi benedikatua, ea bada ni ere zeure berthutetan partale egin nazazu. Ordea nork deklaratuko du, andrea, zuk nolako debozinorekin, humiltasunekin eta errespetarekin zeure tenplu sakratuan bederatzi ilhabetez zeure seme launa nik presenteon errezibitu gogo dudana eduki zenduen? Nork deklaratuko ditu Birjinaren borondate sailduak, hunen adimenduko argitetasunak, Espiritu sailduaren hautemaiteak, lainkoak hau gana eta hunek lainkoa gana egiten zituzten bisitak! Abantail hauken orhoitzapentetan izan diazadazu fede handi batekin, karitate bero batekin, humiltasun guzizko batekin, eta debozino digne batekin egin zure seme lesu Kristo launa errezibitzeko garazia. Orhoit zaitea, andrea, lesus baithan duzun arduraz eta hura zure semetzeaz zu ere gure ama egin zinela. Beraz hura gaizki guk errezibitzeaz zuk damu harzen duzu? Halakotz balia zakizkit, ama dohatsua, eta konsola nazazu laungoikoaren borondatea digneki konplitzera: zeren-eta perfetak perfetuki behar bailuke zerbitzatu. Hunetarakotz, andregoikoa, mahain saildu hunetara hurbilzen gara, edo behinzat haugatik ordenatua

da, eta baldin geure probetxutan hurbilzen ezpaga-
gara gurea da falta, falta ere handia. Ordea igno-
ranziak batzutan batzuei ahanzten darau zeregin
behar den : a! ni, neure ama konsolagarria,
munduko inorantena, atxakiosena eta kulpante-
na deliberatua nago zer ere zeruko partez irak-
hatsiko baitzait hura guzia gogotik egitera, lain-
koaren laudoriotan, saindu guzien kontentamen-
dutan, etsaien laidotan, desohoretan, ahalketan
eta konfusiotan; beraz, o neure andrea, Iesus
dignekei errezibitzeko dohaña izan diazadazu
hau guziak hunela ungi konplitzea gatik. Biz
hala.

Errezibi aitzineko othoitza

Gargoro denbora da amorioak garai dezan
debozinoaren hotztura, esperanzak beldurtasu-
na, barkhazinoak hobena, sinhesteak ene arima-
ko ilhauntasuna, kapitainak soldatua, dukeak
baroina, prinzeak aitonen semea, erregeak prin-
zea, eta zure ontasunak ene gaixtatasuna. Gar-
goro denbora da bekhatoreak ezagut eta aithor

dezan bere lainkoa, bere salbatzaillea, bere launa eta nabusia. Gargoro denbora da nik krea-tura pobreak aithor dezadan neure falta. Zeren eta zu baitzara salbamendua eta bizia. Beraz, o launa, ostia sainduan errezibituko zaitut, ez neure galzea gatik, baina salbatzea gatik: ez neure hondatzea gatik, baina itzurtea gatik: ez kondentua gerthatzea gatik baina onzea gatik eta danmazinotik atheratzea gatik. Egia da eta badakit gutiago lirelarik ere ene bekhatuak aski liratekeiela ene damnatzeko, baina urrikimen-duzko kofesio batez barkhamendua zuk eliza egiatian ordenatu bezala eman zait, eta peniten-zia bidezki egin dezadan orduan emanen derau-tazu kitanza. launa, enea da hobena, zurea da ni eskatzen natzaitzun garazia; enea flakeza, zurea indarra: enea gaizki guzia, zurea ungi guzia, eta hala zeure perfetasun infinituaz ene tatxak eta atxakiak prefetzea gatik, zuk duzu erremedio osoa. O launa, borondate onez errezibi nazazu, o launa zato ene gana: ezen zu zara lesu Kristo launa, ene anaia, ene kapitaina, ene esposa, ene bianda eta ene errekonpensa: zu zara ostia sakratu hunetan errealki zaudena, aingeruen

mirakullua, gizonen amorioa, deabruen izialdura, giristino fidel geien bizitzea, fidel eztirenen heriotzea, onen konsolamendua, gaixtoen gaiztigu zinezkoa, prestuak parabisuan harzen ditzuna eta debauxak ifernuan karzelatzen ditzuna. launa zuk plazer bazendu zeure burua gaztigu hutsez eta beldurkunder ez errespetarazi munduko prinzek egiten duten bezala, baduzu bothere; baina eztuzu amorio borxatuturik nahi, ez ohore beldurkunderkorik, ez zerbitzu disimulaturik eta aithor gezurrezkorik; launa, zuk eskatzen duzuna da borondate ona, amorio egiazkoa, aithor bihotzetikakoa eta ohore perfeta. launa, berze alde gizonen bere asetzailleak eta bgere sendetzailleak maite dituzte gberere gorputzetako plazera gatik, baina arimako bonaxera gatik eta sendatzea gatik harrituak eta ingratak dira, ansikabe eta laxo. I itsumendua! o pietatea! launa, hil behar naiz, hil behar naiz eta ezin itzur naiteke; kontu eman behar dut, eta iuiatu behar nauzu; beraz nik adimendurik baldin banu neure parabisua gatik bedere maitatu behar zinituket, sinhetsi eta zerbitzatu. Ea bada, neure lainko ona, zure mahain sainduan gure bion arteko

bakea notifika bedi, gendek exenplu harzea gatik, gosea asetzea gatik eria sendatzea gatik eta ni salbatzea gatik. O denbora zuk egundainotik hautatua! o egun ordenatua! o goiz preparatua! io inkuntru dohatsua! zato, zato, lainko bot- here guzia duzuna, zato ene arimaren barrean ostatu harzera; zato aberatsa pobrea gana; sendoa herbala gana; midikua, eria gana; karitatea, horma bezalakoa gana, zuk ni zeure ethorzeaz zeror bezalakatzea gatik. Biz hala.

Errezibi ondoko othoitzza

Iesu Kristo launa, zu arima eta gorputza, iainkoatsuna eta gizontasuna ene gana zara eta niri eman zaizkit; aingeruak lekhuko dira, sainduak eta dohatsu guziak ere bai. Eskerrak behar zinituke, ala baina nihork emanen baitu, gai ere behar du. Beraz. o erregen erregea! zutzaz berzerik nor erxatuko dut? Zuk duzu behar bezalako moiana, eta gu ez ingrat hilzea gatik, arren zuk behar duzu gure eginbidea konplitu, zeren zu zaren bezain baioso eta handi zaren, eta

zere gu hunen gutiak eta balio gabeak garen. Ea bada pena hautarik erremedia gaitzatzu, eta zerbait esker Aita eternalari eman behar derauzkagunaz geroz garen guziak baino gutiago ez deus eskain ez geure baithan, baina zeure baithan eta zeure gatik. Hauk guziok zure baithan eztute ezinik, aitzitik nik erraitea baino zuk egitea aisekiago millatan daidizu. launa, othoi, duzun pietate, miseriakordia eta urrikalmendu. launa, othoi, eman diazadazu fabore, garazia eta berthute. launa, othoi konsidera ezazu nor zaren eta zertara ene ostatu pobre hunetara zaren. Ene perfetzeagatik ethorri zara eta ungi ethorri zarela flakoen indarra, munduko perilen defensa, barkhamenduaren ardieste, garaziaren berretmendua, biziaren erremedioa, ene bideko pitanza, ene hatsaren konfortua, ene lanaren pagua, ene salbamendua eta ene desiren konplimendua. Ibilzean segi nazazu, errebelatzean bihur nazazu, errebelatzean bihur nazazu, itzulzean har nazazu, ikharatzean eduki nazazu. Biz hala.

Errezibi ondoko othoitzza

Nola bizi naiz. o launa? Nolako kontua egiten dut? Zer duit eta zer hari naiz? Fabore handiak izatu ditut eta nik ez eskerrik errendatzen. Espiriturik sabantenak, bothererik handienak eta kreaturarik noblerenak! hunelako iainkoazko endrezua lauda ezazue. Iainko handiak ene bait-han hartu du ostatu, ni handitzea gatik, ohortzea gatik, konfortatzea gatik eta alde guziz abantailaitzea gatik: zeren eta Iainkoa bera niri emaitiaz eman baitzait zeruan eta lurrian bakea. O ene salbatzaillea, zu zara ene arimaren kontentamendua, argi eternalaren ithurria, atseginen konplitasuna, konplitasunaren ohatzea, ontasun guzien Aita eta ene bihotzaren asesi-mendu osoa. Gargoro ez naiz neure borondatez gobernatu nahi; launa, zure manamenduez gobernatu nahi naiz zuk plazer duzuna egitea gatik, eta hala ene arimak zu bethi bilha zaitzan, zu bethi ediren zaitzan, zure gana bethi ethor dadin, zure minza dakizun gauza guziak zure ize-naren laudoriotan eta ohoretan obratzea gatik. Huna non eriak edireiten duen osasuna; itsuak

argia; ezilktuak kuraia; pobreak aberatstasuna; nekhatuak pausua; penitentak barkhamendua, eta hala behin, baina behin hunek bethiko irautearekin dirauela, erran beza ene arimak: laudatu dela ontasun hunen emaille pare gabea; laudatu dela behin, bieran, eta hiruretan ene bait-han ostatu harzera dudatu eztuen lainkoa, laudatu dela handiro orai eta bethiere, hemen eta lekhu guzietan. Biz hala.

Errezibi ondoiko othoitza

Eskerrak eta laudoriak deraukitzut, o laun pietateduna, Aita bothere guzia duzuna, lainko eternala, zeren ni bekhatoreor neure merezirik gabe zeure miseriardiaren botherez gure lesu Kristo launaren gorputz preziatuaz eta odol sainduaz bazkatu bait nauzu, eta othoitzez nagotzu presentean errezibitze hau balia dakidan neure salbamendutan, borondate on baten berretkuntan, neure gaixtakerien desegitetan, gutizia gaixtoen desterrutan; karitarearen, pazientzia-

ren, humiltasunaren, obedienziaren eta berthute guztien aitzinamendutan, etsai agerien edo egeri gabeen enboskadetarik salbatzekotan, neure mugiden dela haragizkoen, edo espirituzkoen sosegamendatan, zure baithan, egizako lainkoa, neure fina dohatsuki izaitekotan eta zeruan konpkitasun guzian zu behin ikhustekhotan: ezen zu zara sekulako banketean sainduek duten egiazko argia, asesiamendu konplitia, bethiereko bozkarioa, plazer osoa, eta dohatsutasun eskasgabea zeure semearekin eta espiritu sainduarekin lainko bat. Aita eternala, ni ere othoitzez nagotzu, arren behin horra hedatzeko garazia emen diazadazun, Iesu kristo launaz beraz. Biz hala.

Errezibi ondoko othoitza

O lainko eternala, zu gizonaren umeaz orhoitzeko eta zuk gizonaren semea hautemaiteko, zer da gizona? egun duzu aingeruez azpitik eta heldu zaizka aingeruez konpainiaturik. O ene

launa eta ene lainkoa, ala zure izena admiratze-
koa baita zeure ontasunak gatik.

Beredika zaitzatela aingeruek, arkan-
geluek eta buruzagitasunek, lauda zaitzatela eta
lorifika mende guzian.

Benedika ezazue bothereak, bertuteak, eta
iauntasunak, lauda ezazue eta bethierekotz lori-
fika.

Benedika ezazue tronuak, kerubinoak keta
serafinoak, lauda ezazue eta lorifika bethiere.

Patriarkak eta profetak benedika ezazue gure
launa, lauda eta lorifika sekulakotz.

Apostoluak eta ebanjelistak benedika ezazue
gure launa, lauda eta sekulakotz lorifika.

Martirak, datorak, ipizpikuak eta kofesorak
benedika ezazue, lauda eta bethierekotz lorifika.

Apezak, lebitak, birjinak, alhargunak eta
zeruko saildu guziak benedika ezazue gure
launa, lauda eta lorifika. Guziok eskerrak eman
diatzotzue hunelako fabore handiak gatik, eta
niri egin derauztan beregaineko kortesiak gatik.
Biz hala.

Errezibi ondoko othoitza

Birjina gauziz garbia! nork erranen derazku zure elheak, konzertuak eta platika sailduak? Nork kontatuko derazku zuk zeure semearekin zinituen arima alxatzeak, botuak eta eskainzak? Andrea, zuk Iudeako Bethleen hirian zeure seme launari musu egiten zenerokan oiñetan zeure kreatzailleari bezala, eskuetan zeure launari bezala, bisaian zeure haurrari bezala. Ene arima, orhoit zaitea zein humilki Birjunak bere seme sorthua adoratzan zuen. Zein gogotik besarkatzen zuen. Zein maitatuki xatarratzen zuen. O arima noble baten eta andre digne baten sentimenduak! o bizi laudoriozkoa! O konzebimendu sailduak. O botu egitiak! Esker eternalak! Ofrenda imortalak! Iainko baten eta Iainkoaren Ama Birjina baten arteko tratuak dira hauk hunea: o ene arima; baina arren, o Iesus ona, eta, o Maria urrikalmendutsua! ontasun gauk guziok Aita eternalari nik eman behar nihotzakenen ordain eman diatzotzu. Halaber aingeruen garbitasuna, arzainen obediencia, erregen adorazi-

noa, eta Iosephen debozinoa errezibi itzatzu ene propialak balire bezala. Ene Ama ona othoi hitz bat ene faboretan zeure semeari erran diazozu eta nik neure konsolamendua ezan dezadan. Biz hala.

Erribibi ondoko othoitza

O Iainkoarn eta Maria Birjinaren semea, aingeruek zure maiestatearen aitzinera gizonak beha legoztala zeruak idekirik eramán baninzate, eta gero han zeruan ezar baninzate, ez lizateke mundu hunetan berze espanturik eta ez berze solasik ere. Lurretik zerura, ala zerutik lurrera da gehiago? Iainkoa zerutik bere konpainia guziarekin sakramendu iainkoazko hunetara heldu da. Beraz gizona iaustea ala igaitea da espantosago? bekhatorea zeruratzea, ala sainduen saindua aldareratzea da mirakulluago? Zeruan gu Iainkoak besarka errezibitzea, ala guk lurrean Iainko hura bera gere ahoetan eta geure bihotzetan ostatsatzea da estrainioago? erregek nihor bere gana deitzea, ala errege bera zure

gana ethorzea da estimatzekoago? hanbatik hanbatean errege bera presunalki nihor gana ethorririk salbatzea gehiago dela eta prezatze-koago dela daritzat: ordea gauza segituak eta ardura ikusten ditugunak eztira mirakullu. Emaille bat eta harzaille bat baizen ezpaliz guziek hara laster egin lezakete, eta handiek baizen ez lukete parterik: baina orai zu leku guzietan izaitteaz zenbatenaz baitzara admiratzekoago, hanbatenaz gutiago estimatzen zaitugu. Hunela Adamen seme pobreak, hunela Ebaren alaba miserableak gezurrari garraizka; hunela iguzkiari hedoipetik behatzen diogu, hunela ilhun denean behatzen diogu eta ez argi denean.

Ene lainko salbatzaille launa, gaixtoek, farfui-
llek, inorantek eta obstinatuek, zu bazine mun-
duko handiak bezala gaitz eta terrible, hobekia-
go zerbitza zinitzakete, baina zeren parabisua ez
hekenzat, baina ezagutza dutenezat paratua
baita, halakotz eztezazula zeure egiraia ganbia;
zeren-eta ezpaita hekin gaztiguz usatu behar:
baina bai amorioz. O Iesu Kristo errege launa
kontinua diazadazu zeure amorioa; berret dia-
tzadatzu zeure faboreak; guti diatzadatzu neure

gaixtakeriak; iraungi diatzadatu neure banitateak eta eman diazadazu iustutzeko behar den dohaina. Biz hala.

Errezibitu duzun eguneko oren guziaz edo hitzez edo bihotzez

Egun, launa, zu ni bekhatoreor gana ethorri zara.

Egun zu ene arimaren etxean ostatsatu zara.

Egun zuk ene gogoan eta bihotzean emaz duzu zeure pasione sailduaren orhoitzapena.

Egun zu niri zure zerbitzari ezdeusorri eman zaizkit: ni zure xoil eta totalki emaiteko garazia eman diazadazu. Biz hala.

Noiz nahi egiteko othoitzza

Hasterik eta finik gabeko lainko handia! Ahalke naizela zure begien aitzinean edireiten naiz; eta zerk ahalkatzen nau neure ingratasunak bai-

zen? launa, zuk bethi ontasunak emaiten derauztatzu eta nik zuri ezagutzarik ez egiten. Ni zure gana zordun handia naiz eta pagatzaille gaixtoa. Horra ni neure buruari ahanzte! Beraz, o laun miserikordiazkoa! ene ingratasunaren gaixtatasunak direla kausa zu handiro koleratua zara? Ordea barkhamendu galdetzen derautzun huni zer egingen diozu? Orainoko faltak barkha diatzotzu: bere bekhatuak gatik duen urrikimendua zuk ezagutzen duzu, eta zure garaziarekin batean aitzinara emendatuko da. eta zeren titxak, heldeak, ondikoak, eskarnioak eta berze gainerako damuak komuznki bekhatuaren azoteak baitira, halakotz zure ordenan zen gaztigu iustuak bezala dathozin orduan gogotik errezibituko ditut eta erranen dut humilki: O lainko guziz botheretsua! konpli bedi zure borondatea zuk zeure kreatura obligatu duzuna baithan plazer harzea gatik eta zuk ni hunela zeure garaziaz erremedia nazazun orduan garazia haren bera- ren berthutez ni zure zerbitzuan bizitzea gatik. Biz hala.

Barkhamendu eta garazia ardiesteko othoitzza

Zeruaren eta lurraren egilea, lainko guziz botheretsua; gauza guzietan espantuzkoa zara, baina nihori barkhatzean miragarria zara: zeren-eta konbertitu nahi denik ezpaituzu arbuiatzen, aitzitik bai miserikordioski errezibitzen. Munduko handiek (baina zergatik ez tipiek) gaitzetsiko zuten zuk gurutzean onhetsi duzun bezalako ohoina; gatzigatuko zuten zuk debotki errezibitu duzun Maria Madalena bekhatore nigartia; kondenatuko zuten zuk miserikordioski barkhatzen diozun iondone Petri zeure diszipulu bekatzaillea; baina zuk, Aita miserikordiazkoa, obligatu bazinituzte bezala bekhatoreak errezibitzen dituztu, eta ni guziz hauk guziok baino gaixtoagoa izana gatik espantuki soportatzen nauzu. O pazientzia finik gabea! luge ezta! Guziak gatik nola iustuak iustizia eginen duzula badakit penitentzia egitera zuk hargatik igurikitzen derautazun bezala, aitzin ezpanakizu. Helas! Neure konzienziak tormentatzen nau; neure bihotzeko sekeretuek salhatzen; inbideak iharzen; ansika-

betasunak zabarzen; eskarnioak zoratzen; aha-paldiak pikatzen; desirapenak egozten, neure zenzu guziek akusatzen eta kondenatzen; horra, Aita ona, nik sehaskatik orainokoan zerbitzatu ditudan laguna, adiskideak eta nabusiak, zeinak orai baitira ene akusatzailleak, ene lekhukoak, ene iugeak eta ene burrero minduak. O ni ondikozkoa! O arima sorhaioa! O horma eta ez bihotza! Zergatik ez naiz nigarretan urzen?

Iauna damu eta urriki handi batekin bizi naiz, zeren zure manamenduak hautsi ditudan, halakotz salba nazazu zeure garaziaz damna nazakezuna zeure iustiziaz; ostata nazazu zeure pietateaz khen ahal nazakezuna zeure legeaz; bezti nazazu zeure dohain sainduetz billuz ahal nazakezuna zeure bothereaz: ezen zu zara egia, bidea eta bizitzea. Argi diazadazu bada adimendua, xuxen borondatea, errekaitea memoria, pazega bihotza, eta erreforma neure bothere guztiak. Ea bada lainko miseriakordiosa, egizu berzerik eztezadan zu baizen desira; zu desiraturik bilha zaitzadan; bilhaturik ediren zaitzadan; edirenik maita zaitzadan; eta bethi obeditzen zaitudala sekulan etzaitzadan ofensa. Hunetarakotz

gomendatzen daratzut neure arima, gorputza, pensuak, konseilluak, solasak urratsak, bizia eta gainerako guzia. Halaber gomendatzen daratzut ahaiden, adiskiden hala bizi direnen nola hil direnen pausua, ni eta hek zure loria sainduan zure garaziaz sarzea gatik. Haugatik othoitzez nagotzu, arren ene bizitzeko moldea zure ganik has eta zure baithan akhaba dadin inspiratzen derautazula pensatu behar dudana. Irakhasten erren behar dudana, erraixten zure eder zaizkitzun obrak, iraungitzen arimako gutizia gaixtoak, desegiten urgullutasuneko gogoa, pitzten humiltasuneko espiritua eta uzten zure ganako amorioa. Baldin, Aita ezitia, zuk zeure harmadura sainduz probedi banazazu, zeure gogaratuonauzu, eta gero gehiago adiu ene ganik banaloriak, adiu gogoeta mudakorrak, adiu bihotz haserretasuna, adiu hitz arimak eta finean adiu ene laidoak.

Ordea, O laun handia, zeren zure plazerak nahi baitu eztitzadan ohoreak desira, eztitzadan flakoak nekha, eztitzadan pobreak menesprezia, konseillu onari eznakion kontra, giristino laguna gana ez naizen gogor, zure plazer hau gatik bera

gatik enseiatuko naiz puntu hunen ahalik hobekiena konplitzera.

Berze alde, launa, zuk plazer duzu eta manazten nauzu inorantei irakhastera; nekhatuei lagunzera; beharrak faboratzera; deskonsolatuak konsolatzera; eroriak alxatzera; flakoak soportatzera; faltak barkatzera; neure gaitzetsleak maitatzera; gaitzaren orde ona emaitera; onei iarraitzera; gaixtoetarik apartatzera; bert-huteak besarkatzera, bizioak gaitzetstera; kalteak gatik eta estorbuak gatik pazienza izaitera; lurreko enganio guziak kitatzera eta zeruko agudezia guziei iarraitera; othoi, launa, hauk guziok hunela egiteko garazia eman diazadazu zeure ohorea gatik eta nik egun batez zeruko loria bizitze mueta hunez izaitea gatik. Biz hala.

Defuntuaz othoitza

Munduaren salbatzaille guziz botheretsua, guziz miserikordiazkoa, fidelen esperanza, pausua eta parabisua! gurutzean egin zinituen ontasunez othoizten zaitut, arren berriro hil hunen

arima zeure garaziaz eta miserikordiaz ikhus eta hauteman dezazun. Badakizu, launa, zure izen dainduaren aithorrena hil dela, elizako fedea sin-hetsi duela eta zuk ordenatu derakuzun legeaz menzionatu dela. Othoi, lainko ona, bizien lainkoa, bere hoben guzietarik absolba ezazu; etzaitela haren kontra sar iuiamenduan, egin ezazu parabisuaren hurko, aingeruen lagun, zeure sainduen tropelako, dohatsuen kontuko eta zeruko gorthean zeure zerbitzuko. Halakotz eztezazula bekhatore bezala zeure iustiziarekin konsidera, baina zeure kreatura bezala zeure ontasunarekin iuia ezazu, ez haren desobedienciaz gatik, baina zeure promesak gatik; ez haren gaizkiak gatik; baina zeure miserikordiak gatik; ez haren maleziak gatik, baina zeure ontasun eternalak gatik. Ea bada batak berzea gatik othoitz egin dezagula manatu gaitutzun lainko egiatia, ene errekerrezino hau eztadila alferrik egina gertha, aitzitik arima huni erakhuts diazozu bekhatore baten othoitzak zure maiestatea baithan kredit izatu dueala; hartarakotz purgatoriko penak arin diatzotzu edo zeure miserikordiaz xoilkhen, eta hunela urrikaldurik alda ezazu

sekulako etxe benedikatura, eta niri ere neure aldia ethor dakidan orduan egin diazadazu gisa bereko garazia, bitarteko derautzut zeure herio-tzea eta pitztea. Biz hala.

Nihor penatan denean othoitza

Laudatzen dut, o Iainko ona, zure izen saindua, eta adoratzen dut zure maiestate handia, orai derautzatzun gaztigu onak gatik, benedikatu zarela hunelako fabore premiazkoak gatik: ezen zuk zeure borondate saindua ezagutaraztera ernatu ezpaninduzu, neure buruari ahanzirik ansikabetasunean sobera zabartzeko eta zurrundurik higtzeko periletan nengoen: baina, launa, zure ontasuneko azote hau seiñale ona da maite nauzula, eta zure eskuko gaztigu leiala bezala gogotik errezibitzen dut; ezen badakit neure soberaniak gatik gehiago millatan eta millatan ere merezi dudala, halakotz othoitzten zaitut, pazientzia behar bezain iraunkor bat erreperti diazadazun, eta gainerakoan zure miserikordiak plazer duen bezalako azote suertez zenza naza-

zu: ezen iustiziaren eredu zuzena tratatu behar da, banintzatu, sekulako galduta ezin izateke. Ea bada, lortu man-
soa, adiaraz ditzazazu zer egin nahi duzun zure
sehi hura: egiazki badakit gaitzik pairatu gabe
onik ez dela gozaten, eta bi parabisu, bata
hemen eta berrea hor ezin diratekeela, baina
horkoa dela parabisu egiazkoa, zeinetan sarzen
baitira zure maiteak: ordea klarki diosku zure
eskola sakratuak, zure maite hek añaitez tormen-
ta sofriturik pausa-leku hura irabazi dutela, eta
ene penek hekenekin konparatzeko ikuskizunik
eztutela, eta guziak guk harzen bageneaki gure
hobea gatik direla. Beraz, o ene arima izipera!
zer horrela tristatzen zaitzu? kuraia har ezazu,
konsola zaita lainkoa baitan, eta zer ere atse-
kabe lotzen baitzaitzu, lauda ezazu zeure lainko
launaren borondate saildua. Baldin enoiu gabe
bizi bazine, señaile gaixtoa lizateke: baina bizki-
tartearen marraskaz zaude inbidia nekhatzen zai-
tuela; xirikaz zaude dolozko oinhatzeak badi-
txezkitzula; orroaz zaude kalteak darraizkitzula;
inzirinaz zaude etsaiak darraizkitzula; hatsbehe-
rapenez zaude konsolamendurik nahi ezin
dukezula: nahi dut hori horrela dela eta gehiago

ere, baina hanbat hobe, ezteiak dira eta ez nekeak, hobeagoa gatik diren gero. Ene arima! ikhus ezazu zeure nabusi Iesu Kristo launak zer zure gatik pairatu zuen eta zuk haren izenean eztuzu zerbait pairatuko? Sinforosa Tiburtina lainkoaren legea gatik ura be?era lephoan harri bat emanik egotzi zuren. Hunen zazpi semeak halaber lainkoa obeditzea gatik martiriatu ziren: zazpiak haga batekin lothurik. Kreszenziori ezpataz zinzurak egin zerozkaten; Iuliano bihotzetik iragan zuren; Nemesiori bihotza eho zioten; Primitibori xilkoa iragan zioten; Iustino xehakatu zutren; Staketeo tragazez kolpatu zuten; Eugenio bulharretarik erdiratu zuten; hauk bere salbamendua gatik hil ziren eta da zuhurzia paregabea, baina anhitz bere damnatzea gatik hilen da: O ene arima maitea! beude fernesiatzeko pensamenduak apart; lainkoak berak daki guk zer premia dugun; hark berak probedituko gaitu, haren baithan esperanza duenik, eztu sekulan kitatzen, aitzitik bethi saborez bethetzen du. Egia da, ene bihotzeko lainkoa, lainko maitea, zuk Aita probedituak bezala bethi premia dudan guzia, nik kontentatzen baneaki, emanen derau-

tazula: zeren-eta ezpaituzu hondatzera nihor munduratzen, eta baldin ni arrankuratzen banaiz, nik nerorrek ditut hobenak, eta othoi barkha diatzadatzu, behar den bidez zure plazerera bethi bizitzea gatik eta gero azken finean zure garaziaz horratzea gatik. Biz hala.

Bekhatorearen dolorea

launa, espaziorik utzi gabe eznazazula berehala honda: neure solamenak erran artean iguriki diazadazu: ezen nork bere adiskide leialari bere koaitak ta doloreak erranaz atsegin harzen du. Ene gutizia traidore batzuek arrazoinak kontrako aldeaz iraulirik ene borondateari lausengatzea gatik maiz gaizki konseillatzen dituzte, eta gero ene borondate gaizki erresolutu hunek bere bothere guziak biziaren galzeko estatuan ibainzen ditu, eta hala midiku sainduaren probedi-menduak konserba ezpaleza, pontuan errekaitu gaixto hunek honda lezake, diote iustiziako legek; ezen gero urrikitia gatik ere, behin arku bandatutik desarraturik dohazin matrazak beza-

la ene borondate deliberatutik ere ioaiten diranik pitzten ditudan gaixtakeriak. Handik ene izterbegiek erraiteko suiet hartu dute eztela nire senda ahal nazaken midikurik, eta gaitzak leher eraginen derautala. launa, bere bere obstimandua gatik galdu dira, eta nire ere hala zure miseriardiaren esperanzatik erauzi nahi nindukete; baina zure kortesiek zure ontasunean berzelako sinhestea eman derautate; zeren-eta neure burua biziaren galzeko periletan ardura ezarria gatik zure pietateak ene probetasuna hauteman baitu nire hunela handiro zeure gana obligatzea gatik. Orai ere launa, leheneko hura bera zara eta mudatzen etzarella nire barkhamendu eman diazakedazu izterbegiak gezurti egitea gatik eta nire zure iduritako kreatura zeurettzea gatik, launa, urrikimendutan dagoen bekhatari barkha diazozu. Zu satisfatzea gatik tinketz ahalkatua belhauriko nago, eta zer ere kofesio sainduan neure salbamendua gatik ordenatuko baitzait, hura guzia konplitzera enseiatuko naiz zuk eta nire biok atsegina izaitzea gatik. Biz hala.

Trinitate sainduari othoitzza

O Trinitate saildua, Aita, semea eta espiritu saildua, hirurok lainko eternal bat, lainko espan-tuzko bat, lainko miserikordioso bat eta adimen-duk den bezalako handitasunez ezin izenda dezakeien lainkoa. Laudatzen zaitut neure ahoaz, neure bihotzaz eta nere ahal guziaz. Benedikatzen eta adoratzen zaitut zeure ontasunak gatik. Eskerrak eta laudorioak derauzkitut neure faboreak gatik: ezen zordun naiz zure gana. Laudatzen zaitut. O saildua, o saildua, o saildua, eta othoi ethor zaitea, ene gana ni zeure loriaren tanplu digne egitera. Egin nazazu bada berthute sailduen lekhu eta zure ohore lainkozkoaren laudatzaille: ezen esperanza dut ene othoitzza eztuzula arbuiatuko zu zarenaz geroz zure baithan fidatzen direnen begiralea eta defendaria. Zu zara lainko guziz botheretsua eta zutzaz berze lainkorik ezta. Zu zara lainko handi hura, zein edireiten baitzara bazter guzie-tan. Zu zara tipien gainean bezanbat handien gainean esku duzun lainko hura. Zu zara zeruen, lurraren eta berze guzien egilea. Zu zara deus

guzien gaineko launa, eta ni zure garaziarekin batean izanen naiz zure izen sainduaren laudatzen bizi eta hil nahi naizen sehi humilla, zure plazera gatik. Biz hala.

Parabisuko saindu guziei othoitzza

O Maria, lainkoarn ama bethi birjina saindua! Amatasunaren kredit handiez zeure seme launaren miserikkordia ezan diazadazu nik kausatu derokadankolera zure bethiko enseiu sainduz iraungitzea gatik, eta zure hunelako pazegamenduez haren bethiereko adiskidetasunean bizitzea gatik. O iondone Mikele! o san Gabriel, san Raphael! o aingeru eta arkangeluak! o patriarka, profeta, apostolu, ebanjelista, martir, eta berze iustu guziak ni sekulako heriozetik begiratzea gatik lainkoari othoitz egiozue! Berze aldiz zuek frogatu duzuen bezala hainitz kautelaz munduak gure bizitzea akometatzen du, baina zuek lainkoaren laudorio eternaletan añhitz loria, bozkario eta atsegin sekulakotz seguratuki dastatzen

duzue aisia handian: oraino gu bekhatore
pobreok desterruan bizi gara aiuta guziaren
beharrak, halakotz zeruko prinzeak, parabisuko
liliak, lainkoaren hautuak eta dohatsuak othoitz
egizue hor gure gatik, berdin hargatik zuren boz-
tateak, alegrianzak eta loria gozoak eztira guti-
tuko. Ea bada arima debotak, zeruko kristal pre-
ziatuak, parabisuko izarrak, loriako habitantak,
boztasuneko burgesak, palazio sailduko aito-
nensemeak, berthuten kapitainnak eta laudorio-
en dukeak sokorri gaitzatzue zeuen othoitz
debotez mundu gudutsu hunen periletarik egun
batez sekulako loriaren egoitzara salborik eta
kitorik itzurzea gatik. Biz hala.

Urrun dohazinek othoitzza

o lainko handia eta botheretsua! zuk mana-
tzen duzu zeruan, aurren, airean eta itsasoan.
Zuk duzu gauza guzien gainean esku, eta zuk
guziak bere behar duten ereduaz probeditzen
ditutzu. Zu segitzen zaizka urez dohanari. Zuk

emaiten dozu bihun eta indar lurrez dabilanari, eta zeren nora nahi zuk zeure bothere hedatzen baituzu, hala zure miserikordiazko beso bortitzak sokorritzen ditu beharrak. Ni presentean bekhatore pobrea suplikatzen natzaitzu, arren nohan lekhu guzietan zure espirituak gidatzeko garazia eman diazadazun: ezen zure faborea baldin baduk adiu ene flakeza guzia deusen ere eskasik eztudala: zeren-eta zurekin batean berze guziak baino bortitzago izanen baitnaiz: eta egia derradan, zu lekhu guzietan bardin hurbil zara, baldin gu geure gaixtakeriez gerok apartatzen ezpagara. Gure ontasunaren ithurria da zure garazia saindua, zein geure bekhatuak gatik galzen baitugu, eta da apartatzen handia garazia galzea. Halakotz othoitzez nagotzu, arren zure baithan esperanza dudan bezala beha diazadazun, eta zure garazia sainduen berthutez behin bihur banadi zeure etxe saindu hunetan neure bihotzik hoberenaz laudatuko zaitut. Biz hala.

Bihurtu denak othoitzza

Eskerrak, o Aita eternala, eskerrak neure indar guziaz derauzkitzut, zeren huna bihurzeko sendagailla hunez digne ez ninzenik zeure behiereko faborez digne bezalakatu nauzun. Laudorio sainduak derauzkitzut, eta ene faboretan zeru guziak lauda beza zure maiestate saindua; adora beza zure izen gora; lorifika beza zure handitasuna; aithor beza zure botherea; predika beza zure loria, publika beza zure ontasuna, eta kreatura guziak halaber ezagut beza zuk niri egin derautazun endrezua eta faborea. O lainko ona! Zenbatetan begiratu nauzu inkuntruetarik? Zenbatetan defendatu nauzu periletarik? Zenbatetan nik zuri gaizkiak egina gatik zuk niri, ungi egin derautazu? Zenbatetan pazienziatz zure bidegabeak hartu dituzu? Helas! Zenbatetan baneaki, zer ez nuke eginen eta zer eztut egin behar hunelako merxedeak gatik? Andre dana Maria, birjina pieteze bethea, eskerrak derazkitzut, zeren zeure seme launa enekin miserikor-diaz tratatzera balakatu derautazun. Eskerrak finean ditutzuen ene ungi-gile guziok, eta zuek

faborea dazaguzuen guziok lauda diazadazue neure lainko ona, lainko pietatezkoa, lainko iustua, lainko probeditua, hunarainokoan bezala aitzinara ere lainkoak niri bere garazietarik errepartitza gatik eta guziz ene arima bere herri desiratu horretara, lurretik konjia har dezanean, helzea gatik. Herri hartara nadinean ezagutza iustu batez lainko launaren maiestate handia bozkario pare gabearekin eternalki laudatuko dut, lorifikatuko eta kantoriatuko; launa, zuk egin diazadazu garazia. Biz hala.

lainkoa baithan fidatzea

Mundura behin sortu denak daidikeien zuhurziarik handiena eta gerthuena da lainkoa baithan fidatzea. lainkoa da gure arimaen konso-lamendua eta gure bihotzen pausua. lainkoa da gure gatik miserikordia duena eta gu geure pena mueta guzietarik liberalki libratzen gaituena. lainkoa da mirakulluak egiten eta eragiten dituen launa, eta hala haren baithan fidanza guzia egiazki dutenek periletan barrena sobera

izanagatik izanen dute aiuta eta salbamendua, hala Noe libratu zuen uholdetik; Loth sodomakotarik, eta suaren kharretik; Daniel lehoinen zinzurretik; Isaeleko jendea Faraon Egiptoko erregearen eskutik; Enok eta Elias heriotzetik; Isak bere aita Abrahamen eskuetarik; hirur morroinak labe berotutik eta errege iniustuaren azpitik; iondone Petri eta iondone Paulo karzeletik; Susana falso testimoniotik berze gehiagokoekin, et ni zenbat estorbutarik? Ezen neure indar xoillez sekulan ezin eskapa nindekeien arriskutan izatu naiz eta neure hainitz manerazko izterbegien aztaparretarik lainko pietatez bethe hunek berak bere miseriakordiaz athera nau. Ene lainko launak egin du hunelako sendagailla abantaillatua: beraz albiriste hunez, giristino iainkotiararak, esporza zaitezte eta konberti zaitezte lainko on hunen gana dakusazuenaz geroz zein on den lainkoa baithan fidatzea. nitzaz denaz bezanbatean, O launa, zure gana ihes egiten dut, halakotz gomendatzen zaitzu ene arima, zein zure baithan bethi fidatua bizi baita orainokoan bezala hemendik harat ere nitzaz ardura izanen duzula;esporzu hunekin bethiere aurkhituko nauzu,

eta noiz-ere atsekaben ausikiak eta oinhazeak lothuko baitzaizkit, ene bihotza kuraiatua edirenen da ure ganik bethi uste duen faborean: ezen zu zara bekhatoreak gatik pietate duzun lainko miserikordiazko hura. Zu zara penitenzia egiazko batez garbitzen direnak errezibitzen ditutzun aita emea: eman diazadazu bada neure bekhatuak barkhatzeko eder zaitzun penitenzia baten konplitzeko dohaina, hemen eta hor zure izen saindua ohoratzea gatik. Biz hala.

Bekhatorearen urrikia eta othoitzza

A! ni miserablea: presuna ingrata; ume natura kontrakoa: zerbitzari gaixtoa: arima engantua: bekhatore higuña: Zer egin dut? Zer estatutan iarri naiz? Zer esperanza ahal duket? Norat ihes eginen dut? Nori gomendatuko natzaika? Neure lainko ofensatu dut et hura da ene partida. Neure kreatzaillearen kontra ibili naiz eta hura da ena iugea. naure nabusia narritatu sut eta hur da ene biziaren iabea. naure launa gaizki zerbitzatu dut eta hura da ene ontasuna. lain-

ko hunek plazer badu, honda nazake. luge hunek plazer badu, hauzia gal dezaket. labe hunek plazer badu, bizia ideki dezait. Partida hunek plazer badu, kondena nazake. Horra iustiziako gorthean nik neure hauzia galdua neure gaizkiak gatik! O dolorea! o ximikoa! o denaturalezatzea! launa, othoi gorthe hunetan ez nazazula persegi; ilkhi gaiten hemendik; orino aldi hunetan miseri-kordiazko gorthean ene egitekoa disputatu behar duzu; ez naiz gehiago zure kontra abiatuko. Ea bada neure lainkoa barkha diazadazu; neure partida egin diazadazu miseri-kordia; neure iabea errezibi nazazu. Eguia da alde guziz huts egin duenak alde guziz zenzatu ere behar lukeiela baina o launa, zure baithan guk bekhatoreok ikhasi dugu bekhatore penitentei barkhatzen derauezula. Zer egin behar dut, nik zu kontentatzea gatik, zu satisfatzea gatik eta zurekin adiskidetzea gatik eta egin dezadan? Behar da pairatu, paira dezadan? launa, iazar diazadazu, ungi den bezala nik zu zerbitzatzea gatik eta jendeak ene exenpluz ahalkatzea gatik: ezen añhitz datza ifernuan nik baino gutiago eta gutitanago merezi duenik. Horra zurekin ez adiskide izaitea

ifernura erortea. Berze guziekin hegiara ethorriko banaiz ere zurekin adiskide nahi naiz: ezen hala deusek enazake izi, tenta, enhoia edo niholatan malenkonia: zeren-eta zu ontasun guzien emaillea eta gaitz guzien khenzaillea alde izanen baitzaitut ni atsekabe guzietarik libratzeko eta kontentamendu guziez bethetzeko. Biz hala.

Elizan sarzean

O launa, o berthuten lainkoa! zuk erran duzu, ene etxea othoitz egiteko etxea deithuko da eta hala ni ere heldu naiz etxe saindu hunetara zu laudatzeko eta neure bihotz guziaz zu adoratzeko borondate deliberatu batekin. Biz hala.

Ur benedikatua harzean

Garbi nazazu. O launa, zeure garaziaren ihinzaz, eta elhurra baino xuriago izanen naiz. Biz hala.

Sakramenduaren aitzinean

Adoratzen zaitut ahalik humilkien Iesu Kristo ene lauren gorputz preziatua, eta fede sainduaren, begiaz solamente ikhusten zaitudala sakramendu saindu hunetan estalia, emaiten deratzut milla laudorio eta milla esker, zuk munduaren salbamendutan egin duzun balentia handi hura gatik. Lehenbizirik egundainotik ordenatu zenden bezala Birjina amaren sabelean haragiz beztiturik gizon egin zara, eta gero berze faboren buruan prinzipalki zeror gizon eta lainko sakramenduan mirakulluki emaiten zaizku gu infinituki faboratzea gatik: ezen zu zara zerutik iautsi zaren ogi bizia, eta zu dignekei iaten zaituen guziari sekulako bizitzea emaiten diozuna. Bazka nazazu bada bianda saindu hunez eta salbatua izanen naiz. Biz hala.

Othoitzak hastean

Iainko ontasun guziez perfetuki konplutua, othoi eman diazadazu zure izen sainduaren oho-retan eta neure egin bidearen konplimendutan oraiko debozino hunen ungi egiteko garazia. Beraz bezi nazazu libraia behar ditudan guziez ariman eta gorputzean, eta lehenbizirik bortitz nazazu fedeaz, esperanzaz, eta karitateaz, ni ere gero guziz botheretsuak daidikeien bezala bert-hute saindu hauken obrez erdiaraztea gatik. Biz hala

Iainkoari eskerrak

O ene aita emea! eskerrak eta laudorioak derazkitzut ni zeure iduritako egitea gatik eta kreatzea gatik: arima hau bere bothere guztiekin eta gorputz hau bere sentimendu guziekin zuk niri emaita gatik. *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o Iainko axolduria, zuk ni neure izaitean begiratzea gatik; guza ikhusten diren eta ikhusten eztiren guziak

ene konserbatzetan kreatu dituzunak gatik *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o ene salbatzaille miserikordiazkoa, zuk ni zeure ontasun infinituaz eta miserikordiaz redemitzea gatik, ene alderat erakhutsi duzun humiltasuna gatik, karitatea gatik eta enhoinak gatik. Zuk bizian eta hilzea pairatu duzun guzia gatik. *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o Iainko garaziaz bethea, zeure bathaio sainduko uraz garbitu nauzun ontasuna gatik. Ni tenplu bizi eginik eta nik merezi gaberik zeure semetzat adoptaturik ene arima garaziaz edertu duzu. Deabrua ganik eta ifernutik begiratu nauzu ezteraezu gauza bera egin iuduei, turkoei eta berze nazioei. *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o Iainko pietatezkoa, zuk ni neure bekhatuaren arriskutik atheratzea gatik, eta niri ene bekhatuek merezi zuten bezala berehala kondenatu gabe penitentzia egin nezaken aretan eztiro igurikitzea gatik. Merezi nuen zenzatzea, baina bidaldu derauztatzu abisuak eta inspirazioneak ni neure peneta-

rik libratzea gatik. Deabruaren menetik ekotea gatik et neure buruaren iabe errendateza gatik. *Pater eta Ave.*

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o bihotz miratzailea, zuk niri ungi egiteko desir emanak gatik. Iauna, zer ere pensatu, erran eta egin baitut, eta zer ere eginen, pensatuko eta erranen baitut hura guzia heldu da zure miserikordia libe-raletik. *Pater eta Ave.*

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o begirale sendoa zuk ni naturaren, kulparen eta inkuntru gaitzaren kaltetarik begiratu nauzunagatik. *Pater eta Ave.*

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o lainko probedidora, zuk ene salbamendutan ordenatu dituzun sakramendu sainduak gatik eta prinzipalki kofesiokoa gatik. *Pater eta Ave.*

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o lainko fabore emaillea, naturaren, garaziaren eta fortunarenonak gatik: berzetarik bereziki zuk niri egin derauztatzun kortesia beregainekoak gatik, eta nik dakitzadala eta eztakitadala egin derauztatzun fabore guziak gatik. *Pater eta Ave.*

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o parabisuko lainkoa, zuk ni dohatsutasuneko ontasunera ordenatzea gatik: launa, iadanik parabisuko dohatsutasun hari esperanzaz gozatzen natzai-ka, eta orena bethe dakidanean plazer baduzu emanen deratazu errealki, *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o lainko bihotz bera, zuk niri eta zeure kreatura guziei egin derauztetzun ungiak gatik. *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o lainko handia eta handitzaillea, zuk zeure Ama bethi Birjina sainduari egin eta emen diotzatzunak hala egitea gatik eta emaithea gatik. *Pater* eta *Ave*.

Eskerrak eta laudoriak derazkitzut beregainki eta neure bihotz guztiaz, o ene launa, eta ene lainkoa, zeure seme launa gizonzeko misterioa gatik. *Pater* eta *Ave*.

Finean eskerrak eta laudorioak derazkitzut, o lainko ona, ene edo berzeren faboretan egin eta eginen ditutzun ungi guziak gatik. *Pater* eta *Ave*.

Meza hastean

Iainkoaren amorioa nola baita neurririk gabea, hala frogak bethi emeiten derazku, eta beregainki bere pasione sinduaren orhoitzapen digne hunetan gure bekhatuen desegiteko moiana berak gure gatik ordenaturik. Ea beraz ene arimaren salbatzaille dulzea, odolezko sakrifizioaren memoria pitztea gatik denaz geroz odolik gabeko sakrifizio hunen ofrenda, arren ene arimaren salbamendutan orhoitzapen hunek odolezko sakrifizio haren merezimenduak ene gogora bitza meza saindu hunetan orduko berthutez ni behar bezala baliatzea gatik. Biz hala.

Meza arraitean eta noiz nahi erraiteko misterioak

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk ene gatik sorthu zinen ondoan iuduen legearen arauera zirkunzisionean isuri zenduen zeure odol preziatua gatik, eta othoitzez nagotzu orduko

sentimendu handi hura gatik othoi eman diazadazun gorputzari eta arimari narrio emen diazoken guziaren desegitekko grazia. Halaber, o launa, ene ahaideak, adiskideak, giristino prestu guziak eta purgatorioko arimak zeure miserikordia saildua gatik misterio hunetako ontasunaz goza beitea. Biz hala. *Pater* eta *Ave*.

Bigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, Getsemani-ko baratzean tristeza odol ezerditan zeneundela zeure gorputzetik isuri zenduen odol preziatua gatik; eta othoitzez nagotzu orduan sentitu zenduen tristezia handi hura gatik eta odol isurze haren balioa gatik othoi eman dizadazun neure bekhatuez halako urrikimenduaren izaiteko garazia, non zure odolezko izerdi haren ordainnik ere dolore hutsez isur dezadan neure begietarik ur eta nigar halaber, o launa, lehen bezala.

Hirurgarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzailea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, iuduek biza-

rra buruko xerloekin batean athera zeratzutenean, bisaia behera eta ahotik isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoizez nagotzu odol saindu haren balioa gatik eta zuk orduan sentitu zenduen dolore handi hura gatik nahi deratazun neure bekhatu guztien barkhamendua eman eta bekhatu hek gatik merezi ditudan gaztigitarik plazer nauzun libratu, halaber, etc.

Laugarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, Pilatusen manuz harroin batekin lothurik azote kolpez zeure gorputz sakratua soldaduek desegin zeratzutenean isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoitzez nagotzu orduko dolore handi hura gatik eta bilhakatze haren balioa gatik nahi duzun ene arima infernutik begiratu eta ni neror ene izterbegien, ixilen edo agerien eskuetarik salbatu, halaber.

Borzgarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, iuduek

zeure gorputz preziatua zauriturik, guzia odole-
tan odola gorputz guzirik zeritzula doloratua
zineneko pena hek gatik, eta guziz Pilatusek
hunelakaturia erakustean iuduen artean eman
zeratzun laidoa gatik. Othoitzez nagotzu orduko
orhoitzapenaren faboreak gatik zeure begien
aitziniko gai egin diazadazun neure arima, eta
neure bekhatu guziez penitentzia egieko garzia
zuk eman diazadazun, egun batez ni ere horra-
tzea gatik. Halaber.

Seigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta
laudorioak erren datzen derazkitzut, soldaduek
makhila kolpez aranze puntak hezurrian barre-
na sarthurik, eta aranzezko khoroz zeure buru
benedikatua zaurthurik isuri zeitzun odol prezia-
tua gatik. Othoitzez nagotzu odol saindu haren
kausaz eta ordu hartan iragan zenduen dolore
handi hura gatik nahi deratazun eman bihotzez-
ko urrikimendu bat eta urrikimendu haren pun-
taz neure arima hain bortitzki zaurthu, non
egiazko penitentzia egiten dudala loriazko khoroa
ardiets dezadan zeruko erresuman. Halaber.

Zazpigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudoriakeren datzen derazkitztu, gurutzeak berze urkha batek bezala zapaturik zeure gorputz ehoaren, zehatuaren eta zaurthuaren zaurietarik isuri zeratzun odol preziatua gatik; orduan gurutzearn karga soberak lurrera egozten zinituen eta iudu kurelek soka batez tiraka eramaiten zinituzten.

Othoitzez nagotzu odol preziatu haren merituak gatik eta orduan sentitu zenduen dolore handi hura gatik eman nahi deratazun mundu hunetako gaitzak onak bezala gogo onez harzeko indarra atsekabetan bezala gero konsolamenduetan ere parte eternalki izaitea gatik. Halaber.

Zorzigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak derazkitzut, zuk Kalbariako mendian arropa haragiarekin lothua eraunztean isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoitzez nagotzu orduko pena pairatuen seiñaletan nahi deraztatzen neure bekhatuak barkhatu eta zure aitzine-

ra iuiatzera nathorreanean plazer nauzun zeure miserikordiaren kapaz estali. Halaber.

Bederatzigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk Kalbariako mendian burdinazko itze handi batez zeure esku ezkerra gurutzearekin soldaduek itzatu zeratzutenean isuri zenduen odol preziatua gatik. Orhoitzez nagotzu orduko martilu kolpek egin zeratzuten dolorea kontutan othoi har dezazun zik neure eskuz egin ditudan bekhatuak barkhatzea gatik. Halaber.

Hamargarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk zeure esku eskuña gurutzearekin itze punta khamuts batez itzatu zeratzutenean zilho hartarik isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoitzez nagotzu odol isuri haren balioa gatik eman diazadazun halako garazia, non ene borondateak eta ene lan guztiak agrada dakizkitzun; hunetarakotz othoi zeure beldurtasunaren itzeaz gorputza eta espi-

ritua etza diatzadatzu; eta halako moldez lo eta ios nazazu gurutzean, non ene desirapenen oiñak eztaitean behaztopa, aitzitik zure borondatearen arauera bethi bizi nadin. Halaber.

Hamekagarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk, zeure eskuñeko oiña soldaduek gurutzean bortizki itzatu zerarzutenean, isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoitzez nagotzu zilho hartarik isuri zeitzun odolaren merituak gatik eta orduko penek eman zeratzuten oinhazea gatik nahi deratazun niri ere neure bekhatuez barkhamendua eman. Halaber.

Hamabigarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk, zeure gorputzeko zainak ethenzen zerazkitzutela, soldaduek zangoak luzatzean isuri zenduen odol preziatua gatik. Othoitzez naotzu neure arimako gutizia guziak zeure gana tira diatzadatzun

zeure garazia sainduaz ene obra guziak kutsatzea gatik. Halaber.

Hamairurgarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk zeure gorputz sakratua soldaduek gurutzearekin batean alxatu zeratzutenean, eskuetako eta oiñetako zauriak gorputzaren balenzaz gaizkoaturik eta handiturik isuri zenduen odol preziatua gatik. Odol preziatu haren merezimendua gatik eta zuk orduan pairatu zenduen dolore handi hura gatik, othoi eman diazadazu lurreko gauzetarik halako moldez apartatzeko garazia, non zerukoetara bethi espiritua alxatzen dudala, hetan ezar dezadan neure bihotza eta neure kontentamendu guzia. Halaber.

Hamalaurgarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zeure bihotza doloreak arraillatu zeratzunean isuri zenduen odol preziatua gatik eta orduan zuk egin zenduen ordenua gatik. Odol preziatu haren berth-

tea gatik; Ama Birjina ganako amorioa gatik; gurutzeko ohoinari parabisua amaitean egin zenerokan garazia gatik; Aita Eternalari bekhatoreak gomendatzean egin zenerokun faborea gatik; orduko ordenu aberats hura gatik eta zuk konplitu zenduen lan handi hura gatik, othoi zeure miseriakordia sailduaz dohatsuen arteko ordena nazazu, konserba nazazu eta errezibi. Halaber.

Hamaborzgarren misterioa

Iesu Kristo ene salbatzaillea, eskerrak eta laudorioak errendatzen derazkitzut, zuk zeure saihetsetik Longis soldaduak bere dardoaren puntaz zu gurutzean hilez geroz zilhatu zinitue-
nean isuri zenduen odol preziatua gatik. Orduko odol isurze balioso hura gatik zaurt diazadzu othoi neure arima zeure amorioaren dardoaz eta sar nazazu parabisuko lorian, zeinen athea ideki baitzenduen zeure saihetsetik zeure odol preziatua isurtean. Halaber. *Pater, Ave, Credo, Gloria Patri, Requiem.*

Aita lainkoari othoitzza, meza erraitean

Aita eternala! zure seme bakoitzaren pasio-
nea deklaraten da mezako sakrifizio hunetan.
Noiz-eta eliza sainduaren intenzionearekin
batean sakrifizio benedikatu hunetan sakrifika-
tzaille apez hunek gure bekhatuen satisfazino-
tan ofrendatzen baiteratzu zeure seme launa
gurutzean hoben gabe gure bekhatuak gatik
itzatu zutena. Aita handia, hau da bildots eme
hura! Hau da zure eta gure artean bakea ezarri
zuen gizona! Hau da hobenik gabe pairatu duen
launa! Hau izan zen eskuetan eta oinetan itza-
tua; aranzezko khoroz buruan zilhatua; azote
kolpez larruturik zathikatua; burutik oinetaraino
odolztatua; alde guzietarik penaz eta dolarez
inguratua; guztiz desegina eta gizoanaren figu-
rarik ezpa iduririk etzuen bezalakatua. Hau
zegoen gurutzean burua beheitaturik; begiak
zerraturik; begitarte horiturik; saihetsa idekirik;
besoak zabaldurik; zangoak hedaturik; zauriz

betherik; thuz bisaia sakratua lohiturik, ukhabila-
koz larrua lebaturik, zainak odol hausturik;
ezpaiñak karmindurik, bihotza khexorik eta
mienbro guztietan terribleki deseginik. A! Karita-
te handia! Ontasun pare gabea! Amorio miraku-
lluzkoa! Huts egiten du zerbitzariak eta haren
partez pagatzen du nabusiak. Gizona gathibuta-
susetik libratzea gatik bere bizia emaiten du
lainkoaren semeak hobenduriak merezi dituen
gaztiguak pairatzen ditu hoben gabeak. Bekha-
turik egin eztuenak eta ezin egin ere dezakeie-
nak hartu ditu bere gainera munduko bekhatu
guztiak. Aita iustua eta aita pietatezkoa! beha
diazaozu pietatezko obra handi huni: beha diazo-
zu hunen baliotasunari: beha ezazu zer eta zen-
bat merezi duen zure aitzinean dolorezko herio-
tze hark. Hau da ahal datekeien ofrendarik balio-
sena eta bai zure gogarakoena ere. Hau da
zorraren pagamendua baino gehiago millatan
pairatu duena. Ea beraz aita zerukoa, errezibi
ezazu sakrifizio hau begitarte onez, eta geure
indignetasuna gatik eztiaguzula haren fruitua

errefusa, aitzitik duzun othoi gure bekhatuen gainean miserikordia eta pietate. Barkha diatzagutzu guk egin ditugun hutsak eta khien diatzagutzu merezi ditugun gaztiguak.

O Aita eternala! gomendatzen derazkitzut munduko estatuak eta nezesitateak hala espiritualak nola tenporalak. Gomendatzen deratzut aita saindua zeure bikarioa, elizako berze superioroak eta gobernariak. Gomendatzen deratzut gure errege launa, prinze giristinoak, herrietan kargu dutenak, gure haurrideak, ahaideak, adiskideak eta ungigile guztiak. Gehiago, o launa, konberti itzatzu bekhatorea, konsola itzatzu tristeak, senda itzatzu eriak, fabora itzatzu beharrak, eta salbamenduko portura hel itzatzu itsasoan dabilzanak. Fede saindura ekhar itzatzu paganoak, bidera itzatzu errebelatuak, begira gaitzatzu gaitzetarik: eman diazaguzu geure denboran bakea; eta giristino fidelen arimak purgatorioko penetarik athera itzatzu; finean eman diazadazu zure zerbitzu saindian bethi enplega-

tzeko garazia, bizitze hunen ondoan parabisuko loria ardieste gatik. Biz hala.

Mezako benedizinoa harzean

Aitak, semeak eta Espiritu sainduak gaitzeta-rik begira ditzala, eta defuntuen arima leial guziak sekulako pausura eta loriara ditzala bere miserikorkiaz. Biz hala.

Mezondoko othoitzza

O Iainko guziz sabanta eta enze guziaz laudatzekoa, othoitzez nagotzu, arren ene egungo zerbitzua agrada dakizun: ezen zu ohoratu nahiz enplegatu naiz gutxienik, eta zutzaz lekhora, Birjina Maria zure Ama andrea laudatzea gatik; egungo eguna ezagutzea gatik; neure bekhatuen barkhamendua gatik; zuri, Iainko handia, neure burua, nola gogoa, adimendua, memoriaa, errana, eginak; urratsak eta berze gainerako guziak gomendatzea gatik; neure unigigileez

othoitz egitea gatik; biziak eta defuntuak lainkoaren faboreaz gozaraztea gatik, eta guziz lesu Kristo launa, zu zeror lorifikatzea gatik. Bitartean debozinorik gabe egin dudan gauza guziaz miserikordiaz har nazazu, eta eman diazadazu zure manamenduak zuhurki begiratzeko dohaina zu fidelki bethiere zerbitzeagatik laudatzea gatik eta ohoratuki adoratzeta atik. Biz hala.

DABITEN ZAZPI SALMO PENITENZIAZKOAK EUSKARAZ

*Eriak galdegiten du osasuna,
bere faltak gatik urrikitan dela,
khenzen zaika bere pena eta berzeak ere
gonbidatzen ditu hark berak bezala egitera.*

launa, ez nazazula zeure haserrerik gaitze-
nean korregi: eta ez nazazula zure koleraan
zenza.

Aitzitik, launa, duzun nitzaz pietate, ezen eria
naiz: senda nazazu, launa, ezen flako naiz.

Ene arima tinketz izitua da: baina zuk, launa,
noiz artean utziko nauzu?

Bihur zaitea, launa, eta begira ezazu ene
arima: salba nazazu zeure miserikordiaz.

Zeren ezpaita heriotzean nihor zutzaz orhoi-
tzen denik: bada ifernuan nork ungi erranen
zaitu?

Nekhatu naiz neure dolamenean, bustiko dut gau guziaz neure ohea: neure nigarrez trenpatuko dut neure etzaunza.

Haserre hutsez nahasi zait begia: neure etsai guzien artean zahartu naiz.

Ordea gaizkigile guziak orai ene ganik aparta zaitetzte: ezen iaunak enzun du ene nigarren erasia.

Iaunak enzun du ene othoitza. Iaunak errezi-bitu du ene orazinoa.

Ene etsai guziak ahalka beitea eta ikhara beitea handiro: konberti beitea eta ahalka beitea berehala.

Loria Aitari, eta Semeari, eta Spiritu sainduari.

Nola baitzen hastean eta orai eta bethiere eta mendez mende. Biz hala.

*Bere bekhatuez ezautza eta
urrikia duen bekatoreari
Iainkoaren miseriordia etzaika faltatzen.*

Dohatsu dira bere faltak barkhatu zaiztenak eta bere bekhatuek borratu zaiztenak.

Dohatsu da lainkoak bekhatutan akusatzen eztuen gizona, eta bere gogoan engainorik eztuena.

Ni neure faltak estalzen nituen denbora guzian flakatuaz nindohan, eta bethi egun guzian iharzen ninzen marraskaz.

Eta zeren gerotik gerora gau eta egun zure eskuak gaztigatzen baitninduen, eta zeren neure faltarren harra bihotzean alha baitzeitan, ihartu naiz.

Azkenekotz erakhutsi deratzut neure bekhatua, eta ezterazut estali neure bidegabea.

Eta nik erraitearekin batean: launari neure kontra kofesatuko diot neure hobena; zuk pontuan barkhatu deratazu neure bekhatua.

Halakotz gizon saindu guziak othoiztuko zaitu ene exenpluz nik bezalako garazia behar orduan ardiestea gatik.

Sobera ofensatua gatik ere uholde handi batetarik bezala laborik eta kitorik atherako da.

Zeren zu baitzara inguratzen nauen dolorea-
ren erreparua: ene bozkarioa, inguru harzen
nauten etsaitarik begira nazazu eta libra.

Eta zuk ihardetsi deratazu: emenen deratzut
adimendu eta irakhatsiko deratzut nola goberna-
tu behar zaren: eztut begirik zure ganik aldara-
tuko.

Solamente etzarela zamaria eta mandoa
bezala adimendu gabe.

Kaprestuaz eta bridaz hers itzatzu heken
sudupilak; zure gana ez hurbiltzea gatik.

Bekhatoreari hainitz azote dagoka; baina
launa baithan esperanza duena miserikordiak
inguratuko du.

Iustuak allegera zaitezte horrelako launa izai-
teaz eta boztatea erakhuts ezazue: eta bihotz
arteza duzuen guziak launa baithan lorifika zai-
tezte.

Loria Aitari, eta Semeari etc.

*Bere bekhatuak gatik malenkoaniatuak
duen pena eta othoitza.*

launa, eznazazula zeure haserrerik gaitze-
nean korregi, eta eznazazula zeure kolera
zena.

Helas! zure tzagazak baditxeskit: eta zure
gaztigua bortitzki sentitzen dut.

Eztaite zure kolera dela kausa ene haragian
osasunarik ediren;; ene bekhatuak direla ezta
bakerik ene hezurretan.

Ezen ene gaixtakeriek ene burua xitu dute:
eta karga pisu bat bezala zapatzera gainera zaiz-
kit.

Ene zauriak usteldu eta usaindu dira: ene
erhakeria dela kausa.

Miserabletu naiz eta uzkurtu estrainioki:
egun guzian tristetua badirudit lurra.

Ezen ene errainak liluramenduz betheak dira:
eta ene gorputzeko osasuna galdu da.

Tristetua eta sobera ezdeustua naiz: neure
bihotzeko inzirinek eta hatsbeherapenek ahalka-
tzen ninduten.

launa ea dakhusazu ene desira guzia: eta
ene hatsbeherapena zure begietan da.

Ene bihotzaren barreneko iazarria bortitza da, eta neure indarrak utzi nau, neure begietako bistak halaber, dolore soberak itsutu nau.

Ene adiskideak eta hurkoak ene kontra iaiki dira, eta aldean ditudanek berdin ez naute kon-solatzen.

Ene arrasekoak lurrundu dira, eta ni hil nahiz zebilzanak muthiritzen ziren.

Eta gaitz nahi zerotatenek ezteuskeriak erran dituzte, eta egun guzian malezia pensatzen zeuden.

Ordea nik alea ni gor ez nuen deus aditzen: eta alea ni mutu ahorik ez nuen ideiten.

Eta gizon aditzerik gabea bezalakatu naiz: eta bere ahoan errezellurik eztuena bezala egin naiz.

Zeren zutan, launa, esperanza bait nuen; neure lainko launa zuk enzunen nauzu.

Zeren erran dudan: ene ganean ene etsaiek irririk sekulan eztagitela: ezen ni estorbastzeaz añañhitz darasate.

A! ene bihotzeko lainkoa, azote kolpeak pairatzera ni prestatua nago eta neure hobenak gatik ardura begietan dut ondikoa.

Helas! launa, nik adiaraziko deratzut neure gaixtakeria, eta gehiago bekhatuik ez egitera kargutan edukiko dut.

Baina bitartean ene izterbegiak bizi dra, eta ene kontra azkartu dira: eta ni desarrazoinki gaitzesten nautenak berretu eta hainiztu dira.

Ungia gatik gaitza emeiten dutenek gaizki konpartitu naute: zeren ungi egiteari narraiean.

Hanbatenarekin ene lainko launa eznazazula utz, etzaiteala ene ganik hastan.

Aitzitik bertan niri lagunzera balaka eta khexa zaitea, ene osasunaren labea eta ene konsolamenduaren lainko launa.

Loria Aitari, eta Semeari etc.

*Bere bekhatua bekhatoreak
perfetuki ezaguturik
eta miserikordia galdegitea gatik
othoitz debota.*

Urrikari nauzun, lainko handia, urrikari nauzun zeure mmiserikordia handiaren ereduaz.

Eta zeure urrikalzetasun hainitzen eredura iraungi itzatzu ene bekhatuak.

Garbi nazazu bada neure lohitasunetik: eta nerue bekhatutik aratz nazazu.

Ezen badazagut neure bidegabea, eta ene kontra bethi da ene bekhatua.

Zu zerorren kontra huts egin dut, eta zure begien aitzinean halako gaixtakeria higuñaren egitera eztut dudatu: halarik ere launa egidazu garazia, zeure hitzaren labe leial berzela erran nahi zinitzketenen aitzinean ezagut zaitezin: ezen bekhatore penitentei agindu deratuzu bar-kamendua.

Helas! Zuk badakizu nothan konzebitua naizela eta halaz hutskor naizela: ezen neure amak bekhatutan konzebitu nau.

O Iainko ona! Ene bihotzeko arteztasuna zeren eder zaitzun, zeure zuhurziaren sekere-tuak erakhutsi deraztatzu eta nik hondatzeko-rrek zure amorioarn kortesia eztut ezagutu.

Guztiarekin ere, launa, othoi ene bihotzeko lohidura guzia eta tatxa guzia borra ezazu, eta orduan elhurra baino xuriago izanen naiz.

Neure bekhatua barkhatu zaitalako berri on bat adiarazirik allegera nazazu, eta zure iuiamenduen beldurrez desegin zaiztan indarrak allegeratuko dira.

Ene bekhatuetarik aparta ezazu zeure bisaia, eta ene ofensa guziak desegin etzatzu.

O ene kreatzaillea, bihotz garbi bat nitan krea ezazu: eta neure baithan barrena espiritu artez bat eman diazadazu.

Ez nazazula egotz zeure baitharik eta eztiadzadazula khen zeure espiritu saindua, zein baita lainkoaren haurren seiñalea.

Aitzitik zure ganik osasuna izanen dudalako esperanzak derautan allegerantasuna bihur diazadazu, eta espiritu prinzipal batez bortitzturik segura nazazu.

Hunelako garazia egin daraukedazunean irakatsiko derautzet gaixtaginei zure bideak, eta ikhasiko dute nola nihor zure-ganutzen den: eta ene lehiaz bekhatoreak. zure gana konbertituko dira.

O lainkoa, ene osasunaren lainkoa, odolik isurzetik begira nazazu: eta ene mihiak allegera-

ki erranen du zure iustizia eta zure ontasun infinitua.

Helas o launa! hanbat neure hutsak flakatu nau, non ozta minzo baitnaiz: ordea zuk, launa, zeure urrikaritasunaz eta eztitasunaz ideki itzatzu ene ezpainak eta ene ahoak bazterretan adiaraziko du zure laudorioa.

Guziarekin ere berzelako sakrifiziorik plazer izan bazendu, segur eman nerokezun; ordea zuk eztuzu atseginik harzen holokaustak deitzen diren sakrifizioetan.

Iainkoari agradatzen zaikan sakrifizioa da espiritu damuz sentitua eta penitenziaz garbitua: egiaz Iainkoa, urriki handiz zaurthua den bihotz bat eta humiliatu bat eztuzu gatzetsiko.

launa zerue afizino saindua eta borondate ona kontinua diazozu zeure elizari: zure krianzaz eta irakhatsmenduz Ierusalame saindaren ohoretan irautea gatik.

Orduan bihotz iustuen eta bekhatutik xahutuen sakrifizioak eta ofrendak onzat hartuko dituzu: orduan behien eta aratzen orde laudorioak eta eskerrak ofrendatuko derauzkitzute.

Loria Aitari eta Semeari etc.

*Ondikoetarik eta atsekabetarik libratzea gatik
penitent onak humilki egiten duen othoitza.*

launa enzun ezazu ene orazinoa; eta ene
deihadarra zure ganaiño bethor.

Eztezazula ene ganik zeure bisaia aparta:
aitzitik gaizki naizen guzian enzun nazazu.

Othoiztuko zaitudan guziaz laster enzun
nazazu: eta fabora nazazu.

Ezen ene egunak ioan dira nola khea: eta
atsekabek ene gorputza sekatu dute ilhetien
berotasunak sukhaldea nola.

Ene bihotza ondikoaren beroak zehaturik xiz-
kaildu da zuhaina bezala: ezen gaitzak dolorez
gaindi eraginik ianhariaren harzea ahanzi zeitan.

Bethiereko marraskek eta inzirinek herbaldu
naute: ozta hezurak haragiari ditxezka.

Desertuan bakharrik dagoen pelikanoa beza-
lakatu naiz: eta jenden bistatik zilhoetan gorde-
tzen dela ihesi dabilan hunza dirudit.

Neure bekhatuen oinhazez ezin nihon sosegatuz iratzarria egotu naiz: eta teilla gainean suelto dagoen eliza-zoria bezalakatu naiz.

Ene etsaiak egunak dirauen guzian liskarrez eta gaizkiz dagozt, eta leheneko ene ungi erailleak orai ene kontra arnegatzen dutela nitzaz trufatzen dira.

Helas! gaitzak hain terribleki desegin nau, non iaten dudan guziak ezpaitarot hautsak lero-kedan baino gozo gehiago: eta neure edaria nigarrez trenpatua edaten dut.

Eta hauk guziok hunekila gerthatzen zaizkit zure haserretasuna dela kausa: ezen behin alxatu nauzu gora, eta gero eraitzi nauzu behera.

Iguzkia etzitea gatik itzalak hondatzen diren bezala ene egunak ioan dira eta zuhaina bezala zimaildu naiz.

Ordea zuk launa, bethi estante batean irauten duzu: eta zure orhoitzapena generazinoz generazino.

Zeure eliza urrikaldurik, zu, launa, aldetu zaizka: ezen ephea bethe denaz geroztik ontasun egiteko diozu.

Segur aspaldi harri biziz egina zure zerbitzari-
rik ikhusi nahi zuten: eta eliza hunetako jende-
tarik galzeaz damu dute.

Orai nekhatzen gaituzten jendeak, orduan
zure izenaren beldur izanen dira, eta errege
guziek ohoratuko dute zure maiestatea.

Ezen launak egina da eliza, eta guziek bere
handitasunean eta lorian ezagutuko dukete.

launa, jende penatuen othoitzari behatuko
zaizko: eta heken demanda eztuzu menesprezia-
tuko.

Ethorkizuneko generazinoa abisatzea gatik
gauza hauk eskiriba beitea: eta gizonaren ume
guziek launa laudatzea gatik.

Iadanik bere lekhu gora hartarik behatu du:
launak zerutik lurrera behatu du.

Zepoetan direnen inzirinak enzutea gatik: eta
hilzera iadanik kondenatuak salbatzea gatik.

launaren izena elizan laudatzea gatik: eta
haren laudorioa Ierusalame sainduan publika-
tzea gatik.

Hala gerthatuko da jendeak elkhar gana dai-
tean: eta erregeak launa zerbitzatzea gatik biri-
bila daiteanean.

Baina bitartean ene dohakabea! Ene ahalak eskasten dira: eta ene egunak, nola gutiak baitira, ardietsi hurran dira: hargatik erranen diot.

Neure lainkoa! Neure bizitzearen erditik ez nazazula deit, aitzitik neure egunak berret diazadatzu, berdin zure egunak konturik gabeak dira, eta zure urtheek eztute akhabanzarik.

Mundua hastean, o launa, zuk egin zinituen lurraren zimenduak: eta zeruak dira zure eskuen obrak.

Hauk mudatuko dira, eta zuk hala plazer baduzu, galduko eta hondatuko dira: baina zuk bethi iraunen duzu; eta hek guziak beztidura bezala ihetzetuko dira.

Gizonak nola bere abilamenduaak mudatzen ditu, hala mudatuko itutzu eta mudatuko dira: baina zu bat bethi zeure estantean zaude, eta zure urtheak dira finik gabeak.

Eta zu nola sekulakotz eternalki baitzara, hala zure sehi fidelek bere sekulako loria irabaziko dute.

Loria Aitari eta Semeari, etc.

*Bere bekhatuak gatik penatuak othoitzza,
konsolatzen dela lainkoaren
miserikordia ustatuan.*

Neure bekhatuak gatik eta zuk ene kontra
duzun kolera gatik dolorez bethea dudan biho-
tzetik oihuz nagotzu launa: launa, enzun ezazu
ene othoitzza.

Ene othoitzaren premia enzutera erna zaitea.

Nihoren faltak mendekatzera bazaitea, nork
iraunen du zure aitzinean zuk terribleki punitu
gabe?

Ordea nola miserikordiazkoa baitzara, hala
esperanza dugu urrikalduko gaizkitzula: ezen
berzela ene gaizkiak gatik nik pairatzea ezlizate-
ke asko.

Ene arima launaren begira dago; eta launa-
ren garaziaren esperanzan. Ene arima launaren
hitzean fidatu da: ezen promes deraue peniten-
tei barkamendua, eta haren baithan esperanza
dutenei agindu deraue fabore.

Goiz-loaren begira gau guzian iratzarririk
daudenak eztira hain gogotik egon behar, nola

lainkoaren publuak launaren ethorzearen eta sokorrimenduaren begira egon behar baitira.

Ezen gizon guzien gaixtarasuna baino launaren ontasuna eta miserikordia handiago da; eta gu erostea gatik deus eztu soberesten, ez eta bere odola ere.

Eta hunek bere publu guzia gaixtarasun guzietarik begiratzen du.

Loria Aitari eta Semeari etc.

*lainkoaren miserikordiaren eta barkhamendu
supitu baten errekeritzea
bere etsaien eskuetara ez erorzea gatik.*

launa enzun ezazu ene orazinoa eta adi ezazu ene othoitza, eta zuk zeure aginzetan duzun fideltasunaz zeure ontasuna gatik eta zeure iustutasuna gatik eman diazadazu neure eskanza humilla.

Bizkitartean zeure zerbitzariaren kontra etzaiteala iuiamenduan iustiziaz ioka: ezen munduko sainduenak ere ez leakike zure gorthean bere burua defenda.

Halako gisaz o launa, zure aiutaren premia badut: alde ezpazakizkit, neure etsaia hil nahiz terrible darrait, eta lurpera bidaldu hurran deraut neure arima.

Ilhunbepera errendarazi nau eta ia aspaldi hila bezala non naizen ez naiz ageri: eta neure espiritua doloratzen dut eta neure bihotza tormentatzen.

Guziarren orhoitzen naiz zure miserikordia-
ren obrez eta zure mirakulluak bethi gogoratzen zaizkit.

Halatan guzia konsolatua bezala, eskuak zure gana hedatua nago: eta agorte handietan uraren eske lurra dagoen bezala, ni ere rzure faborearen othoitzea bethi nago.

Khexa, zaitea bada, launa, fabore hunen niri emeitera: ezen kerri hutsez, hil hurran naiz.

Iraungi ezazu ene kontra duzun kolera eta pietatez beha diazadazu; ezperetanik hil batek bezan bat balio dut, launa.

launa sentiaraz eta erakutsaraz diazadazu neure baithan zeure miserikordia eta eztirasuna: ezen zu gabe ni deus ez naizenaz geroz, zutan dut esperanza.

Irakhats diazadazu neure etsaien arterio gaixtoetarik itzurzeko nolatasuna eta xuxen zure gana ethorzeko bidea.: ezen ene arima bere amoriorik gehienaz zure gana lehiatzen da.

Neure etsaietarik begira nazazu launa, ezen zure gana ihes egiten dut: irakhats diazadazu zuk plazer duzun guziaren egiten: ezen zu zara ene lainkoa.

Othoi zure espiritu onak eta emeak zure ganako biziaren bidez goberna naza: eta zure izena gatik eta zu laudatua izaitea gatik othoi heriotzeko periletik zuzenki libra nazazu.

Tristezia handi hunetarik athera ezazu ene arima: eta zeure ontasunaz eta niri derautazun faboreaz desegin itzatzu ene etsaiak.

Eta ene arimaren nekhari guziak gal eta honda itzatzu: ezen zure zerbitzaria naiz.

Loria Aitari eta Semeari etc.

launa, etzaiteala orhoit gure delituez edo gure ahaidenez; eta eztezazula mendekurik har gure bekhatuez. Barkha diazazu, launa, barkha diazazu zeure publuari: ezen zuk zeure odol preziatuaz erosi duzu, etzakitzala haserre.

LETHARINAK

launa barkha diazaguzu.

launa pietate gutzaz euzu.

launa adi gaitzatzu.

launa enzun gaitzatzu.

Zeruetako Aita Iainkoa, urrikal gaikizkitzu.

Munduaren salbatzaille seme Iainkoa, urrikal
gakizkitzu.

Espiritu saindu Iainkoa, urrikal gakiz.

Trinitate saindua, Iainkorik bat, urrikal.

Maria saindua, othoitz guretzat egizu.

Birjina guzien gaineko Birjina saindua, othoitz
kguretzat egizu.

Iondone Mikele, othoitz guretzat egizu.

San Gabriel, othoitz guretzat.

San Raphael, othoitz guretzat.

Aingeru eta arkangelu saindu guziak, othoitz
guretzat egizue.

Espiritu dohatsuen ordenanza saindu guziak,
othoitz guretzat egizue.

Iondone Ioanniz Baptista, othoitz guretzat.

Profeta saindu guziak, othoitz guretzat egizue.

londone Petri, othoitz guretzat.

londone Paulo, othoitz.

San Andreas, othoitz.

londone lakue, othoitz.

San Philipo, othoitz.

San Thomas, othoitz.

San Barthelemi, othoitz.

San Simon, othoitz.

San Tadeao, othoitz.

San Mathias, othoitz.

San Barnaba, othoitz.

San Luk, othoitz.

San Mark, othoitz.

Apostolu eta ebanjelista saindu guziak, othoitz.

launaren kdiszipulu saindu guziak, othoitz.

Inozent saindu guziak, othoitz guretzat.

londone Eztebe, othoitz.

londone Laurendi, othoitz.

londone Vinencio, othoitz.

San Fabian eta san Sebastian, othoitz.

londone Ioanniz eta Paulo, othoitz.

San Cosma eta San Damaiano, othoitz.
San Gerbasio eta Protasio, othoitz.
Martiro saindu guziak, othoitz guretzat.
San Silbester, othoitz.
San Gregorio, othoitz.
San Ambrosio, othoitz.
San Agustino, othoitz.
San Ieronimo, othoitz.
Iondone Martia, othoitz.
San Nikolao, othoitz.
Ipizpiku eta kofesor saindu guziak othoitz.
Dotor saindu guziak, othoitz.
San Benedikto, othoitz.
San Antonio, othoitz.
San Bernat, othoitz.
San Domingo, othoitz.
San Franzes, othoitz.
Apez eta lebita saindu guziak, othoitz.
Fraide eta hermitau saindu guziak, othoitz.
Santa Maria Madalena, othoitz.
Santa Anna, othoitz.
Santa Agatha, othoitz.
Santa Lucia, othoitz.
Santa Agnes, othoitz.

Santa Cecilia, othoitz.

Santa Katalina, othoitz.

Santa Anastasia, othoitz.

Birjina eta alhargun sainda guziak, othoitz.

Iainkoaren saindu guziak, othoitz.

Urrikari gaitutzun, barkha diazaguzu launa.

Urrikari gatutzun enzun gaitzatzu launa.

Gaitz guzitik, begira gaitzatzu launa.

Bekhatu guzitik begira.

Zeure koleratik, begira.

Heriotze supitutik eta ustekabekotik, begira.

Deabruaren menetik, begira.

Kolera, herra eta borondate gaixto guzitik,

begira.

Haragizko bekhatura pensatzetik, begira.

Ozpinaren eta zupernaren periletik, begira.

Sekulako heriotzetik, begira.

Zeure inkarnazione sainduaren misterioaz,

begira.

Zeure ethorzearen berthutez, begira.

Zeure sorzearen berthutez, begira.

Zeure bathaioaren eta barur sainduaren bert-

hutez, begira.

Zeure gurutzearen eta pasionearen berthutez, begira.

Zeure heriotzearen eta ehorztearen berthutez, begira.

Zeure pitzte sainduaren berthutez, begira.

Zeure zeruratze espantuzkoaren berthutez, begira.

Espiritu saindu konsolatzaillearen ethorzearen berthutez, begira.

Iudizio egunean, begira gaitzatzu launa.

Bekhatoreok, othoi adi gaitzatzu.

Guri zuk barkhatzea gatik, othoi.

Egiazko penitenziara zuk gu gidatzea gatik othoi.

Zeure eliza saindua zuk erregitzea gatik eta begiratzea gatik, othoi adi.

Apostoluen estatua eta elizako ordenanza guziak zuk lege sainduan begiratzea gatik, othoi adi.

Eliza sainduaren etsaiak zuk humilzea gatik, othoi adi.

Erregei eta prinze girstinoei zuk bakea eta gizako arrunkidetasuna emaita gatik, othoi.

Giristino herri guziari zuk bakea eta batasuna
emaitea gatik, othoi.

Gu gerok zuk zeure zerbitzu sainduan finka-
tzea gatik, othoi.

Gure adimenduak zeruko gauzak desiratzera
zuk moldatzea gatik, othoi.

Guri ungi egitenb derazuten guziei zuk on
eternalak emaitea gatik, othoi.

Gure arimak, gure anaia lagunetak eta guri
ungie egilenak zuk sekulako damnazinetik begira-
tzea gatik, othoi.

Lurreko fruituak zuk emaitea gatik eta begi-
ratzea gatik, othoi.

Gu zuk enzutea gatik, othoitez.

Iainkoaren semea, othoi.

Munduko bekhatuak khenzen ditutzun Iainko-
aren bildotsa, barka diazaguzu launa.

Munduko bekhatuak khencen ditutzun Iainko-
aren bildotsa.

Enzun gaitzatzu launa.

Munduko bekhatuak khenzen ditutzun Iainko-
aren bildotsa, egiguzu miserikordia.

O Iesu Kristo, adi gaitzatzau.

O Iesu Kristo enzun gaitzatzu.

O launa egiguzu miserikordia.

O launa egiguzu miserikordia.

Letharinak erran ondoko orazinoa

Iainko handia! aditu ditutzu gure othoitzak, ikhusi ditutzu gure borondateak, eta ezagutu ditutzu gure bihotzak. Othoi bada gure nezesitateak ikhus itzatzu, gure premiak ezagut itzatzu eta gure doloreak erremedia itzatzu. O ontasun egiten guziori prezatzen zaren Iainkoa! gure bekatuak gatik koleratu zara, baina zeure miserikordia infinitua gatik gure penitentzian pazega zaitea. Gure bidegabeak gatik iustizia egitera ernatu zara, baina zeure pazientzia iainkozkoa gatik gu konbertitzean guri barkhatzera zaitea. Gure banitateak gatik zeure aiuta denegatzera iarri zara, baina zeure berthuteak gatik geure emendatzean fabora gaitzatzu: eta hala egia izan date zuk zeure kreatura xeheak konsolatzen ditutzula, beharrei lagunzen zaiztela, zure baitan fidatuki bizi direnak salbatzen ditutzula, zeure fedekoei benedizino derauezula eta zure

gana konbertituak zure ganako zerbitzuaz erre-kompensatzen ditutzula. Ea bada urrikalzeko garen bezanbat urrikari gaitutzun: ezen zu zara Aita on hura semearekin eta Espiritu sainduarekin lainko bat eternala, eta iguzu lurrean sinhesten zaituguna zeruan ikhusteko garazia. Biz hala.

Arimaren iratzarmendu debota

Ene lainkoa! Ene Aita! ene amorioa! ene esposa eta ene guzia! zure amorioak kolpatu ezpanindu nola hitz hauk erran ahal nitzake?

O Iesus dulzea, munduko ohorea, zeruko eta lurreko kontentamendua! noiz zuk desiratzen nauzun bezalakatuko naiz eta zuk merezi duzun tornurako?

O Maria sainduaren ume saindua! o ene gatik ahuldu zaren bihotza! zer harrimendu da hau ene baithan? zu maitatzekoa zara, ederra zara, ona zara eta konplitua zara, guziak gatik ni zure maitatzera ez emana. Zu naitatu gabe bizitzea baino millatan hilzea ere hobeago da eta hala

zeure amorioaz zaurt nazazu salamandra bezala bethiere suaren erdian erre gabe ez egoitea gatik.

O Iesus gure arimen amorioa! amorioa gatik zu Kalbarian hil zinen eta Bethleengo hirian ere sortu. Zergatik bada zure baithan sorzea gatik zure amorioak neure baithan ez nau hilarazten. Gehiago egiten duenak gutiago badaidi eta hala gutiago hau ene baithan egin ezazu.

O amorio hasterik gabea eta eternala! zure maitatzea da bizitze eternala: zure laudatzea da gure eginbidea; bizkitartean, helas! ingratak gara eta hotzak: baina zuk neure burua zuri emaiten eztakidanaz geroz, zuk zerorrek har nazazu, eta zure naizenaz geroz zuk ereta nazazu. Ene ingratasunak gatik zu ene ganik apartatzea lizateke segur bidegabe handia; zeren eta miseriak eraman baitliazokeo abantailla miseri-kordiari; maleziak ontasunari; gaitzetasunak pietateari; ingratasunak garaziari; faltak barkhamenduari; finituak infinituari; eta ni naizenak zu zarenari. Niholatan hunelako manerarik ez balia.

Ona, ederra aberatsa, handia, emea, gozatsua eta konplitu zara zeure bardinik eztuzula:

nolatan bada ni banaloriei eta gauza kontrakoei
iarraiten natzaie? A! prezio guti du munduko
famak eta omenak jenden artean. Ezin munduak
nihor bere beharrean fabora dezake eta zuk hari
plazer eginagatik zure hark desplazer eginen
deratzu.

O Iainko handia! zure loria imortalez egin
behar da besta. Eta baldin munduko onen hon-
datzeak baino zure amorioaren galzeak dolu eta
dolore gehiago emaiten ezpaderau, a! ni bekha-
tore handia.

Ene bekhatuak gatik zu ene ganik apartatzen
bazara, zeri edo nori fidatuko natzaika? launa
etzaiteala zeure garaziaz ene ganik aparta eta ni
zure ganik ez nadila aparta, baina biok dadiza-
gun elkhar.

O ene arimaren iguzkia! zu begietarik galzen
zaitudanean eguna gau bilhakatzen zait. Orduan
neure kontra gaitz naiz eta berzek ezin soporta
nazakete. O ene desirapen bakharra! zuk zeure
amorioaz kolpatu baninduzu, bethiere zu zinitu-
ket gogoan eta bihotzean. Zu zinateke ene atse-
gina, ene solasa, eta ene bizia.

O ene amorio ezitia! zuk niri bezala nik zuri behinere unhatu gabe bethi beha baniazazu eta kontenpla bazinitzat.

O ene lainkoa! nik zure kontra huts egiten dudan pontuan Sathanak zure esperanzatik khenzea gatik eta zure baithako miserikordia galaraztea gatik ifernuko penetara egotzi nahi nau: ordea. o launa, hunelako itsuskeriarik eztezazula permeti.

Zeure iainkozko amorioaren tragaza sainduaz zuk behin neure bihotza iragan badiazazu, zuk baizen berzek ene baithan akzionerik eztu izanen.

Sorginek eta aztiek bere botherea deabruari emaiten derauela egiten dute milla gaixtakeria fuerte: abreak hilzen dituzte: uria, harria, baba-zua eta berze gauza estrainioak egiten dituzte, lainkoak gu punitzea gatik hala permetitzen derauen orduan. Zergatik bada ni zuri hanbategan eman ez geroztik zuk eta nik biok elkharrekin zure plazera gatik eta ene salbamendua gatik zenbait obra miragarrizko eztugu egiten?

Ene borondatea, intenzionea, libertatea, fakultateak eta emaiteko dudan guzia eman

deratzut. Nola, o launa, zu ongin baino hura gaixtaginago da? Nola, zuk ni zeure Aitaren goit-hiatzeko baino hark zure Aita hunen desohoratzeko indar gehiago du? Zuk ene salbatzeko baino hark ene galzeko karguago du?

Ene falta da eta ene hobena ni hunelako erre-kaitu gaixtotan erortea: Beraz zergatik ez naiz nigarretan urtzen? Zergatik ez naiz gehiagoko urrikiaren botherez sentitzen? O bizien eta hilen iuge iustua! gure kaltea gatik zure amorioa sentitzen da, eta hala gure gainean duzun miseri-kordia gu penetarik atheratzea gatik eta zu zeror satisfatzea gatik.

O ene desirik handiena! Zergatik ni neror baxharrik utzten nauzu? ni hunela deskonsolatu largatzeaz zuk zer loria izaiten duzu? ene atsekabeak gatik zuri zer gozo heldu zaitzu? Oilloak bere xitoak ahal bezanbat gaitzetarik begiratzea gatik bere hagalpean gordatzen ditu, eta nola zuk ni ez nauzu hain maite? Biotarik batak ganbiatu behar dugu, edo nik zure maitatzera, edo zuk, ez nik merezia gatik, ene harzera.

Sobera iharduki dugu, o launa, zuk niri ungi egiten eta nik zu gaizkiz pagatzen: zu niri iarrai-ki zaizkit, eta ni zure ihesi ibili naiz; zuk ni maitatu nauzu eta nik zu menespreziatu zaitut. O ene bizia! Zuk senda ezpanazazu zeure ontasuna gatik, eritua egon behar naiz.

Bekhatu mortal bat egin dudan guziaz zuk konserbatu nauzu ifernuko putzura ez erortetik: zeren eta bekhatu mortalak ifernua merezi baitu.

Ni zure iduritako banendi nahiz zu ene iduritakotu zara, eta konpli bedi zure borondatea.

Ezta erran behar zuk ni alferrik bilhatu nauzula, eta zuk ene baithan eskurik eztuzula; aitzitik obeditu nai zaitut; zeren-eta zure kontent egitea baita ene kontamenendurik handiena, suak hautsa bezala zure amorioaren suak ene baithan humiltasunaren hautsa egin beza.

O ene arima! gure ondoan gure bilha dabilanari noiz artean ez aditu iduri eginen diogu? O harrizko bihotza! noiz artean hunelako gogortasunean biziko gara? Moiseren zigorrak harrieta-rik ura edoki zuen, eta lesu Kristoren gurutzeak

gure bihotzetarik eztu nigar amurus bat edo penitenziazko bat atherako?

Ene etsaiak esko ene ganik gozo tiratu du: ni neure borondateaz zure naiz, eta zuretzetik, zuk plazer baduzu, nihork ezin debeka nazake. Zeure miserikordia gatik etsaiak despit duela: har nazazu, eta etsaiak ere iakinduri egitea gatik haek baino zuk ene baithan bothere gehiago duzula zeure plazerera trata nazazu.

Mundu guzia salba dedin nahi duzu; eta othoi salba nazazu. Ahalketan ni ez erorzea gatik eta ohorez bizitzea gatik. Korregituko naiz; orainoko hobenak gatik eginen dut penitentzia eta zure garaziaren faborearekin batean gero gehiago bekhatirik ez egitera enseiatuko naiz sekulako loriara zure miserikordiaz ethorzea gatik. Biz hala.

lainkoarekin bat egiteko desirapen debota

O Iesus ezitia! o ene lainkoa! ebe hastea! eta ene egilea! o amorio finik gabea! nola eta zer

eginen dut? launa eman diazazu ene arimari karitatezko sukhar bat; emen diazazu ene bihotzari sekulan iraungiko ezten lankozko xinta bat.

O ithurri infinitua! o amorio sainduaren labe goria! har nazazu; erre nazazu, gathiba nazazu.

O ontasun bethiere maitatzekoa! e ene bizia! ene parabisua eta ene laungoikoa! ni behar eta desira ahal dezakedan guzia zure baithan da. O itsaso konplitua! zure ganik heldu dira gauza guziak. Ene arimak zu galdegiten zaitu, eta zure bilha dabila. Berze gauza guziak zure gatik bilhatu, desiratu eta maitatu behar dira, libra nazazu neure ganik eta tira nazazu zeure gana zeure amorioaz ni zeurekin orhatzea gatik, hala nahi nuke launa.

O Iesus ona! o ene esperanza! o ene arimaren maitea! ene arimaren esposa! ene bizia! ene loria! ene konsolamendua! ene lainkoa! garbi diazadazu neure arima, zeure amorio gozoaz bethe eta berthutez aberats, zeure iar-lekhu egite gatik eta gure ganik nahi ditzun plazerak handik harzea gatik.

O neure bihotzeko lainko! noiz desira dudan bezala edirenen zaitut? Noiz zeure garaziaz eta

zeure amorioaz zeure ganako nauzu? noiz berze gauza guziak utzten ditudala zu neure lainko eta neure erregea maitatuko zaitut? Eman diazadazu garazia, eta maita zaitzadan.

O Trinitate saindua, Aita, Semea eta Espiritu saindua hirur presuna, eta hirur presunak egiazko lainko bat, irakats diazadazu nola maita. O Aita eternala! zeure konsolamenduaz goza ezazu ene bihotza bethiere zurekin bizitzekotan. O lainko handiaren semea! argi diazadazu neure adimendua, egia eta neure flakotasuna ungi nik ezagutzea gatik. O Espiritu saindua, Aitaren eta semearen amorioa! Zeure borondate sainduaz eta karitateaz bethi fabora nazazu, zuk ene ganik nahi duzun plazera nik konplitzea gatik.

O ene Iesus ezia! zu obeditzea gatik emen diazadazu neror bezala eta perfetuki maitatzeko garazia. Eman diazadazu zure zerbitzu sainduan enplegatzeko garbitasuna argitasuna eta konplitasuna.

O Aita eternala! zeure eskutik eduki itzatzu bethiere bekhatoreak, laburzki fede onera konbertitzea gatik. Hugonautak, paganoak eta infidel guziak eliza sainduan ezar itzatzu bere salba-

menduko bideratzea gatik eta zure sehitzea gatik. Eskola itzatzu inorantak. Gezurtiei egia onhetsaraz diazezu. Gentilei egia eta fedea eza-gutaraz diazezu. Periletan direnak sokorri itzatzu. Defuntuak purgatorioko sutik athera itzatzu eta loria saindian eman diazezu sekulako pausua, eta niri ere mundu hunetako partiadan eman diazadazu parabisua. Biz hala.

Marinelen debozinoa, eta lehenik goizeko gomendioa

In nomine patris, et filii et Spiritus sancti.
Amen.

Benedicta fit sancta et indiuidua Trinitas, nunc et semper et per infinita saeculorum faecula. Amen. *Pater, Ave, Credo, Confitiur.* Ixilik erraiten dira, baina laur hautzaz berzeak ihardetsika, eta bati berzek elkhar adi dezaketen bezain gora ihardesten deraukatela.

V. Iainko miserikordiazkoak eta bothere guzia duenak othoi geure bekhatuez, barkhamendua eta absolbazino digula.

R. Amen digula.

V. Iainko pietatezkoak egun hunetan (edo gau hunetan) bekhatu egitetik begira gaitzala.

R. Hala gaitzala.

V. Iainkoak gure ganean miserikordia duela.

R. Iainkoa zure baithan esperanza dugun bezala.

V. Iainkoak digula bere bakea.

R. Eta hil ondoan sekulako bizia.

V. Benedika bedi Iainkoaren izen saindua.

R. Orai eta bethiere.

V. Iaina ezazu ene othoitzza.

R. Eta ene deihadarra hel bedi zure gana.

V. Orazinoa da eta alxa gogoak.

Berzetan non nahi bezanbat itsasoan esku duzu Iainko guziz botheretsua! laudatzen eta ahal bezanbat adoratzeko dugu zure maiestate saindua, eskerrak eta laudorioak emaiten derazkitzugu orai artean errezibitu ditugun ontasun guztiak gatik eta beregainki iragan gauean peril guzietarik, begiraturik egin hunen ikhusteko emen derakuzun garazia gatik: baina berze alde nola bethi fabore behar bizi baitzara, zure bait-

han geure sinheste guzia emaiten dugula,
othoitzten zaitugu, arren zeure itzalaren azpian
faboratuak eduki gaitzatzun. Ea bada, lainko
handia, bisita itzatzu gure bihotzeko barrenak,
arimak eta gorputzak, eta eman diazaguzu
egungo egunean bekhatuak ez egiteko dohaina
guk eginen, erranen eta pensatuko dugun guzia
zure ohoretan eta laudoriotan gerthatzea gatik,
halaber gure ganik aldara itzatzu inkuntru gaitz
guziak: Iguzu denbora ona: egor diazaguzu desi-
ratzen dugun portura gidatzeko zeure aingerua:
Benedika ezazu gure lana: Fabora ezazu gure
unzi guzia guk ere zuri obligazio hunen ezagu-
tzatan laudorio eternalak emaita gatik. Iguzu
ontasunetan bezala atsekabetan ere zure izen
saindua gatik pazientki bizitzeko berthutea.
Iguzu zure amorioan eta zure beldurtasunean
egun hunen iragaiteko garazia: eguzu zer ere
baitzara eta zer ere baitugu, hura guzia zure
ganik dugulako ezagutza egitia. Hunetarakotz
argi ezazu gure bihotza: Khen itzatzu gure adi-
menduetarik inorantziak: aratz itzatzu gure espi-
rituak: bero ezazu gure borondatea: eman diaza-
guzu zeure amorioa: erna ezazu gure memoria

erregela itzatzu gure akzioeak eta molda gaitzaitzu zure plazer onaren gogara bizi gaitzkeien bezala. Iesu Kristo launaren botherez. Biz hala. Guziek elkharrekin erraiten dute gorazko.

Aingeru saindua lainkoaren pietatez ene begiratzeko kargua hartu duzuna, argi diazadazu othoi egun hunetan, goberna nazazu eta begira gaitzetarik. Biz hala.

Iauna, zure eskuetan gomendatzen dut neure arima: lainko egiatia redemitu nauzun bezala nitzaz kontu eduki ezazu. Biz hala. Lainkoak eman diazagula bere benedizioea gaitz guzitik begira gaitzala eta sekulako bizitzera eraman gaitzala: eta defuntuen arima fidel guziak lainkoaren miseriakordiaz bakean egon daiteala. Biz hala.

Arratseko gomendioa: goizean bezala othoitzerainokoak

Gure arimen argia, gauik gabeko eguna, goibelzen etzaren iguzkia, eta kreatura guzien lainkoa! zure baithan dago lurreko eta zeruko pau-

sua zeure gomendiokoei denegatzen ezteraeuzula, ez mundu hunetan eta ez berzean, baldin zure gogara nigarrezko haran hunetan mantentzen badira. Gu, ez berzek baina zure eskuan egin gaituen kreaturak zure maiestate handiaren aitzinean othoitzez gagozkitzu, arren gizonaren pausuko ordenatu duzun gau hunetan gomen diotan har gaitzatzun zeure hegalen itzalaren azpian edukitzen gaitutzula periletarik begiratzeari gatik eta ifernuko otsoaren zinzurretik zeure bizia gosta zaitzula erodi gaitzatzun ardiak salbatzea gatik: ezen, o Israeleko begirelea, zu zara lainko bortitz hura eta lainko espantuzko hura, zeinen izenak urrunzen baititu espiritu gaixtoarn hurbildura, desegiten enganamen duak, eta barraiatzen zelatak. Beraz zeure eskutik eduki gaitzatzu gure begiak lotan egonen diren bizkitartean gure espiritua zure aitzinean iratzarria egoitea gatik eta hala zuk begiratzen bagaitutzu nork akometatuko gaitu? Zu alde bazaitugu, nor kontratuko zaiku? Zure baithan baldin bada gure pausua, zerk asaldatuko gaitu?

Izaiteaz, presentiaz eta bothereaz bezala zeure garaziaz eta faboramenduaz gure baithan bazarra, zein ametsek tenta ahal gaitzake? Gure baithan zu hunela edireitea gatik eta zuk faboratzea gatik ahal bezain othoitz humillez othoitzean gagozkitzu geure bihotz guziak ofrendatzen derauzkitzugula eta desiratzen dugula zuk izan dezazun hatsharzeak folsu-zapadak, arteriako mobimenduak bezanbat esker eta laudorio gure berze akzione guziekin egun batez sekulan ilhunduko ezten egun argi hartara zure benedizionearekin batean helzea gatik Iesu Kristo gure iaunaren merituez. R. Biz hala.

Aingeru saindua, Iainkoaren pietatez ene begiratzeko kargua hartu duzuna! gau honetan othoi argi diazadazu, goberna nazazu eta gaitzetik begira. Biz hala.

V. Iainko guztiz botheretsuak eta miserikordiazkoak, Aitak eta semeak eta espiritu sainduak benedika gaitzala. R. Biz hala. Debozinotiak Birjinarren letharinak edo berari zaikan berze orazino erranen du beregainki.

San Franzesi eta santa Klarari othoitzza

lainkoak berze aldiz, o saindu maitea, erran zeratzun haren etxe erortera zihoana alxa zenezala: baina guk marinelok hunela manatzeko eskun duen laun handi hunen prezenzian othoiztu nahi zinitukegu, arren itsasoko periletara zuk zeure ahalaz fabora gaitzatzun: ezen itsasoan eta itsasotik kanpoan zuk hilez geroztik egin ditutzun mirakulluek lainkoa baithan halako eredita baduzula kalrki irakhasten derakute. Kronikoetan irakurzen dugu zuk ura hartu zuen unzi batetarik pelerin eri bat, konpainia lekhuko zena espantuz zegoela, salbatu zenduela: Barulitango portutik milla lekoa urrun ziren marinolak bere beharrean handiro faboratu zinituela: Reateko fraide lakue salbarazi zenduela eta berzerik ere hainitz konsolatu duzula. Beraz gure esperanzak zure baithan ediren beza bere fabore desiratua. O santa Klara, hainitz andre serora deboten ama! Zuk ere plazer baduzu zeure debozino sainduaz faboratuko gaitutzu geure behar

orduetan. Pisako hiritik partitu ziren marinelak
zuk hirur argiz hirur lekhutan argitzen zeneraue-
la faboratu ezpazinitu, Areitango portura helzeko
peril guti zuten, eta hala zure lagunzaz salbatu
ziren, historia egiatiak aithorra duen bezala. O
Franzes saildua eta Klara andre ohoratua! Gu
ere marinelak gara, arriskuan bethiere bizi gare-
nak, eta gutien uste dugunean beharzen garena,
halakotz othoi gure desirak enzun itzatzue,
borondateak errezihi eta fabora gaitzatzue: guk
ere salborik eta kitorik lainkoaren garaziarekin
batean geure etxetara hel gaitanean eskerrak
eta laudorioak zuen izenaz bathaiatuak diren eli-
zetan emanen derauzkitzuegu: baina bitartean
othoi deihadar egiten dugunean, zeren herstura
handiak premiatzen baitzaituke ernero hel zakiz-
kigute geure salbamendutan. Biz hala.

Tormenta alxatzean othoitza

O lainko muga guziak eternalki bat itutzuna!
Botherez, presentiaz eta izaitez bazer guzietan
edireiten zaren lainko handia! zu zara zeruez

gagnetik, zeruez beheretik, zeruen barrenetik eta gure gana guk zeurok baino hurbilago eta barrenago. Gagnetik zaude launak bezala manatzea gatik: beheretik zaude habeak bezala sostengatzea gatik: barrenetik zaude bethagarriak bezala faboratzea gatik. Ea bada komarka guzietan espanturo edireiten zaren lainko guziz botheretsua, arren herstura handi hunetan zeure garzia sailduaren aiuta eztiaguzula ukha, aitzitik zeure miserikordia infinitura emero behatzen duzula peril hunetarik libra gaitzatu gurekin añañhitz berze aldiz bezala. Aithorzen dugu geure bekhatuak gatik, ez eskapatzea, baina millatan hondatzea merezi dugula! ordea, o maiestate handia! penitencia iustu bat egiten dugula zuk plazer duzun bezalakatuko gara: geure bekhatuen barkhamendutan eta zure satisfazinotan othoi eman diazaguzu behar bezanbat espazio: zeren-eta zuk nihori miserikordia eginagatik, ezpaita berdin zure iustizia niholatan daiñatzen; aitzitik bethi iustu eta bethi zeure estantean zaude. Halakotz zeure pasione sailduko merezi-

menduak gatik, arren zeure begi miserikordiaz-koak bethi itzul itzatzu gure gana, baina guziz ere oraiko premia handi hunetan. Othoizten zaitugu San Franzes zeure maitearen eta Santa Klara zeure alaba debotaren orhoitzapenez: Othoizten zaitugu gure partez othoizten zaituzten guziez. O harmaden lainko miragarria! enzun gaitzatzu eta geldi itzatzu haizeak, sosega uhinak, argi hodoiak, eder denbora, kalma itsasoa, desegin espiritu gaixtoaren indarra. Erakhuts diazaguzu zeruko argia, khen bihotzeko tristura, eta zeure anze botheretsuaz kuraia diazaguzu geure espiritua; guk ere geure aldetik eztugu ahanziko fabore hunen ohoitzapena; aitzitik emendatzen garela zu laudatzea gatik eta lorifikatzea gatik eskerrak emenen derauzkitzugu. Biz hala.

Othoitz hunen aitzinean eta ondoan batzuek erran bitzate debotki Birjinaren Letharinak, berzek khoroa, eta berzek berzela, baina fede handi batekin.

Arimaren ordenua

Aitaren, eta semearen eta Espiritu saildua-
ren izenean biz. Neure lainkoari eta neure krea-
tzailleari nik arima pobrorrek eta ondikoekorrek
egiten diot beherago eskiribatua den fede, orde-
nu, azken borondate paktu eta promes hau: zuri
diot, o Aita, o semea, o Espiritu saildua! emaiten
natzaitzu, eta gomendatzen deratzut neure
burua, zeren-eta zure arthak eta zure amorioak
irabazi baitnau: baina emaiten natzaitzu delibe-
ramendu oso batekin eta fermu batekin; emai-
ten natzaika guzia totalki zure borondate sail-
duari, iustuari eta egiazkoari: Gargoro hemendik
aitzina eztut nahi nik nerorrek neure gainean
berze eskurik izan, o ene iabea eta nabusia, zuk
emanen derautazunik baizen, zeren orai beretik
neure donazino errealaz, aktualaz eta garbiaz
zure baitnaiz eta ez neurea. Bai, o lainko egiatia,
arima hau zure esposa da, zure zerbitzaria da
eta hobeki erraitera, zure gathibua da.

Lekhuko deitzen ditut zeruko erregina loriaz
bethea, parabisuko aingeru eta saildu guziak;
othoizten ditut halaber guziak betan eta bat

banaka ene ararteko enplega daiteala, launaren laudoriotan eta ohoretan nik neure promez hau solamente konplitzea gatik.

O ene lainkoa eta ene Aita! ahalik beherena neure ezdustasunean iausten naizela ahal bezanbateko borondate batez eta debozino batez adoratzan, aithorzen, ohoratzen eta errespetatzen zaitu.

O Iesus gurutzean ene gatik itzatu zarena! Lehenbizirik aditzen dut eta nahi dut ni naizen zure gathibua, nahi dut ene pensamenduak, ene hitzak, eta ene obrak zure zerbitzuaren plazeran guziak enplega daitean.

Ukhatzen dut munduaz, haragiaz, eta deabruaz berze ukhatzeko guziekin.

Humil eta obedient lainkoaren manua azpian bizi nahi naiz neure bizi guzian; eta hala pobreziak zehatzen, estorbuak meskinzen, malenkoniak nekhatzen, tristeziak akometatzen, izterbegiek entoxatzen, eta berzela berze asalduk prematzen banau, launaren izenean eta neure gaztigutan gogotik pairatuko ditut guziak gehiago balire ere, eta zeren alde guziz desira baitut lainko launaren borondatea konpli dadin:

eta ene etsaiak ene baithan deusen pretensione-
rik ez harzea gatik, o ene lainkoa! gomendatzen
deratzut neure burua zeure eskuetara gogoz eta
bihotzez zure karguan gelditzen naizela, Aitaren
eta Semearen eta Espiritu sainduaren izenean.
Biz hala.

HUNARAINOKOAN DA OBRA HUNEN BIGARREN PARTEA

HIRURGARREN PARTEA

Heren ordenako debozinoa: eta lehenik

Ordena hunetako penitenziaren hastea

Nik lainkoari esker ikhasi dut eta eztakitenek plazer badute ikhas bezate Gure Aita san Franzes serafikoak hirur ordena bere erregelekin fundatu dituela, gu fraide menorak, santa Klarako serorak eta penitenziako debotak: baina ene borondatea da, ez lehenbiziko biez, bai azkene-ko orden hunez tratatzea.

Beraz hitz gutiz hainitz deklaratzeari gatik erranen dut Ordena saindu hau hasi zen urthea zela milla, berrehun, hogoi eta batgarrena, Italian Ombriako probinzian, Spoletako haranean, Kanariako harrean, Asiza hiritik lekoatsu bat apartean: horra ordena hunen hasteari lekua. Horra urtea 1221.

Zergatik edo nola gauza hau hunela gerthatu zen iakitea gatik nota ezazue lehenbizirik san Franzesi, berak hala errekeriturik, predikari ibiliko zela laainkoaren partez mirakulluki deklaratu zeikala. Orai bada gizon saindu hunek lainkoaren manua egitea gatik Ebanjelio saindua predikatzen zuela jendetan hainitz zeruko amiora konbertitzen zuen bere prediku apostolikoez, eta tropelaka jendeak iarraiten zeizkan bere ordenako abitua eman ziazela, hek ere fraide nahi zirela lurreko gauzak hark bezala kitatzea gatik eta zerukoak harzea gatik, guziz ere erran dudan Kanaria herrizka hartan terrible hango habitantak lehiatu zeizkan. San Franzesek gauza hunen ganean gogoeta egiten zuela edireiten zuen alde batetik hanbat jenderen errezibitzeko konbenturik aski etzatekeiela, eta berze aldetik bazekusan jende hek hala tropelaka errezibitzea zela hiriak eta herriak jendetarik billuztea, mainadak eta familiak desegitea, mundua eta munduko poliza nahastea. Gauza guziak ordenu hobeagoarekin egitea gatik deliberatu zuen lainkoaren inspirazionearekin batean bizitzeko forma baten egitera eta goragoko erregela hau-

ken ordenatzera, penitenziarako desira duten guziak bide hunez zeruko loriara animatzea gatik, ernatzea gatik eta iratzarzeagatik: zeren eta berthuteak baitira zeruratzeko zurubia eta ordena hau berthuten exerzizioa. Lehenbizirik ordena hunetan fedea nihori gomendatzen zaika; hurrenekorik esperanza; herenekorik amorioa; 4 iustizia, 5 pietatea; 6 humiltasuna; 7 sobretasuna; 8 debozinoa; 9 exenplu ona; 10 bakea; 11 diskretasuna eta zuhurzia; hau guzia frogatua dago hemengo dotrinaren barrenean, ea guziz beha badezagu ordena hunetako sainduetara, edirenen ditugu ene hegatsak konta ahal litzakeien baino gauza goragoak: baina konsidera bezate munduko giristino herdoil batzuek ordena hunez gaizki erraitea dela elizako sainduak gaitz erraitea, zeren-eta bide hunez hainitz martirek, ipizpikuek, dotorek, kofesorek, birjinek, eta alhargunek izatu baitu zeruko loria, nola hainitzak baitira kanonizatuak eta hainitzak beatifikatuak. Berze alde prinzeak, erregeak, handiak, enperadoresak, erreginak, dukeak, baroinak, kondeak, aitonensemeak eta berzeak ordena hunetako ordenanzen azpian bizi ukhetu-

rik orai zeruko loriaz gozaten dira, eta orai eztaude urrikitan egin batez ordena hunen menesprezorak egonen diren bezala. Helas bert-huteak oraiko mendean gaitzetsiak dira. Oraiko tipiak, debozinoaz minzatu behar bagara, bere buruak handi egiten dituzte; baina oraiko handiak, batre berthuteaz prezatzen direan, humil dira eta debot: merka ona eta laudatzekoa!

Heren ordena hau deitzen da hunela, zeren herenekorik gure aita S. Franzesek ordenatua den hastean erran dugun bezala. Pribilegio handiak itu Aita sainduetarik eta beregainki Nikolao laurgarrena ganik, zeinek lehenbizirik bere eskiribuz konfirmatu baitzuen, berek bere gisa bate-tara moldaturik, eta handik enganatu batzuek gure aita patroin handiari zor diogun eskerra aita saindu huni eman diote. Baina kuriositate hau eta hunelakoak largatzen ditugula gathozin erregeletara, zeinen konplitzea aita deus guti konpliztean nekhatzea, ez deus galzea eta hainitz irabaztea. Iainkoak dizuela, anaia eta arreba mai-teak, ungi ordenako pontuetan bizitzeko garazia.

Heren ordenako erregelak

1. Ordena hunetan sarthuko denak behar du izan girstino fidel: ezen heretiko edo elizako legeak begiratu ez ituela sospetxatua lehenbizirik denboraz frogatu behar da bere egin-bidetan.

2. Ordena hunetan errezibitu baino lehen errezibitzeko kargua duena informatuko da ordenan sarthu nahi denaren kondizinoaz, ethorkia, estatuaz eta kalitateaz, ordenako legeak eta obligazioak deklaritzen derozkala. Aldez edo moldez errezibituko den baino lehen zorrak eta munduko tratuak kontenta bitza guziekin bake-tzera enseiatzen dela. Anaia diskretan erranera urthe baten buruan errezibituko da: baina lekhu-koren aitzinean prometatzen duela ordenako puntuak begiratuko dituela, ezpere emanen zai-kan penitenzia konplituko duela. Errizibitze hau eskiribuz hartuko da. Ordena hunetarik ezin athera daitezke berze ordena digneago batetan ez sarzekotz: guziak gatik ilkitzen lizena ez liza-teke sakrilego. Emazte ezkonduak errezibituko den baino lehen kongia bere senharra ganik izan behar du.

3. Anaiatasun hunetako en arropa biz prezio handia eztuen oihaletik, ez guzia belxa, ez guzia xuria, baina hauts kolorea duena: Ordea bizitadorek, superioerek eta kargudunek dispensa ditzake abituaz lekhuan lekhuko gisa eta ungi iuiatuko duten bezala: Espainian eta lehenago kapa, buruko trapua eta gerrikoa oihal beretik egiten zituzten orai euskal herri batzuetan bezala niholatako handirasunik gabe: baina dakitenekin konseilla beitea ageriak abutua erabili nahi eztutenak. Kalitate handitako presunak ere dispensatuak izanagatik bere beztiduretan eztute eman behar kuriositaterik, banaloriarik eta handirasunik dela prezioaz, iostesariaz edo koloreaz.

4. Komediarik, danzarik, gonbidu desonestarik eta berze dosteta debekatuatarik apartatu behar dira: eztute deusik hunelako gauzak gatik enan behar: bere etxekorik nihor hunelako hautara ibilizera eztute permetitu behar. Bere ahaiden edo adiskiden ezteietara ezpa berze onhesetasunetara ibil ahal daitezke libreki: baina bere akzione guzietan eduki bezate modestia eta konpañia perilos guzietarik bethi zuhurki aparta beitea.

5. Elizako barurak bazurzea kargutan edukiko dute, bethiere sobreki bizitzen direla. Aste lehenetan eta aste azkenetan aragirik eztute ian behar; urtheko orzillare guziaz barurtuko dira; saindu guzien bestatik Bazko egunerainoko aste azken guziak eta San Andre egunetik eguberri egunerainoko abendo guziak barurtuko dituzte osoki. Barurzetik superioak dispensa ditzake, dela eritasuna gatik, flakotasuna gatik, nekea gatik, piaietan ibilzea gatik, edo berze nezesitate gatik. Eguberri, Andre Dana Maria, san Franzes edo berze zenbait besta handi egun hetan izaiten bada, halaber dispensa ditzake abstinentzia hautarik. Othurunzari lotzerakoan erran behar da *Pater noster*, eta berze othoitzekin batean mahainetik iaikitzean ere erran behar da; ahanzirik edo berzela erran gabe gerthatzen bazaika; behingo erran gabe baten orde erranen du hiruretan.

6. Eguberriz, bazkoz eta mendekostez gutienaz ere kofesatuko dira, eta gorputz saindua debotki errezibituko dute. Herrarik, gaitzerizkoarik edo arrankurarik bere giristino lagunarekin duena aitzinetik baketuko da eta satisfazino

emanen du. Bazkoaz bere herriko erretorak herrian kofesatzera obliga ditzake; handik kanpoan debozinoak iustu den bezala libratzen ditu nora nahi.

7. Minkarreko harmarik eztute berekin erabili behar, salbo superioraren kongiarekin, edo eliza defendatzea gatik, edo fede saindua konserbatzea gatik edo bere herria begiratzea gatik; kasu hautan zilheki dira.

8. Anaitasun hunetako apezek bere elizako ofizioaz landan ordena hunetako bere zorra pagatzea gatik eginen dute san Franzesen ordenatik orenak akhabatzean orhoitzapen bat, eta defuntuak gatik erranen dute erresponso bat, *Deus Veniae!* erraiten dela othoitzaz.

Ordena sakraturik eztutenak bere kargua konplitzea gatik Birjinaren ofizioa erraitera tenitu dira. Defuntuak gatik eta beregainki anaitasun hunetakoak gatik ofizioaren ondoan zenbait othoitz eginen dute.

Egun guziaz bedere (nola baitira irakurzen eztakitenak) tenitu dira bere orenak erraitera, da iakiteko, Matutinak, laudeak, Prima, Terzia, Sexta, Nona, Bezperak eta Konpletak: Matutinak

gatik hamabi *Pater noster*, *Aue Maria*, eta *Gloria Patri*. Othoitz hauk berak zazpi banatan erran behar dira berze orenetn. Ordea priman eta konpletetan othoitz hautzaz berze alde erran behar dira *Credo* eta *Miserere mei* ezpere gogoz ezta-kitzatenek hirurnatan *Pater*, hauken lekhuaren erranen dute.

Eriak ofizioaren erraitera bere borondatera baizen eztira zordun: baina guziok garizuma denboran egun guziaz elizako debozinora ibiliko dira ahal bezanbat.

9. Anaitasun hunetan errezibitu denetik hirurgarren ilhabethean eginen du bere onez bere ordenua, baldin ordenatzeko bothereduna bada, bere deusak espiritu sainduaren inspirazionez ungi emplegatzea gatik, eta ordenurik gabe ez hilzea gatik. Hunetarakotz on da gauzan intresik eztuen zenbait zuhurrekin konseillatzea.

10. Anaien eta arreben artean eta guziak baithan bakean eta arrunkidetasun onean biziko dira, hunetarakotz ahalaz enplegatzen direla.

Hauken artean hauzirik edo diferenziarik izaitera gertha badadi, akhorda bitza karitaterekin

superioraren abisuz edo gizon prestuen erranera disputatik atheratzea gatik.

11. Bere ordenako erregelen edo pribilegioen kontra nihork ere inkietatzen baditu, eta damurik ezpa bidegaberik egiten bazaie, laun ipizpikua gana edo bere ordinarioak gana gerella beitea ordena hunetako ministreak konseillatzea gatik nola gobernatu behar diren.

12. Iuramenturik solemnelki egitetik begira beitea: baina bakea gatik, fedea mantentzea gatik, kalumniatik ilkhitzea gatik, lekhuko egia-zen izaitea gatik, nola sal-erosi hartu-emanetako kontratuetan, edo zenbait premia handiak gatik egin dezakete.

Zinik, arnegurik ezpa iuramenturik sobera derasatenei bezala ustekabetan itzurzen bazaie, arratsean bere konzienzia examinatzean, arinki zin bat egin duela orhoitzen bada, zin ezpa iuramentu bakoitza gatik erranen du hiruretan *Pater* eta *Aue Maria*.

Mainadarik duenak bere mainadari lainkoaren dotrina eta giristinotasuneko eginbideak irakhatsbiatzo.

13. Komoditaterik dutenek egun guziaz meza enzutera eztute faltatu behar, bere buruzagiak ordenatzen derauen ilhabetheko egunetarik batean ilhabete guziaz guziak meza enzutera bilduko dira. Eliza hartan konpainiako anaia bat ezpa arreba bat ordenatua izanen da nihork emanen dioen limosna errezibitzera, eta diru bilduko den hau enplegatuko da parte ordena hunetako pobreak sokorritzea gatik, parte defuntu beharrak ehorztea gatik, edo zertako buruzaguak ordenatuko baitu hartako. Bilgura huneran exortazione bat eginen zaie ordenakoak animatzea gatik penitenziara, obra miserikordiazkoetara eta lainkoaren manamenduak begiratzerara; debotki, atentuki eta afizionatuki enzunen dute guziek; ezen kasuaz landan eztute faltatu behar.

14. Ordenako eriak bere eritasuna bere buruzagiari adiaraz biazto: Buruzagiak edo buruzagiaren orde zenbait berzek aste guziaz behin bedere hautemanen dute eri datzana. Ordenakoek halaber bisitatuko dute, eta eriak konsolatzeko artha izanen dute, sakramendu sainduak errezibitzera eta arimako deskarguak egitera dotrina-

tzen dituztela, eta beharrak badira fagoratzen dituztela.

Ordenakorik nihor hilzera badadi, herri hartako anaia guziak eta arreba guziak abisatu behar dira ehorzteko eginbide guzietan hastetik ofizio guzia akhaba dadin artean han edireitea gatik. Zorzi egunez bat bedera tenitu izanen da defuntuaren arima gatik othoitz egitera.

Apez Anaiak hil egunean meza bat emanen dio, eta hil meza. Irakurzen dakitenek erranen diotzate berrogoi eta hamar salmo, azkenean *requiem aeternam*. Irakurzen eztakitenek erranen dute berrogoi eta hamar *Pater noster*, halaber *requiem*.

Urthe guziaz erran araziko dira hirur meza ordenako biziak gatik eta hilak gatik. Irakurzen dakitenek urthearen barrenean erranen dute salterioa, erran nahi da ehun salmo, bere komoditatera: irakurzen eztakitenek ehun *Pater noster*, pater guziaren ordoan *requiem*.

15. Buruzagiak eta ordena hunetako kargudunak bere eginbidearen egitera ahalik delientkiena eta fidelkiena bermatuko dira debozinoa

gatik: baina bethiereko kargudun bat ezta egin behar, aitzitik hanbatik hanbatera aldatzen dela.

16. Ordena hau san Franzesek egina denaz geroz nahi dugu bisitadoreak, direktorak gobernariak ezpa kargudunak diren fraide menoren ordenatik, kustodioek, gardianoek edo bothere dutenek hautatuko dituzten bezalakoak.

Urthean behin konbentu batetara bilduko dira eta han faltarik duen buruzagi hunek korregituko du, eta hirur aldiz abisatuz geroz emenda ezpadadi, ordena hunetarik khen bedi, guziarekin ere diskreten eta zuhurren konseilluz.

17. Hauzitarik, liskarretik, eskatimatik eta edozein gudutarik egin ahalaz aparta beitea: bere enseiu onez ezin disputa iraungi dezakete-nean, bothere duena baithan ebaraki bezate emero.

18. Bisitadoreak edo hunen lekhuan dadukanak dispensa ditzake behar orduan barurak, abstinenziak ezpa elikatzetasunak eta penitenzia hunetako berze puntuak; dispensa ditzake edo beharrez muda ditzake.

19. Ordena hunetako kargudunak abisa beza bisitadorea, edo bisitadorearen lekhua dadukana kulpantak hunek punitzea gatik. Hirurgarren aldian abisatuz geroztik emendatzen ezpada kargudunaren ezpa ordenako anaiaren erranera, bisitadoreari adiaraziko zaika, hark khenduko du konfrariatik eta khendua dela guziei deklaratuko zaie.

20. Baldin berzenaz lainkoaren edo elizaren manamenduez obligatuak ezpadira, ordena hunek manatzen dituen puntuak ez konplitu gatik eztu bekhatu mortalik egiten: baina zeren erregela hunetako ordenanzak hautsi dituen, gogotik konplitu behar du emanen zaikan penitencia, penitenziako obedientak bezala.

21. Hunenbatenarekin ezten nihor hain atrebitu, non gure ordenako erregelak estima ditzan gaizki fundatuak: halakoak beaki lainko bothere guzia duenaren iondone Petri eta iondone Paulo apostoluen maldizinoa iarraikiko zaikala, dio Aita saindu batek.

Profes sarzen denak

Nik A. N. prometatzen diot lainko guziz bot-heretsuari, Birjina Maria dohatsuari, san Franzes dohatsuari eta berze saindu guziei biziko naizen denbora guzian lainkoaren manamenduak begi-ratuko ditudala, eta bizitze suerte hunen kontra egin hutsak direla kausa ordenako buruzagiak emanen derautan penitencia obedienciaz hartu-ko dudala, eta desiratzen dut ene intenzione eta deliberamendu fermu hau firma dadin.

Notatzeko puntuak

1. Arimaren salbamendua hobeki egiteko kontuan bizitzen manera hau ezteela nezesario sinhesten duenak bekhatu mortal egiten du.

2. Ordena hunetako legeak konplitzea ezteela berthutetsu sinhestea da bekhatu handia.

3. Añhitz Aita sainduk laudatu duten bezala, abitu hunez publikoki beztituz lainkoaren ohoretan eta bere arimen probetxutan bizitzea, gaizki dela sinhestea, da bekahtu handia eta heresia.

4. Harzea baino ez harzea presuna laikoek hobeki egiten dutela diotenek, edo botu hunek deusik eztuela balio diotenek, deusik eztakite, edo dakitela gisa hunetan minzo badira, hanbatenaz gaztigu handiagoa merezi dute.

5. Ezkonduak gatik, ezkondu-gabeak gatik, elizako jendeak gatik eta laikoak gatik abitu hau hek harzea ez on eta ez probetxu dela dioenak izanen du lainkoaren maldizinoa, dio aita sainduak.

Nihork nihor ordena hunetaratzetik iakiara gibelatzen badu, berzeak han eginen zituen abanzamenduez kontu eman behar du, eta inoranziaz hala gerthatua gatik satisfatzeko gogorik eztuenean ifernuko bidean dago, dio Aita sainduak.

6. Berze ordenak obligazinozkoak dira, baina hau debozinozkoa da: berzeak bere konbentuak beregainki dituztela dira: baina hau nor bere etxean egoiten dela badate: berzeak exzellentago dira generalki, baina hunek badu zenbait dignitate beregainki.

7. Berze ordenakoek bere manamenduak egiratuko dituztelako otuaren azpian mengoaz

kanpoan ez begiratzea bekhatu mortal egiten dute: baina ordena hunetakoek bere botua ez konplutua gatik eztute bekhatu rik batere.

8. Ordena hunetakoak hainitz perdunanza irabazia gatik eztira eklesiastiko. Bazkoak erre-torek herrian kofesatzen direla harraraz diatze-ke. Ipizpikuk ta iuge sekularek badute ordena hunetako en gainean bothere ordenako ezpalire bezala, baldin berzenaz berzela beregaineko berezkuñik ezpadute.

9. Ordena hunetako botua da debozino kon-seillatu bat bere konzienziako pausu ona bilha-tzea gatik eta lainkoaren zerbitzuan bidezkiago bizitzea gatik. Ordea sudurra baino arrazoina laburrago duten batzuek erran dute eta erraiten dute. Ordena haunetako botua dela kausa, botua ez konplutzea dala bekhatu egitea. Aita saindua Nikolao laurgarrena kontra dute hunelako errai-lllek, eta dio eztela bekhatu rik ordenako orde-nanzak ez konplutua gatik, heren ordena hunez minzaten dela. Berze alde theologoek irakhas-ten dute botuko obligazinoaz minzaten direla promesa eta intenzio ena obligazinozko gauzetan diferentak direla, eta biotarik bata eskas den

orduan ezkarela bekhatu mortalen azpian obligatuak azkenzen, eta hala botu bat eta obligazio bat egite hunek iduria gatik, ezta ordena hunetan sarzen denaren intenzioea bekhatu mortalen azpian bere burua obligatzera hedatzen promes huneko manamenduak ez konpliztera eror badakio: aitzitik lainkoaren garaziarekin batean promes egiten du bere promes ona egiratuko duela eta zeren ordena sarzen denaren, ordenan errezibitzen duenaren, ordena fundatu duenaren eta aprobatu duenaren borondatea baita bekhaturen penan ez nihor obligatzea, hala nihor ezta bekhaturen penan obligatzen. Baldin botua dela erran nahi baduzu, botu da analogiaz, eta hala berze botu guziek obligatzen dute hunek ez; zeren eta gure Aita san Fransezek bera konbertitu zenetik hamalaurgarren urthean inspirazione sainduz obligazinatorik gabe fundatu baitzuen eta zeren adimendu eskas batzuez berzerik ezpaita kontrariatzen ordena saindu hunetako erregela iustuen kontra.

10. Berze ordenakoak zein bere ordenaz kontentatu behar dira; baina guziek abitu haur har dezakete, eta da tunika bat bere gerrikoarekin:

perdunanza handiak ditu: Birjina andreak bere seme launari egin zerokan arroparen memoria eta kolorea du, eta gure nabusi Iesu Kristo launari bere pasionean iaunzi zerukateneko memoria. Gerrikoak signifikatzen du nola gure bekhatuak gatik iuduek gure laungoikoa garrotatu eta amarratu zuten, baina gisa gaizki.

Abitua agerian darabilatenek meritu gehiago dute kapitain kuraiosek eta deliberatuek halako arrisku handiak eztarabilzatenen artean bezala.

Ordena hunetako perdunanzez

Itsaso zabala unzi hersi batean zerratzea lizateke ordena hunetako perdunanzak ponturen puntu orai hemen tratatzea: baina prinzipalenez mainzatzea gatik eta debotak faboratzea gatik.

Erregela generala da heren ordenako anaiek eta arrebek badutela perdunanzetan, garazietan eta faboretan fraide minorek bezanbat pribilegio eta parte; Inozenziok 8. eta Leonek 10. Late-rango konzilioan.

Ordena sakratu hunetako abisua harzen duzun egunean perdunanza osoa, eta minzo naiz prinzipalenez.

Hirur aldiz urthean, da iakiteko, Sankta Katalinaz, orzegun sainduan eta eguberri egunean perdunanza osoa.

Iesu Kristo gure launaren, hunen ama sainduaren eta apostoluen bestak diren egunetan perdunanza osoa.

San Franzes gure Aitaren besta egunean: Bonabentura, Antonio Paduakoa, Luis ipizpikua, Bernardino, Iakue eta santa Klara sainduak besta begiratzen diren egunetan perdunanza osoa.

Miserere mei, Salmoa eta *Deus qui inter Apostolicos* orazioa penitenziatzat apez anaiek kofesioan harzen dutela perdunanza osoa.

Purgatorioko arimen penak gutitzea gatik eta bide hunez arima hek faboratzea gatik perdunanza hauk guziok plazer duenak irabaz ditzake: baina nota bedi hauk hunela irabaztekoz irabaziko dituenak, ordena hunetako ordenanzetara emana ezpada, ez ituela irabazten; diote Aita sainduak

Finian heriotzeko artikuluan perdunanza eta absolbazino osoa fraide minorei bezala. Baina nola baita berthutea nobleziarik handiena, eta ordena hau berthuteko erregela, konpasa eta nibela, hala izanen denak enponituro berthutean eman beza gogoia eta bihotza. Gehiagoak bestetan notatuak dira p.o. letra hauk diren lekhuak; baina hauk eta gehiagokoak liburua ez sobera handitzea gatik utzten ditut.

San Franzesen kordoina

Kordoin benedikatu hau darabilatenek erranen dute seiratan *Pater noster*, seiratan *Aue Maria* eta seiratan *Gloria Patri*, seigarren *Pater, Aue* eta *Gloria Patriak* perdunanza hauk guziok hunela emen zituen aita sainduaren izenean erran behar dira. Erroman, Ierusalalen, Porziunkulan eta berze lekhu sainduetan oren hunetarainokoa eman diren garaziak, eta perdunanza guziak non nahi direla orazino hauk debotki erranez irabazten dituzte.

Lehenbiziko harzetik harat lehenbiziko kordoin harzearen berthutez gerogoagoko guziak ez benedikatuak nihork emanagatik, benedikatuak azkenzen dira. Kordoin hunen perdunanzak hirur aldiz notatuki dira gehiagokoez orai ez minzatzea gatik.

Kordoin hunetan lehenbizikorik sarzen den egunean. Porziunkolako bestan bere bekhatuez urriki handirekin kofesaturik errezibitzen duela. Hilzen denean ahoz ezin erran badeza bihotzez hiruretan Iesus erraiten duela. Apez exortatzailleak eriarri oren hartan Iesus erranarazteko dio, eta hala konfraria hunetakoak debotki erran beharko du, guziz ere oren hersi hartan perdunanza hunen irabazteko gogoarekin.

Heren ordenaren faboreko Aita sainduak

Honorio, Gregorio; Inozenzio 4. Klemens 5. Eugenio 4. Nikolao 4. Kalixto 3. Pio 2. Sexto 4.

Heren ordenako sainduak

San Luis errege Franziakoa.

San Elzearius Arriango kondea.

San Yues apeza eta sabanta.

Santa Isabela Ungriako erregearen alaba.

San Rok izurriaren arartekoa.

San Luzius Podiakoa.

Lukesius dohatsua eta San Franzesek berak
abitua emana.

Antonio Kalathagirona mairua.

San Ioan Niger martira.

Erramun Lulio.

Andre Katalina Angieterrako erregina.

Santa Arrosa.

Don Leon Milango arzipizpikua.

Don Gualter Triboko ipizpikua.

Don Gazpar de Borja kardianala.

Konstantinoplako enperadore senhar-emaz-
teak.

Robert Siziliako erregea.

Konrado Siziliako aitonensemea.

Domingo de Terris, ezkondua izana gatik 25.
urthez kastitatean bizi ukhetu zena.

Delphina Arriango kondesa bere bizi guzian kastitatean bizi izan zen ber espos Elzerariusekin.

Mathiu Rubio Nikolao 4. Aita sainduaren aita. Nikolas de Torre Sagobiako elizan kalongezena.

Pauko Mantuakoa.

Gehiago ikhusiko dute kuriosek gure ordenuko Aita Kaitonek orai berriro egin duen heren ordenako liburuan; zeinek dilientki notatu baititu Franzesez, eta hala nik ez itut hemen ezarri nahi, zeren hainitz baitira: ordena hunez ere dotrina ederra eman du.

Heren ordenakoek bere patroin sainduari othoitza

San Franzes zeruko prize maitea, lainkoaren adiskide handia, eta ontasun espiritualen bandera! baldin berze aldiz mundu hunetan bizi zinen orduan arimak konsolatzea gatik egin baitutzu predikuak, dotrinak, eta irakhatsmendu debotak, orai esperanza dut ardura duzula zeure botuko

zerbitzariez; eta zeren zure hitzari eta hatzari iarraitea zeruko konseillu zuhurtetan sarzea baita, arren fabora ezazu othoitzez eta suplikazinoz dagotzun arima behar hau, eta nola zeruko abantailak konparazino gabe handiagoak baitira, erakhuts diazaguzu lurrean bezala hor ere orhoitzen zarela zure izena laudatzen dutenez. Bitarteko on batek hainitz daidi, kredita duenak hainitz irabaz diazaio beharrean dagoen bati, eta othoi puntada hunetan ez nazazula errefusa: beharra naiz eta konsidera ezazu ene estatua. Ea bada, saindu amorotsua, enplega zaitea pobre hunen aberatsten, flako hunen bortizten, eri hunen konsolatzen, apartatu hunen adiskidetzen, eta bere hobenak gatik gaitzetsia den hunen lainkoa baithan garaziatzen. O pietatea! o amorioa! lurrak lurtu ahi deraut arima, ala baina bere kaltetan! Tradizino terriblea da, o ene arima, lurrari behatzea! beha zakitza zeruari, zeruan da zure dohatsutasuna eta zure harri naturala. Aparta ditzatzu ene ganik banitate sot-hilak hunetarakotz, o patraiarka saindua, eta baroin onhetsia! othoitz dezagun gure arimen salbatzaillea, arren ene adimendua argi dezan,

memoriaa aberats, borondatea erregela eta bihotza goberna. Badakizu zer ondiko den hemen bizitzea, badakizu zein gaitz den hemen eskapatzea: munduak, deabruak, haragiak eta ifernuak nola etsai minduak bethi maleziak pizten derauzkute, eta hauk duten sendagaillarik handiena da gure arimak kolpatzea, galzea, eta hondatzea; ordea aiuta nazazu, bethiere, ez ene mereziak gatik, baina zeure abitua gatik, etsaiak, irririk egin eztiazardan garaitu nauela. Hunelatan ene bizitzea onhetsiko da, zeure laudatuko, lainkoa ohoratuko, Trinitate saindua loriaz betheko, santifikatuko, eta azken finean ene arima aita eternalaren laudatzera zerurako da. Biz hala.